


# BAZAT\_Z?

IKASTOLEN HEZKUNTZA  
MARKO OROKORRA



AMAIA ANTERO  
AMAIA ARTOLAZABAL  
ESTHER GARAIALDE  
ZIGOR IBARZABAL



Azala, diseinua eta maketazioa: Lorea Uribe-Etxebarria

Amaia Anterok, Amaia Artolazabalek, Esther Garaialdek eta Zigor Ibarzabalek izenpezen badute ere, liburu honek Ikastolen Elkarteko, ikastoletako eta beste hainbat erakundetako pertsonen ekarpenak biltzen ditu, eta, horrenbestez, talde handi baten lankidetzaren emaitza da.

© Ikastolen Elkartea

ISBN 978-84-127470-0-3  
L.G.: D 00659-2023

Ikastolen Elkartea  
Errotazar bidea, 126  
20018 Donostia  
Tel. 943 445 108

<https://ikastola.eus>

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak ([www.cedro.org](http://www.cedro.org)) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)

# AURKIBIDEA

HEZKUNTZA MARKO OROKORRA, ZERGATIK ORAIN? ..... 06

## 1. IKASTOLEN HEZKUNTZA MARKO OROKORRA

1.1. ZER DA IKASTOLEN HEZKUNTZA MARKO OROKORRA? NORI ZUZENDUTA DAGO? ..... 10

1.2. ZER ELEMENTUK OSATZEN DUTE HEZKUNTZA MARKO OROKORRA? ..... 11

## 2. ZER-NOR GARA?

2.1. NONDIK GATOZ? ..... 16

2.2. IKASTOLA-EREDUA ..... 27

## 3. ZER LORTU NAHI DUGU? PERTSONA-EREDUA

3.1. ZERTAZ ARI GAREN ETA ZERTAZ EZ GAREN ARI ..... 49

3.2. PERTSONARENGAN ZENTRATUTAKO HEZKUNTZA-EREDUA ..... 61

3.3. PERTSONA-EREDUAREN DEFINIZIOA ..... 63

3.4. PERTSONA-EREDUA DEFINITZEKO URRATSAK ETA ELEMENTUAK ..... 68

3.5. PERTSONA-EREDUAREN EBALUAZIOA ..... 69

## 4. NOLA LORTU NAHI DUGU?

4.1. HEZKUNTZA MARKOAREN PRINTZIPIO PSIKOPEDAGOGIKOAK ..... 76

4.2. HEZKUNTZA-ILDOAK ..... 96

4.3. CURRICULUMA: ZER, ZEIN ETA ZERTARAKO ..... 132

AZKEN GOGOETA ..... 137

BIBLIOGRAFIA ..... 139

PERTSONA-EREDUA. DEFINIZIOAK ..... 144

# HEZKUNTZA MARKO OROKORRA, ZERGATIK ORAIN?

Liburu honek hainbat azalpen, gogoeta eta proposamen jasotzen ditu, eta horien guztien inguruan hausnartzera gonbidatu nahi zaitugu, irakurle. Bidai baten moduan planteatu dugu, ikastolen mugimenduan sorreratik beretik bizirik iraun duten helburuetatik abiatuta. Orrialdeotan, elkarrekin egindako bideak eman dituen fruituak nabarmendu eta,aldi berean, etorkizunera begira guztion artean egin beharreko urratsen inguruan jardun nahi izan dugu. Zeren eta garbi baitugu, konplexua bezain motibagarria den bide horretan, ikastola bakoitzean ibilbide propioa egin behar dugula, eta Ikastolen Elkarte bidelagun izango dugula.

Hezkuntzaren inguruan asko hitz egin da azken hamarkadan; asko eta askotarikoak izan dira zabaldu diren iritzi eta egin diren ekarpen zientifikoak. Horiek guztiak, baina, gure gizartearen, kulturaren, hizkuntza-errealitatearen eta hezkuntza-xedearen begiradatik aztertzea ezinbestekoa da. Ezagun da ikastolen mugimendua eta ikastola bakoitza behar eta egiteko zehatzekin jai

zirela, eta helburuak lortzeko egitura, antolaketa eta egiteko desberdinak izan dituztela historian. Baina beti hasierako helburuak begi-bistatik galdu gabe aritu gara, eta gaur egun ere ipar berak gidatzen gaitu. Izan ere, Euskal Hezkuntza Sistema euskaldun, propio, pedagogikoki aurrerakoi eta sendoa sortu eta garatzea da ikastolen xede nagusia.

Komunitate zientifikoak azken urteotan ekarpen handiak egin dituela aipatu dugu, hala nola, pertsonaren garapen ebolutiboaren gaineko ikerketak, irakaskuntza prozesuen gainekoak edota ikaslearen rola gainekoak. Hauei guztiei ikastolen geneetan bertan txertatuta dagoen berrikuntza eta hobekuntzarako grina gehitu behar diegu. Gauzak horrela, mugimendu bat ordezkatu eta hezkuntza ulertzeko modu bat partekatzen dugun aldetik, egokia iruditu zaigu gure balio, helburu, printzipio psikopedagogiko eta abarren gaineko kontakizun eta gogoetak biltzea. Eta horixe da liburu honen helburua, Ikastola proiektua osatzen dugunok batzen gaituen oinarritzko ikuspegia azaltzea, alegia. Edo, bestela esanda, zergatik aritzen garen egunerokoan aritzen garen bezala arrazoitzea. Bada, arrazoiketa hori idatziz jartzeko saiakera egin dugu.

Eta zergatik orain? Ikastolen mugimenduak horretarako momentu

aproposa bizi duela uste dugulako. Izan ere, berrikuntza pedagogikoan murgilduta gauden honetan, gure eguneroko praxiaren gaineko galdera asko egiten dizkiogu geure buruari. Esaterako, zer ezaugarri nahi dugu gure ikasleek garatzea?, zer eragin izan nahi dugu gure hezkuntza-proiektuaren bitartez haien izaera eta izatean?, ikastolan zer-nolako esperientziak bizi ditzaten nahi dugu?, horretarako zer-nolako espazioak behar ditugu?, nola antolatu denbora helburu horiek lortzeko?, nolako gizartea irudikatzen dugu hamabi urte barru? Galdera hauen guztien erantzunak ez dituzu liburu honetan aurkituko, jakina; bai, ordea, erantzunak bilatzeko lagungarriak izango zaizkizun ideia eta proposamen ugari. Halaber, gai ezberdinetan sakonago murgiltzeko bibliografia zabaldu aurkituko duzu, baita, atal bakoitzaren amaieran, zeure gogoeta egiteko espazioa ere.

Orain arte esandakoari erreparatuta, dagoeneko konturatu zara, irakurle, liburu hau dokumentu irekia dela. Horrela izan behar du halabeharrez, momentuko beharrei ez ezik etorkizuneko ere erantzungo badiegu. Izan ere, errealitatea etengabe aldatzen ari da, eta hori kontuan izan behar dugu, gure bokazioa oraingo eta geroko komunitatekide guztien alde lan egitea delako, gizarte eragile

izateko borondate zehatz eta sendoa daukagulako eta Euskal Herria euskalduna nahi dugulako.

Honenbestez, liburuan zehar nabigatzera gonbidatzen zaitugu, gogoeta propioak egin eta zure komunitatearekin partekatuzera, hemen jasotako irakurketa kritikoa egitera eta zuretzako interesgarriak diren ondorioak ateratzera. Euskal Herriarentzako hezkuntza-proiektuaren erai-kuntzan urratsak egiten jarraitzeko aliatu nahi zaitugu, euskal gizarte eragile aktibo eta konprometitua izan zaitez. Ea emaitza gustuko duzun eta, batez ere, ea baliagarria gertatzen zaizun.

**Zigor Ibarzabal Bastarrika**

Ikastolen Elkarte Hezkuntza arduraduna

## 1.1.


ZER DA IKASTOLEN  
HEZKUNTZA MARKO  
OROKORRA? NORI  
ZUZENDUTA DAGO?

## 1.2.

ZER ELEMENTUK  
OSATZEN DUTE  
HEZKUNTZA MARKO  
OROKORRA?

- > Ikastola-eredua, gure eredua
- > Pertsona-eredua
- > Printzipio psikopedagogikoak
- > Hezkuntza-ildoak
- > Curriculuma: zer, zein,  
zertarako?

# 1. IKASTOLEN HEZKUNTZA MARKO OROKORRA



# 1. IKASTOLEN HEZKUNTZA MARKO OROKORRA

*Ikastolon xede nagusia ikasleei pertsona-eredu bat garatzen laguntzea da. Eredu horren zerbitzura daude hezkuntza-ildoak, oinarri psikopedagogikoak, hautu metodologikoak eta curriculuma. Hauei guztiei buruzko azalpen labur eta argiak ematen saiatuko gara.*

## 1.1.

### ZER DA IKASTOLEN HEZKUNTZA MARKO OROKORRA? NORI ZUZENDUTA DAGO?

Markoa, definizioz, zenbait gauza edo elementu inguratzeko duen egitura da. Beraz, Ikastolen Hezkuntza Markoaz ari garenean, marko honek gure hezkuntza ulertzeko eta garatzeko elementuak barnebiltzen ditu. Hurrengo orrialdeetan elementu horiek identifikatzeko eta zehazteko ahalegina aurkituko duzu, irakurle.

Ikastolon xede nagusia ikasleei pertsona-eredu bat garatzen laguntzea da. Eredu horren zerbitzura daude hezkuntza-ildoak, printzipio psikopedagogikoak, hautu metodologikoak eta curriculuma. Hauei guztiei buruzko azalpen labur eta argiak ematen saiatuko gara. Izan ere, liburu honen helburua ez da ur sakonetan murgiltzea, baizik eta zuri modu errazean azaltzea zer garen, hezkuntza nola ulertzen dugun eta nolako hezkuntza-paradigma irudikatzen dugun.

Marko Orokorra deitu diogu, ikastolok, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan sustraituta dagoen izaera kolektiboko mugimendu gisa, partekatzen dugun lurzoru komuna delako. Hain justu, Marko Orokorrari izateak izaera, identitatea eta marka ematen dizkigu.

Marko Orokorra abiapuntu edo oinarri harturik, ikastola bakoitzak hezkuntza-marko propioa errazago garatuko

duela uste dugu, lanketa honek datozen erronkei sendotasun handiagoz erantzuten lagundu baitiezaioke.

Liburu hau, Marko Orokorrari buruzko azalpen hau, nori zuzenduta dago? Zuk bezala, ikastolarekin era bateko edo besteko lotura dutenei, eta, oro har, geure planteamendua ezagutzeko interesa dutenei.

Horregatik, liburua idazterakoan, ikastoletan funtzio batean zein bestean lanean diharduzuenok izan zaituztegu gogoan. Zuen lanaren dimentsioa, zentzua, norabidea eta garrantzia ulertzeko lagungarria izatea nahi genuke. Ikastola, eredu gisa, bere bereizgarri eta helburuekin, ulertzeko lagungarria izatea nahi genuke, eta, horrekin batera, mugimendu zabal baten parte zaretela sentiarazi.

Profesionalentzako ez ezik ikastolaren aldeko hautua egin duzuen familiontzako ere idatzi dugu. Zuen hautua zentzuz eta edukiz aberasteko eta zuen seme-alaben heziketan duzuen rol partekatua eta egitekoa ulertzeko lagungarri izan dakizuen.

Eta, esan bezala, geure hezkuntza-planteamendua ezagutzeko interesa izan dezakeen oro ere kontuan izan dugu Marko Orokorrari hau idazterakoan. Uste baitugu geurea ezagutzera emateak eta besteekin partekatzeak aberastu egiten gaituela eta elkarlanerako zubiak eraikitze oinarriak finkatzen dituela.

## 1.2.

### ZER ELEMENTUK OSATZEN DUTE HEZKUNTZA MARKO OROKORRA?

Kapitulu honek liburuaren edukiei buruzko azalpen edo mapa moduko bat izan nahi luke.

Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrak zer garen, zer lortu nahi dugun eta nola lortu nahi dugun barnebiltzen ditu. Galdera hauei erantzuten saiatu gara ZER-NOR GARA?, ZER LORTU NAHI DUGU? PERTSONA-EREDUA eta NOLA LORTU NAHI DUGU? izenburua duten ataletan, hurrenez hurren. Atal horietako bakoitzean Markoarekin zerikusia duten hainbat elementu identifikatu ditugu. Ikus ditzagun banan-banan.

## IKASTOLA-EREDUA, GURE EREDUA

Zer lortu nahi dugun eta nola lortu nahi dugun jakin ahal izateko, nor garen argitzea garrantzitsua da. ZER-NOR GARA? izenburuko atalak lagunduko digu geure burua logika kolektibo, identitario eta organizatibo baten barruan kokatzen, bai ikastolako profesionalei, bai gurasoiei.

## PERTSONA-EREDUA

ZER LORTU NAHI DUGU? PERTSONA-EREDUA atalak herri zein zibilizazio gisa egun ditugun eta etorkizunean izango ditugun erronkei aurre egiteko ikastoletan garatzen lagundu nahi dugun pertsona-eredua zein den jasotzen du. Hezkuntza Markoaren erdigunean dagoen elementua da eta gainerako elementuak honen zerbitzura daude. Beharbada, pertsona-eredua kontzeptua, lehen begi-kolpean, aldapa egingo zaizu, baina lasai, aipatutako atalean eta, oro har, liburuan zehar, xehe-xehe azalduko dugu zer den.

## PRINTZIPIO PSIKOPEDAGOGIKOAK

Printzipio psikopedagogikoei NOLA LORTU NAHI DUGU? atalaren bigarren kapitulua eskaini diegu. Printzipio psikopedagogikoen inguruan literatura zientifiko zabala dago. Itsaso zabal horretan geure burua galtzeko arriskua saiheste aldera, gaia galdera bakar baten bueltan ardaztea erabaki dugu, honako hau: zein dira ikastoletako hezitzaileen jarduna orientatzen laguntzen diguten printzipio psikopedagogikoak? Galdera horretatik abiatuta, hamabost erantzun etorri zaizkigu, 15 printzipio psikopedagogiko. Eta, jakina, guztiak modu argian azaltzen saiatu gara.


## HEZKUNTZA-ILDOAK

Ikastoletan komunak izan daitezkeen hezkuntza-ildoak aurkezten ditugu NOLA LORTU NAHI DUGU? ataleko hurrengo kapituluan. Guztira, 10 hezkuntza-ildo. Uste dugu hezkuntza-ildo komun batzuk definitu nahi izateak ariketa interesgarri eta beharrezko baten aurrean jartzen gaituela, alegia, ikastolok landu beharreko hezkuntza-ildo nagusiak modu bertsuan ulertu eta irudikatzen ditugu? Galdera honek hausnartzeko eta eztabaidatzeko aukera ere ematen digu. Eta begi-bistatik galdu gabe honako kontu hau: gainerako ikastolekin partekatzen duguna zer den identifikatzea bezain garrantzitsua iruditzen zaigu ikastola bakoitzak bere-bereia zer duen identifikatzea. Liburu honetarik ariketa hori egitera ere gonbidatu nahi zaitugu.

## CURRICULUMA: ZER, ZEIN, ZERTARAKO?

Hezkuntzan, curriculuma da baliabide estrategikoenetako bat. Gauzak horrela, beraren gaineko gogoeta ere egin nahi izan dugu NOLA LORTU NAHI DUGU? ataleko azken kapituluan. Curriculuma zer den, erreferentziakotzat ditugun curriculumak zeintzuk diren eta Euskal Curriculumak, geureak, zer bide egin duen, besteak beste, argitu nahi genuke. Curriculumak jasotzen duen edota jaso beharko lukeen guztiaren gainetik, uste dugu merezi duela distantzia hartu, bere zertarakoaz hausnartu eta ikastolok berorri ikusten diogun funtzioa zein den partekatzea.

## IKASTOLEN HEZKUNTZA MARKO OROKORRAREN ATALAK




# 2. ZER-NOR GARA?

## 2.1. NONDIK GATUZ?

## 2.2. IKASTOLA-EREDUA

- > Hezkuntzan garatutako autoeraketaren praxia
- > Hezkuntza euskalduna helburu duena
- > Hezkuntza-eredu propioan oinarrituta
- > Euskal Herriko zazpi herrialdeetan





## 2. ZER-NOR GARA?

*Irakastetik pertsona osoaren garapena bideratzera pasa nahi genuen; oinarrizko konpetentziak garatuz, ikasleak ondorengo ikasketak egiteko, lan munduan aritzeko eta, oro har, bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatu nahi genituen.*


### 2.1. NONDIK GATOZ?

Liburu honetan aurkezten dugun Ikastolon Hezkuntza Marko Orokorra ez da hutsetik abiatzen, 2009an ere finkatu baikenuen marko bat.

Marko hark ikaskuntza-prozesua ulertzeko modua eraldatzea izan zuen helburu. Oinarrizko hezkuntzaren funtzioak zabaldu nahi genituen: ikas-arloen bidez, oinarrizko ezagutzak irakastetik (funtzio akademikoak) pertsona osoaren garapena bideratzera pasa nahi genuen (alde fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala eta afektiboa). Oinarrizko konpetentziak garatuz, ikasleak ondorengo ikasketak egiteko, lan munduan aritzeko eta, oro har, bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatu nahi genituen. Marko hartan, honako ardatz hauek zehaztu genituen:

- > Euskal Curriculumean oinarritutako hezkuntza-eredua garatzea. Eredu hori pertsonaren garapen osoa lortzera bideratuta egon da, norbanako gisa, gizartearen kide gisa eta naturaren kide gisa. Hori guztia, ikasleek euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarriak bereganatu dituzten bitartean.
- > Euskararen ardaztutako eleaniztasuna. Eleaniztasunaren hautua egin dugu eta honela jasotzen da gure hizkuntza-proiektuan: egungo gizarte globalizatu honetan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea, hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Hizkuntzen arteko elkarbizitza ulertzeko moduz, honela dio: helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da, batetik, euskaraz bere hezkuntza-eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezten lortzea.

- > Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-curriculumaren hautua egitea: jakitearen logikatik, erabiltzen jakitearen logikara pasatzea. Curriculumak ikaslearen irteera-profilean oinarritu da eta, horren arabera, bizitza osorako oinarrizkoak diren konpetentziak zehaztu dira.
- > Ikasleak ezagutzak eskuratzeko eta konpetentziak garatzeko Integrazioaren Pedagogia delako metodologia hautatzea. Bestela esanda, hezkuntza-testuinguruak sortu ditugu ikasleak arazoei eta egoerei irtenbideak aurkitzeko, eta horrela ikasitakoa arazo edo egoera berrietan erabiltzen trebatzeko.
- > Eta hori guztia, etapaz etapa, lotura eta koherentzia bilatzen.



2009ko Ikastolen Hezkuntza Markoaren ezaugarriak (iturria: *Ikastola aldizkaria*, 221. zbk., 2016ko abendua).

Bada garapen handia izan duen beste lan-ildo bat: digitalizazioa. Arlo horretan izan dugun egitekoa, gainera, bikoitza izan da; batetik, konpetentzia digitala garatzeko lanketa ikas-arloetan integratzea, hori izan baita egin dugun hautua, eta, bestetik, ikastoletan eraldaketa digitala aurrera eramateko planifikazioa eta aholkularitza. Bi bideak jorratzea ezinbestekoa izan da ikasleak zein irakasleak ahalduzko, eta, aldi berean, ikastolaren ekosistema mundu digitalerako prest izateko.

2009an ezarri genuen Hezkuntza Markoa zein zen kontuan izanik eta geroztik gauzatutako proiektuek ematen diguten perspektibatik ikusita, garbi dago egindako lana ez dela makala izan.



**1996an, Ikastolen Pedagogia Plan Nazionala eta Euskal Curriculumua garatzeko konpromisoa hartu zen. Euskaran ardazturiko eleaniztasunaren planteamenduari dagokionez, berriz, 2009an argitaratu zen 'Ikastolen Hizkuntz Proiektua'.**

Orain, erreparatu diezaiozun une batez 2009ko erronka haren atzean zegoen hezkuntza-ikuspegiari. Izan ere, momentu hartan hezkuntzaren egitekoa zein zen eta hura garatzeko zer estrategia pedagogiko irudikatu genuen ulertzeak lagunduko digu segurtasunez egiten Hezkuntza Marko berriarekin ematera goazen urratsa, pertsonan zentratutako irakaskuntza indartzeko urratsa, alegia.

1996an, Ikastolen III. Batzar Nazionalean, Ikastolen Pedagogia Plan Nazionala eta Euskal Curriculumua garatzeko konpromisoa hartu genuen. Konpromiso hori betetzeko, aztertu genituen curriculum ofizialak eta Ikastolen Elkarteko materialak; zedarritu genuen euskal curriculum propioa osatzeko marko teorikoa eta diseinatu genuen hura garatzeko plan estrategikoa; jaso genituen Euskal Herrian zientziaren eta kulturaren eremuko adituen ekarpenak, eta, hezkuntza-eremuko beste eragileekin batera, *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumua* eztabaidagai jarri zen eskolaz eskola.


Euskaran ardazturiko eleaniztasunaren planteamenduari dagokionez, berriz, 2009an argitaratu genuen *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Ikastolek sorreratik beretik izan duten hizkuntza-gaiekiko kezkei emandako erantzuna izan zen. Ordura arte hizkuntzen inguruan ikastoletan sortutako proiektu guztiak uztartu eta hizkuntza guztien tratamenduari koherentzia eman genion. Haren Markoa garatzeko ere hainbat eremutako adituen talde teknikoa izendatu genuen. Geroztik, ikastola bakoitza bere hizkuntz proiektua garatzen joan da.

Bien bitartean, kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren proposamenak bazebiltzan nazioartean. 1996an, Jacques Delors-ek zuzenduriko *Hezkuntza: altxor ezkutua* izenburuko txostena aurkeztu zuen UNESCOk. Izaten ikasteen oinarrituriko hezkuntza aldarrikatzen zuen bertan. Planteamendu haren arabera, bizitza osorako ikaskuntza gisa ulertu behar zen hezkuntza, eta pertsonak, izaten ikasteko, edukiak ikastetik harago, oinarritzko

beste ikaskuntza batzuk egin behar dituela defendatu zuen. Txosten hark zioenez, pertsonak ikasten ikasi, egiten ikasi eta elkarrekin bizitzen ikasi behar dute.

Xabier Garagorriren gidaritza pedagogikopean, Delors-en txostenaren eta Euskal Curriculumerako adituek egindako ekarpenen sintesi propioa egin zuen Ikastolen Elkartek, eta pertsonaren garapen integralari begirako hezkuntza-eredua irudikatzen hasi zen. Bide horretan, Ikastolen Elkartek Xavier Roegiers eta haren Integrazioaren Pedagogiarekin egin zuen topo, eta hura oso lagungarria izan zen Delors-en planteamendua proposamen metodologiko zehatz batera ekartzeko. Hauxe zen ideia: hezkuntzaren egitekoa bizitza osorako oinarritzkoak diren kompetentziak garatzea bada, trebatu ditzaun ikasleak bizitzako eremu pertsonaleko, sozialeko, akademikoko edo lan-munduko egoerei aurre egiteko gai izan daitezten. Egoera horiei aurre egiteko, askotariko ezagutzak eskuratu beharko dituzte eta modu integratuan erabiltzen ikasi.

Proposamen metodologiko zehatz hura EKI ikasmaterialetan gauzatu zen. Hona hemen EKI akronimoaren jatorria:



Curriculum-diseinuaren garapena Xabier Garagorri eta Mikele Aldasororen gidaritzapean egin genuen. Langintza hartan Ikastolen Elkarteko talde zabal baten partaidetza ezinbestekoa izan zen, baita kanpoko hainbat aditurena ere. Denon artean ikasleen irteera-profil orokorrenetik hasi eta ikasmaita bakoitzerako unitate didaktikoak sortzen bukatu genuen. Betiere euskaldun kritikoak, parte-hartzaileak, konprometituak... garatzen laguntzeko helburuarekin, eta begi-bistatik galdu gabe ikaslea bera dela hezkuntzaren ardatza eta ikasketa-prozesuaren protagonista.

Horrela sortu genituen Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailetarako EKI ikasmaitalak, elkarren arteko koherentzia mantenduz eta ikasleen etapaz etapako ezaugarri eta beharrei egokituz. Hau da, etapaz etapa, lotura eta koherentzia bilatzen, arestian aipatu dugun 2009ko Markoaren azken ardatzean adierazi bezala. Proposamen metodologikoa biribildu nahiak ebaluazioaren inguruko hausnarketak ere ekarri zuen.

2013an, *Handitzen, handitzen, hasi naiz handitzen* izenburupean, XX. Jardunaldi Pedagogikoak egin genituen. Haur Hezkuntza, 0-6 etapa, izan zen langaia. Ondoren, eta Haur Hezkuntzaren izaera eta ezaugarri bereziak kontuan izanik, *Haur Hezkuntzarako Proiektua konpetentzien araberrako ikuspegitik* dokumentua idatzi zen. Haren lanketa egiteko hIZAN mintegia martxan izan da, hausnarketa ikastoletan bideratzeko, hausnarketa hori praktiken bidez hobetzeko eta ikastola bakoitzean erabakiak hartzen laguntzeko. Helburua izan da denok haurra modu berean ulertzea eta, horrekin batera, helduaren/irakaslearen rolaz eta esku-hartzeaz gogoeta egitea. LHko lehen zikloan xede berarekin hEGIN mintegiak izan dira martxan.

Mintegietako lanketaren ondotik, Haur Hezkuntzarako Kuku emozio-programa eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetarako Kimu proiektua abiatzea etorri zen, haiei lotutako prestakuntzarekin eta askotariko materialekin.

Beste etapekin koherentzian, batxilergoan marko teoriko berria abiarazi eta gelara eramateko proposamenak egin genituen. Bi norantza-koa izan zen lana: batetik, curriculum-garapena fokuan zuen marko teorikoa eta, bestetik, irakasleen esku-hartzean sakontzeko BatxiLAB mintegiak.

Lasai, profesional guztiek eta, batez ere, gurasoek ez duzue zertan bide horren berri zehatza izan. Baina, ikusten duzunez, bide bat egin egin dugu, eta ez nolana hikoia, ikasleen irteera-profilean eta oinarritzko konpetentzietan oinarritutako curriculum antolatzeke, testuinguruak eta irakaskuntza-prozesuak irudikatzeke, materialak sortzeke, ikasleak eginez izateke, ikasteko, askotariko ikaskuntzak modu integratuan erabiltzeke, egoera batean ikasitakoak antzerako beste egoera batean erabiltzen ikasteko eta abarrerako.

Ondo. Baina ezin gara bertan goxo geratu. Izan ere, 2009az geroztik egindako bideak erakutsi digu pertsonan zentratuko irakaskuntzan sakontzen joateko erronka dugula. Eta erronka hori orain arteko 'eginez ikasi' eta ikasitakoaren erabiltzearen logikatik harago doala.

Konturatu baikara, batetik, bizitza errealeko egoerei aurre egiteko, pentsatzen eta ikasten jakitea eta egiten eta ekiten jakitea garrantzitsuak direla, noski, baina norbera izaten jakitea eta elkarrekin bizitzen eta ikasten jakitea ere oso garrantzitsuak direla. Beraz, jakite horien garapenean ere sakondu beharra dugu. Bestetik, ebaluazioaren inguruko hausnarketak eraman gaitu ikasleari eta haren rolari erreparatzera eta irakaslearen begiradari eta esku-hartzeari eta hautu metodologikoei erreparatzera. Edo alderantziz.

Halaber, ikusi dugu ikas-arloen bidez oinarritzko ezagutzak irakastetik pertsona osoaren garapena bideratzera pasatzeko, eskola-komunitate osoaren inplikazioa artikulatu egin behar dela. Sakondu egin behar dela pertsona zein bere ikasteko modua ulertzen, baita hezteko eta irakasteko moduaren inguruan hausnartzen ere.


Beraz, Ikastolen Marko Orokor berriaren bidez, pertsonan zentratutako irakaskuntza eskaintzeko erronkari aurre egin nahi diogu. Pauso berri bat da ikastolek orain arte ibilitako bidean, egungo errealitateari erantzuten dion pauso berri bat.

---

*2009az geroztik egindako bideak erakutsi digu pertsonan zentratuko irakaskuntzan sakontzen joateko erronka dugula. Eta erronka hori orain arteko 'eginez ikasi' eta ikasitakoaren erabiltzearen logikatik harago doala.*

---

Ikastolen mugimenduaren historia luzea bezain aberatsa da, eta ondo islatuta dago *Ikastola mugimendua dabilen herria* izeneko liburuan. Gauzak horrela, dokumentu honetan ibilbide luze eta aberats horren inguruko hausnarketa egungo testuingurura mugatu nahi izan dugu, Marko Orokor berrian zentratu nahi baitugu.



# GOGOETAN LAGUNTZEKO GALDERAK



[A]

Ikastolon 2009.  
eta 2022. urte  
bitarteko ibilbideari  
zer izenburu jarriko  
zenioké?

[B]

Ibilbide honetan  
non egin dituzu  
zuk urratsak? Zer  
urratsen partaide  
izan zara?

[D]

Konpetentzietan  
oinarritutako hezkuntzatik  
pertsonean zentratutako  
hezkuntzarako urratsa  
egitearekin bat al zatoz?  
Zergatik?

[C]

Ikastolok sorreratik  
bertatik geure Hezkuntza  
Markoa eraikitzen eta  
garatzen joan gara. Zure  
ustez, zer alde dago  
aurreko markotik marko  
berrira?

[E]

Ikastolok behar  
dugu Hezkuntza  
Marko Orokor  
bat une honetan?  
Zertarako?

[F]

Zein izan  
daiteke zure  
ekarpena?

A large white rounded rectangular area with horizontal lines for writing, resembling a notepad or a space for answers.

## 2.2.

## IKASTOLA-EREDUA

Hezkuntza Markoaz ari garelarik, garrantzitsua iruditzen zaigu hezkuntza ulertzeko eta garatzeko dugun ikuspegiaz ez ezik ikuspegi horren atzean dagoen eskola-ereduaz ere aritzea; ikastola-ereduaz aritzea, alegia. Zeren eta ikastolak eredu berezia baikara. Ikastola guztietan baditugu hainbat ezaugarri komun, eta, hain justu, ezaugarri horiek egiten gaituzte berezi. Bereztasun hori, halaber, ez da kasualitatea, proiektu komun baten parte izatearen ondorio baizik. Puntu honetara iritsita, nabarmendu nahi dugu, gure ustez, 1960ko hamarkadan gure aurrekoak ikastolak sortzera eraman zituzten sakoneko arrazoiek eta xedeek gaur egun zentzu osoa izaten jarraitzen dutela. Eta hori nabarmendu nahi dugu, iruditzen baitzaigu hezkuntza ulertzeko eta garatzeko ikuspegia argi izatea bezain garrantzitsua dela nondik gatozen eta zer garen argi izatea.

Baina zein da ikastolen bereztasuna?, zer dago ikastola-ereduaren oinarrian? Galdera hauei erantzuteko, ikastolez ezertxo ere ez dakien pertsona bati gure eredu nola azalduko geniokeen irudikatzen saiatu gara. Lagundu ariketa honetan, irakurle, ea zu ere bat zatozen geure azalpenekin.

Ikastola hezkuntza arloan garatutako autoeraketa komunitarioaren eta interkooperazioaren praxia da, hezkuntza euskalduna sortu eta garatzea helburu duena, eta ikastolen arteko elkarlanetik hezkuntza-eredu propioa eraiki duena, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan.

Ados, irakurle, definizioa ahal den osatuena egin nahi izatearen ondorioz, azalpena beharbada ilun samarra irudituko zaio ikastolez ezertxo ere ez dakien balizko pertsona horri. Baina zaude pixka batean. Definizioaren ideia nagusiak bereizi eta banan-banan azalduko ditugu. Honako hauek dira:



ikastolenelkartea

---

***Ikastola autoeraketaren praxia da, hezkuntza euskalduna garatzea helburu duena, eta elkarlanetik eredu propioa eraiki duena, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan.***

---

## HEZKUNTZAN GARATUTAKO AUTOERAKETAREN PRAXIA

## HEZKUNTZA EUSKALDUNA HELBURU DUENA

## HEZKUNTZA-EREDU PROPIOAN OINARRITUTA

## EUSKAL HERRIKO ZAZPI HERRIALDEETAN

**HEZKUNTZAN GARATUTAKO  
AUTOERAKETAREN PRAXIA**

Hitz potoloak hitz xeheetara pasatzen saia gaitezen...

Ikastolak gizarte zibilak leku eta garai jakin batean egoera jakin bati emandako erantzuna dira eta eremu kooperatibo herritarrean kokatzen direla esan dezakegu. Gauzak horrela, ikastolentzat, herrigintzatik sortutako beste hainbat erakunderentzat bezala, publiko vs. pribatu dikotomia klasikoa ez da baliagarria.

Euskal Herrian bereziki indartsua izan da herri-ekimen honen garapena. Eta Europan zein mundu zabalean indarra hartzen ari den ekonomia sozialaren baitan ere uler dezakegu hau. Izan ere, ekonomia soziala gizarte zibilak, herritarrek berek, leku eta garai jakin batean egoera jakin bati emandako erantzuna izatetik harago, gizartea bera ulertzeko eta antolatzeke era ere bada. Era hori herritarren ahalduntzean eta protagonismoan oinarritzen da, herritarrak eurak protagonista bihurtzen baitira, hainbat arlotan, behintzat, behetik gorako erakundetze-logikari jarraituz. Beraz, mota honetako herri-ekimenaren bidez bi emaitza interesgarri lortzen dira, batetik, herritarrok geure beharrei modu justuan erantzutea eta, bestetik, herritarrok geure beharrei erantzuteko ahalduntzea.

Administrazio publikoak eta merkatuak ez dituzte beti asetzen gizartearen beharrak alor guztietan. Ekonomia sozialak, berriz, ase gabeko beharrei erantzun diezaike, justizia-logika bati jarraituz. Horrek ahalbidetzen du Estatuaren, merkatuaren eta gizarte zibilaren arteko oreka berreskuratzea.

*Ikastolas as a Social Innovation Phenomenon: A Case Study* izenburupean 2010ean argitaratutako lanean, Marce Masa soziologoak dio ikastolen fenomenoak, gainera, gizarte-berrikuntzaren adibide paradigmatikoa dela, eta bost arrazoi ematen ditu:

> Ikastolak herritarren ekimenez sortu dira.

> Gizartean dagoen eskaera bati erantzun herritarra dira.

> Ikastolek hezkuntzan euskararako sortu gabe zegoen espazio berria sortzen asmatu dute.

> Izaera soziala duten motibazioak, xedeak eta baloreak dituzte ikastolek beren baitan.

> Publiko-pribatu dikotomiaren aurrean hirugarren formula proposatzen dute eredu sozial eta herritarraren bitartez.

Ildo beretik, “El movimiento cooperativo de las ikastolas” izeneko artikuluan (2013), Unai del Burgok dio ikastolak hezkuntza-eremuari aplikatutako berrikuntza sozialaren paradigma direla.

Eskola-eredu herritar honek hainbat azpiezugarri ditu bere baitan:

> **Titulartasun propioa du.**

> **Zerbitzu publikorako bokazioa du.**

> **Kooperatiboa eta solidarioa da.**

Ikus ditzagun...

**Titulartasun propioa du**

Eskola herritar honek, ikastolak, titulartasun propioa du. Honek esan nahi du ikastola bakoitzak bere nortasun instituzional eta juridikoa duela eta horrek ikastolaren beraren autonomia eta garapena ahalbidetzen dituela.

Ikastoletan, eskola-komunitatea, bereziki gurasoak, ikastola-proiektuaren jabeak dira eta ikastolako erabakietan parte hartzen dute, horretarako espresuki sortutako egituren bitartez. Jabetzak autonomia ez ezik erantzukizuna ere badakar. Horrek esan nahi du ikastola



***Ikastolek hirugarren bide bat eskaintzen dute hezkuntzan, publikoa eta pribatuaren logikatik at. Hirugarren bide hori titulartasun sozialarena da eta gizarte zibilaren parte hartzean oinarritzen da.***

bakoitzean eskola-komunitateko kideen inplikazioa zuzena dela, eta erabakiak hartzeko behar bezalako organo, egitura eta prozedurak badaudela.

Del Burgok dio, arestian aipatutako lanean, ikastolek hirugarren bide bat eskaintzen dutela hezkuntzan, publikoa eta pribatuaren logikatik at. Hirugarren bide hori titulartasun sozialarena da eta gizarte zibilaren parte hartzean oinarritzen da.

Nolanahi ere, esan beharra dago gobernantza-organo hauetatik kanpo dauden gurasoen parte hartzea ez dela, gaur-gaurkoz, nahiko genukeen bezain handia. Horregatik uste dugu ikastola-ereduak eskaintzen digun indargune hau, herritarrek ahalduntzeko eta euren seme-alaben hezkuntza-proiektuan benetan nor izateko aukera ematen duena, baliatu egin behar dugula, egungo beharretara eta moldeetara egokituz.



Aurrera egin baino lehen, ohartxo bat, irakurle. Atal honetan ikusi duzunez, tarteka, parentesi artean urte jakin baten erreferentzia agertuko da. Batzuetan, urtea ez ezik abizen bat ere bai. Seguruena badakizu edo igarri duzu zer esan nahi duten, baina, horrela ez bada, jakin ezazu urteak adierazten duela paragrafoan aipatzen den egileak noiz idatzi zuen gaiaren inguruan; abizenak, berriz, zein egilek landu zuen paragrafoan aipatzen den gaia. Datu horiek ezagututa, informazio gehiago nahi duenak erraz asko aurkituko ditu erreferentziak bibliografian. Izan ere, irakurketa errazte aldera, nahiago izan dugu testua oin-oharrekin edo antzekoekin ez kargatu.

## Zerbitzu publikorako bokazioa du

Ikastolak euskal komunitatearen oinarritzko behar bati erantzuteko asmatu dira. Herritarrei zerbitzua ematea da ikastolon bokazioa. Zerbitzu publikoa ematea, beraz. Gaur egun *zerbitzu publiko* terminoa administrazio publikora mugatzeko joera dago. Guk, aldiz, uste dugu herri-ekimen honek, ikastolak zuzenean administrazioaren menpe ez badaude ere, zerbitzu publikoa eskaintzen duela, guztiontzat zabalik dagoelako, herritarrek gobernatzen dutelako, irabazi asmorik ez duelako eta hainbat herri-erakunderekin elkarlanean diharduelako.

Sarritan eztabaida sortzen da herritarren beharrei nork erantzun behar dien galdetzen denean, administrazioak, guztiok ordaindutako zergekin, edo herritarrok, autoantolatuta.

Gurean, gehienok argi dugu ezin diogula utzi merkatuari gure bizitzako arlo garrantzitsuetan agintzen, eta administrazio publiko on bat behar dugula, behar besteko baliabidez hornituta, bizitzan oinarritzekoak diren arloetan inor gera ez dadin kalitatezko erantzunik gabe. Aldi berean, zinez uste dugu komunitate eta herritar engaiatuak eta antolatuak behar ditugula, zergak ordaintzeaz gain, euren ametsi eta arazoei erantzun bateratuak emateko gaitasuna eta ekimena izango dutenak. Gure ustez, bata eta bestea ez dira bi eredu kontrajarriak, osagarriak baizik. Pertsona eta komunitateen beharrei erantzuteko, herrigintza instituzionalak eta herrigintza zibilak elkarlanean jardutea ezinbestekoa da.

## Kooperatiboa eta solidarioa da

Hegoaldeko ikastolak, salbuespenak salbuespen, kooperatibak dira.

Iparraldean, berriz, Euskararen Erakunde Publikoak eta Frantziako Hezkuntza Ministerioak hitzarmena sinatu zuten 2009ko ekainean Seaskarekin. Geroztik, Seaskako ikastolak irabazi asmorik gabeko elkarteak dira. Ikastola bezainbeste elkarte daude, 38, orotara. Gurasoak elkarte

***Ikastolak euskal komunitatearen oinarritzko behar bati erantzuteko asmatu dira. Herritarrei zerbitzua ematea da ikastolon bokazioa.***



horietako kideak dira eta urteko kuota bat ordaintzen dute haurrak ikastolan dauden bitartean. Elkarte bakoitzaren biltzar nagusietako batean ikastolaren 'Bulegoa' aukeratzen da, hegoaldean Artezkaritza Kontseilua (edo Kontseilu Errektore) gisa ezagutzen dena.

Nafarroan, gaur egun, hamabost ikastoletatik hamahiru kooperatibak dira, bat fundazioa eta beste bat udal ikastola.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Ikastolen Elkartearen barruan 60 ikastola daude. Horietatik 40 dira gurasoen kooperatibak; 16 kooperatiba integralak (bazkide onuradunak, bazkide kolaboratzaileak eta bazkide profesionalak dira jabetza dutenak); 1 langileek osatutako kooperatiba; 1 fundazioa, eta 2 bigarren mailako kooperatibak (beste ikastola batzuk dira bazkideak).

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK		
	IZAERA JURIDIKOA	IKASTOLA KOPURUA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	KOOPERATIBA	59
	FUNDAZIOA	1
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	KOOPERATIBA	13
	FUNDAZIOA	1
	UDAL IKASTOLAK	1
IPAR EUSKAL HERRIA	ELKARTEAK	38

Ikastola bakoitza herri bati, komunitate jakin bati atxikita jaio da. Tokian tokiko eragileek sortu dute, bertan eragiteko asmoz. Beste hainbat eta hainbat kooperatibaren gisa, alegia (Irasuegi, 2019).

International Cooperative Allianceren arabera, autoeraketa, demokrazia, lankidetzeta eta elkartasuna dira, oro har, munduko kooperatiben ardatz nagusiak, baita hezkuntza-kooperatibenak ere. Ideia hori gurera ekarrita, autoeratzen den ikastola batean bazkideak dira ikastolaren jabeak eta erantzuleak, eurena dira erabaki-ahalmen eta ardura osoa. Demokrazia-ariketa egiten da ikastolarentzat

garrantzitsua den gai baten inguruan bazkide bakoitzari bere bozka ematea eskatzen zaionean, edota ikastolako arduraren baterako hautagai izateko zein hautatzeko eskubidea aitortzen zaionean. Horren guztiaren zerbitzura daude ikastola bakoitzaren Batzar Orokorra eta Artezkaritza Kontseilua (edo Kontseilu Errektorea), kooperatibako bazkideen ordezkari-organoko nagusiak.

Azkenik, kooperatibetan badago oinarriko printzipio bat, alegia, bazkideen arteko lankidetzeta eta elkartasuna zein kooperatiben arteko edota eragile sozialekiko elkartasuna. Ikastolon kasuan, lankidetzeta- eta elkartasun-printzipio hori ikastola bakoitzaren baitan eta Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen bidez gauzatzen da.

Horrela sortu zen ikastolen arteko Elkartasun Ikastolak europar Kooperatiba Elkarte (Elkartasun Kutxa). Ikastola bakoitzak bere ekarpena egiten du urtero, Euskal Herrian barreiatuta dauden ikastolen artean premia handia dutenei laguntzeko.



Halaber, lankidetzan jarduten dugu material pedagogikoa sortzeko zein euskararen eta euskal kulturaren garabidean geure ekarpena egiteko, eta ez soilik geure ikastoletan erabiltzeko, herritar guztien onurarako baizik.

Autoeraketa, demokrazia, lankidetzeta, elkartasuna... kooperatiben oinarria dira, eta berauek eguneroko praktika errealera ekartzeko ezinbestekoa da beste hainbat balio lantzea: erantzukizuna, lana, errespetua, konpromisoa, ekintzailetasuna, irekitasuna... Izaera juridikoak eta antolaketa organikoak ez baitituzte berez praktika kooperatibo sano eta aberatsak bermatzen.

*Gure aurrekoek ikastolak sortzera eramán zituzten zio eta motibazio haiek indarrean jarraitzen dutela uste dugu. Gaur egun hiru erronka handi ditugu: euskal kultura fresko eta poliedrikoa sustatzea; euskara berreskuratzea eta transmititzea, eta euskararen ardazturiko eleaniztasunaren hezkuntza euskalduna eskaintzea.*

Aipatutako balio kooperatibo horiek gure ikasleekin lantzen saiatzen gara, gainera. Garena eta egiten duguna bat etortzeak Ikastola-eredua bere osotasunean esperientzia hezitzaile bihurtzen duela sinetsita.

## HEZKUNTZA EUSKALDUNA HELBURU DUENA

Euskal Herrian euskara eta euskal kultura berreskuratzeke eta sozializatzeko borrokaren erdian egon da ikastolen mugimendua. Izan ere, beste hainbat ekimenekin batera, euskarak bizi zuen jazarpenari eta galbideari erantzuteko sortu ziren ikastolak. Historia ezagutzen duzu, baina memoria freskatuko dugu pixka batean...

1960ko hamarkadan, frankismoa oraindik bere gordinean zegoenean, hainbat intelektual eta eragilek ohartarazi zuten euskarak egoera hartan (ofizialtasunik gabe, debekatuta, etengabe jazarrita, egoeraren kontzientzia sozial urriarekin...) ez zuela berrogei urte baino gehiago iraungo neurririk hartu ezenean. Zehatz-mehatz, beharrezkoak ikusten zituzten hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa bermatzeko neurriak eta hizkuntzaren zein kulturaren inguruko ezagutza areagotzeko neurriak. Bi norabideetan ekiteko espazio aproposena hezkuntza zen. Neurriak hartzeko beharrari emandako erantzuna dira ikastolak (Garabide, 2015).

Hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa bermatzetik eta ezagutza areagotzetik harago, 1960ko hamarkada hartan hezkuntza-sisteman zegoen hutsunea betetzeko helburua ere bazuen ikastolen mugimenduak. Garai hartan hezkuntza-sistema bi azpisistemek edo bi ereduk osatzen zuten, Eskola Nazionala deritzonak eta ordena erlijiosoek sustatutako ikastetxeenak. Biak ala biak Estatuak zorrotz kontrolatzen zituen. Kontrol haren bete-behar eta baldintzen kontra eraiki zuten ikastola-eredua mugimenduaren sortzaileek, nagusiki gurasoek.

Franco hil eta 1980tik aurrera herri-erakundeek, bai Eusko Jaurlaritzak eta bai Nafarroako Gobernuak, hezkuntza-sistema berri bat martxan ipini zutenean, oso

kontuan izan zuten ikastolen ibilbidea. Horren ondorioz, ikastolen murgiltze-eredua (euskaraz heztea, ikasleen lehen hizkuntza beti hori ez bada ere) garatzen joan da beste sareetan ere, alegia, eskola publikoan zein ordena erlijiosoek sustatutako ikastetxeetan. Horrela, euskararen transmisioa etxean bermatu ezin den kasuetan, funtzio garrantzitsua bete du eta betetzen du eskolak. Halaber, etxeko transmisioan ere oso lagungarria izan da murgiltze-eredua.

Gure aurrekoak ikastolak sortzera eramán zituzten zio eta motibazio haiek indarrean jarraitzen dutela uste dugu. Gaur egun hiru erronka handi ditugu: euskal kultura fresko eta poliedrikoa sustatzea; euskara berreskuratzea eta transmititzea, eta euskararen ardazturiko hezkuntza-eredu eleanitza eskaintzea.

Arestian esan bezala, ikastolon hasierako helburu nagusia euskararen inguruan ardaztutako hezkuntza eskaintzea izan zen. Alde horretatik, euskararen ezagutza asko zabaldu da. Alabaina, euskararen egungo egoera nahiko konplexua da. Izan ere, belaunaldi berrien euskalduntasunarekiko motibazioak garai batean ez bezalako oinarriak ditu. Euskararekiko atxikimendua ez da hain sendoa, zentzu askotan.

Hezkuntza-eragileok euskal gizartea euskalduntzeko ekarpen handia egin dugu eta horren lekuko garbia da euskararen ezagutzaren zabalkundea. Hala ere, egungo egoera kezkatzekoa da. Likidoa galtzen ari den tanga edo depositua da gurea. Beraz, hainbat estrategia birpentsatu beharra daukagu berandu baino lehen: hedabideetan, lan-munduan, kulturgintzan... baita hezkuntzan ere.

Orain dela 60 urte, ikastolak ugaltzen hasi zirenean, hezkuntzan jarrita zeuden itxaropenak ez dira bete. Euskara hezkuntzaren bidez modu masiboan zabaltzearekin batera euskal gizartea euskalduntzea lor zitekeela uste genuen, baina ez da hori gertatu. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da gizarte-eragile guztien arteko lankidetzatza, hori gabe ez baitugu arrakasta lortuko.



*Likidoa galtzen ari den tanga edo depositua da gurea. Beraz, hainbat estrategia birpentsatu beharra daukagu berandu baino lehen: hedabideetan, lan-munduan, kulturgintzan... baita hezkuntzan ere.*

Zenbait herritan ikastola da euskararen eta euskal kulturaren inguruan herri-eragile nagusietakoa. Beste batzuetan, aldiz, eragile bat gehiago da beste askoren artean. Azken hauen kasuan, euskararen mahaiak eta antzeko foroak osatzeak lagundu egiten du eragile guztien artean helburuak bateratzen eta pausoak adosten, eragile bakoitzaren funtzioak eta bitartekoak zeintzuk diren argi izaten, eta, batez ere, indarrak metatzen. Alde horretatik, azpimarratu nahi dugu euskalgintzan lanean dihardugunon arteko estrategia partekatu baten beharra.

XXI. mendean, euskarak behar du, agian inoiz baino gehiago, kontzientea den euskal hiztuna (euskararekiko motibazioa duena, euskararekiko atxikimendua duena eta euskararen aldeko hautua egiten duena), konpetentea (euskararen ezagutza-maila esanguratsua duena) eta koherentea (euskara erabiltzen duena). Ikastolok, testuinguru soziolinguistikoko desberdinak kontuan izanda, hiztun mota hau lortzeko lanean jarraitu behar dugu, estrategia berriak baliatuz.

Jon Sarasuaren esanak (2013) geure eginez, uste dugu ez garela behar beste baliabide erabiltzen ari euskal hiztun osoak (kontzienteak, konpetenteak eta koherenteak) sortzeko. Izan ere, XXI. mendean euskal hiztun osoa izatea hautu kontzientea da, eta ez gara geure ikasleak beharko genukeen moduan prestatzen ari.

Baliabideez ari garenean, geure ikasleek (eta profesionalek zein gurasoek) euskaraz bizitzeko hautua egin dezaten eskaini beharreko baliabideez ari gara. Alde horretatik, euskal hiztun osoak lortzeko, esango genuke ikastolon egungo jardun pedagogikoan hiru baliabide-arlo hauek ere egon beharko lirartekeela:

- > Curriculum soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa.
- > Mintzoaren adierazkortasuna edo ahalmen espresiboa.
- > Euskal kulturgintza modu sortzailean bizitzeko baliabideak.

Beste ataletan bezala, oraingoan ere arlo hauek banaka aztertuko ditugu, irakurle.

## Curriculum soziolinguistikoa eta ekolinguistikoa

Bai, curriculum soziolinguistikoa, hizkuntza eta gizar-tearen arteko harremanean gertatzen diren fenomenoak ulertzeko, eta ekolinguistikoa, hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatu baterako baldintzak planteatzeko. Bestela esanda, XXI. mendean euskaldun izateko arrazoiak ulertu egin behar ditugu lehenik, eta ondoren, hautua egin. Bordelen edo Burgosen horrek izango lukeen zentzua eta gurean duena ez dira berdinak, noski. Horren inguruko lanketa ezinbestekoa da gure errealitatean. Hizkuntza gutxiagotu bateko hiztunok alor hori minimoki landu behar dugu hautua egin ahal izateko: zer gertatzen ari den munduan hizkuntzekin, zenbat hizkuntza galtzen ari diren, zergatik, zeintzuk diren berreskuratze-bidean daudenak, zergatik berreskuratu diren, zeintzuk diren galdu direnak...

Laburbilduz: gure ikasleek hizkuntzen galera eta berreskurapenari buruzko gutxieneko ezagutza eta kulturen arteko elkarbizitarako prestakuntza behar dituzte.

## Mintzoaren adierazkortasuna edo ahalmen espresiboa

Geure tanga edo deposituak galtzen duen likidoaren zati batean euskarak duen potentzia espresiboa joaten ari zaigu. Askoz ere potentzia komunikatibo handiagoa eskaintzen diete gazteei gaztelaniak eta frantsesak. Euskarak badu horretarako gaitasuna, baina gazteek desberdin hautematen dute, besteak beste, helduengan ere ez dagoelako errotuta. Ahalmen espresiboa indartzeko, ahozkoan, euskalkiak erabili behar dira, bizirik dauden eremuetan. Gainerako eremuetan, berriz, nork bere hizkera erabili behar du, konplexurik gabe erabili ere, Kike Amonarrizek dioen moduan. Izan ere, eremu horietan zenbat eta gehiago egin, orduan eta hizkera berri gehiago sortuko dira, betiere

---

*Gure ikasleek hizkuntzen galera eta berreskurapenari buruzko gutxieneko ezagutza eta kulturen arteko elkarbizitarako prestakuntza behar dituzte.*

---



---

*Geure tanga edo deposituak galtzen duen likidoaren zati batean euskarak duen potentzia espresiboa joaten ari zaigu.*

---

batutik gertu. Hizkera hauek erdaren eragin handia izango dute kasu batzuetan; txikiagoa, besteetan. Edonola ere, erabiltzearen poderioz sortutako hizkerak izango dira. Guk ere uste dugu eremu erdaldunetako euskal hizkerak prestigiatzea eta hiztun horien autoestimua linguistikoa indartzea bidezkoa ez ezik beharrezkoa ere badela, lehenengo eta bigarren mailako euskal hiztunen banaketa kaltegarria gainditzeko (Amonarriz, 2019).

Gaiaren garrantziari erreparatuta eta honen inguruan hizkuntza minorizatu bati buruzko ikerketarik ez dagoela kontuan izanik, Euskaltzaindiarekin eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZIREkin elkarlanean, ARIKALA ikerketa-lerroa abian jarri dugu. Honen bitartez, gazteen lagunartean eta oro har egunerokoan hizkuntza erabiltzeko estrategiak garatu eta horien gaineko ikerketa aplikatua egin nahi dugu.

### Euskal kulturgintza modu sortzailean bizitzeko baliabideak

*Haur eta gazteak herrietan sortzen den euskal kulturgintzan parte hartzen jarri behar ditugu. Izan ere, gure kulturaren etorkizuna ez dago soilik esparru profesionalean. Esparru komunitarioak ere sortu edo indartu behar ditugu herria dantzan, kantuan edo antzerkian jarritz.*

Haur eta gazteei kulturgintzan modu sortzailean eta parte-hartzailean aritzeko baliabideak eskaintzea garrantzitsua da. Bertsogintzara eta literaturara bideratzeko testuinguruak sortu ditugula esango genuke, baina urrats bat gehiago eman beharrean gaude, eta hainbat norabidetan, gainera. Batetik, ikus-entzunezko edukiak euskara freskoan sortzen asmatu behar dugu. Youtuberrak, meameak, bideoak... euskara bizi eta erakargarrian behar ditugu. Bestetik, tradizioa eguneratu eta berrasmatu behar dugu; kantagintzaren eta dantzaren transmisioari eta sorkuntza berriei bide ematea erronka garrantzitsua da. Haur eta gazteak egun herrietan sortzen den euskal kulturgintzan modu aktiboan parte hartzen jarri behar ditugu, herri-kulturaren hainbat adierazpideri so. Izan ere, gure kulturaren etorkizuna ez dago soilik esparru profesionalean. Esparru komunitarioak ere sortu edo indartu behar ditugu herria dantzan, kantuan edo antzerkian jarritz. Euskal kulturgintzaren kontzeptua eguneratu eta esparru berrietara zabaldu behar dugula ere ikusten

dugu, tradizioz geurea den esentzia galdu gabe. Egungo haur, gazte zein nerabeak kultur adierazpen ezberdinak sortzera eta gozatzera bultzatu nahi baditugu, ezinbestekoa da beraiek duten interes eta motibazioetara hurbiltzea, egungo gizarte ereduak behar dituen molde eta ezaugarrietara egokitzea, alegia. Eta uste dugu langintza horretan ikastolok ekarpen handia egin dezakegula.

Era berean, ikastolok erakutsi dugu euskalduna izateko ez diegula uko egin behar beste hizkuntzei, eta euskaldunak eta eleaniztunak izan gaitezkeela. 1990eko hamarkadan hasi ginen ikastoletan ikusten gure etorkizuna, euskaldunon etorkizuna, eleaniztuna izango zela. Ikastolak izan ginen elebitasunetik eleaniztasunerako bidea egiten hasi ginen lehenak, betiere, noski, euskaren inguruan ardatz-tutako eleaniztasuna.

Eta erakutsi ez ezik ikasi ere egin dugu eleaniztasunaren alorrean. Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesari loturiko eleaniztasunetik gure hiri eta herrietara etorri direnek aberastutako errealitate eleaniztunari aurrez aurre begiratu diogu gure geletan, eta ikusi dugu kohesio soziala ezinbestekoa dela. Izan ere, gure artera etorri den ikasleari egiten diogun harreraren arabera, ikasle horren kultura eta hizkuntzari erakusten diegun errespetuaren arabera, sentituko du ikasleak euskararekiko eta euskal kulturarekiko interesa edo hurbiltasuna.

### HEZKUNTZA-EREDU PROPIOAN OINARRITUTA

Luzetxo joan da aurreko atala eta despistatzeko arriskua saihesteko, gogoratzen dizugu, irakurle, ikastola-ereduaren definizioaren osagaiak banan-banan azaltzen ari garela. Dagoeneko bi ikusi ditugu: "Hezkuntzan garatutako autoeraketaren praxia" eta "Hezkuntza euskalduna helburu duena". Goazen, bada, hirugarrenarekin.

Ikastolok hezkuntza-eredu propioa dugula diogunean, lau ideia nagusi ditugu erreferentziatzat:

- > **Pedagogia-berrikuntzarako grina, hezkuntza ulertzeko modu berria.**
- > **Curriculum propioa.**
- > **Ikasmaterialgintza, prestakuntza eta aholkularitza propioak.**
- > **Digitalizazio-marko propioa eta horren garabidea.**



Bestela esanda, sorreratik bertatik, Europako pedagogia berritzaileak inspirazio-iturri izanik, ikastolok pedagogia-berrikuntzarako grina izan dugu. Halaber, sorreratik bertatik, euskaldunok euskaldunontzako curriculumeraikitzeke apustua egin dugu. Horri erantzuteko, ikas-material propioa sortu dugu eta sortzen jarraitzen dugu, eta berorren erabilpen egokirako prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen ditugu. Hori guztia islatzen da azken urteotan hainbesteko garrantzia hartu duen marko digitalean ere. Baina azter dezagun banan-banan ideia nagusi hauetako bakoitza.

### Pedagogia-berrikuntzarako grina, hezkuntza ulertzeko modu berria

1960tik 2010era bitartean ikastola-eredua aztertu du Iban Izak (2010). Ondorioetako bat da ikastolok eskolaren kontzepzioan ez ezik pedagogian ere berrikuntza ekarri genuela, nagusiki Eskola Berria izeneko mugimendu pedagogiko modernoa erreferentzia hartuta. Eta esanenezake berrikuntza pedagogiko haren grinak berak mugitzen gaituela gaur ere.

Argi dugu, ordea, berrikuntzak ez duela zentzurik ez etorkizunik, baldin eta oinarri sendo batzuen gainean eta norabide jakin batean egiten ez bada. Alde horretatik, eskolaren eraginkortasuna, eskolarekiko asebetetze-maila eta eskola-eredua bera kolokan dauden honetan, uste dugu aukera ezin aproposagoa dugula ikastolok hezkuntza-berrikuntzari eman nahi dizkiogun zentzu berriaz eta norabideaz hausnartzeko.

### Curriculum propioa

Ikastolok beharrezkoa ikusi dugu beti euskara eta euskalduntasuna ardatz dituen curriculum propioa garatzea. Horregatik heldu genion erronka horri eta gerora *Derri-gorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum* izeneko erreferentziatzeko dokumentuan egile eta eragile izan gara.

Curriculumak duen garrantzia kontuan hartuta, liburu honetan bertan atal zabala eskaini diogu (ikus 4.4. Curriculum: zer, zein eta zertarako). Baina, momentuz, hasierako ideari helduko diogu: euskararen lurraldeetan geurea eta propioa den hezkuntza-eredua eskainiko badugu, geurea eta propioa den curriculum landu beharra dugu.

### Ikasmaterialgintza eta prestakuntza-aholkularitza propioa

Curriculum propioa izatea ez da aski. Curriculum da gero ikasleekin lantzen den ikasmateriala osatzeko oinarria. Eta ikasmaterial hori eraginkortasunez erabiltzeko prestakuntza- eta aholkularitza-plan egokiak behar dira. Horren zerbitzura jarri ditugu azken berrogei urtetan hainbat profesional, Ikastolen Elkartearen bitartez, ikasmaterialak sortu dituztenak eta sortzen jarraitzen dutenak, eta ikasmaterial horiek behar bezala erabiltzeko aholkua eman eta ematen jarraitzen dutenak.

Curriculumaz ari garela, lurraldetasunari dagozkion hautuak daude. Ikastolon hautua garbia da, Euskal Herria oso-osorik aintzat hartuko duen curriculum. Ondorioz, gure ikasmaterialetan horrela islatzen dugu Euskal Herria: zazpi lurraldek osatzen duten Euskal Nazioa. *Berria* egunkariak 2021ean argitaratutako analisiaren arabera, gurea da zazpi herrialdeak kontuan hartzen dituen ikasmaterial bakarra.

Zalantzarik gabe, ikastolon sorreran aritu zirenei egin diezaiekegun omenaldirik politena egindakoaz eta lortutako guztiaz jabetzea da.

### Digitalizazio-marko propioa eta horren garabidea

Hobekuntza eta berrikuntza pedagogikorako garrantzitsua izan da digitalizazio-plan propioa izatea. Markoa sortzerakoan, argi genuen digitalizazioa izan behar zela ikasleak, irakasleak eta ikastola barnebiltzen zituen garapen-ildo bat, eta horrela jaso genuen dokumentuan. Ikasleekin lanketa abiatzeko irakasle prestatuak behar genituen, eta, halaber, ikasle zein irakasle horiek jarduteko ikastola prestatuta egon behar zen. Azken batean, ikasleak, irakasleak eta ikastolak berak elkarri eragiten diote.

---

*Argi dugu berrikuntzak ez duela zentzurik ez etorkizunik, baldin eta oinarri sendo batzuen gainean eta norabide jakin batean egiten ez bada.*

---

Digitalizazioan egindako apustua ezinbestekoa izan da eguneko egoera digital zein pedagogikora iristeko. Berrikuntzarako palanka izan da digitalizazioa, ikastolen azpiegitura garatzeko, ikasleen konpetentzia digitala lantzeko eta irakasleak berrikuntza pedagogikoan zein konpetentzia digitalean trebatzeko. Garapen horren oinarrian bi lan-ildo jarri ziren martxan: batetik, ikastolen garapen digitalerako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) plana diseinatu eta gauzatzea, eta, bestetik, ikasmaterialetan txertatzea konpetentzia digitalaren lanketa egiteko IKT jarduerak.

## EUSKAL HERRIKO ZAZPI HERRIALDEETAN

Hau da ikastola-ereduaren definizioaren laugarren eta azken osagaia.

Ikastolak Euskal Herrian zehar, Estaturik gabeko euskararen herrian zehar, zabaldua eta saretuta daude. Saretze hori Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatibaren bitartez egikaritzen da. Gaur-gaurkoz izaera eta antolaketa nazionala dituen hezkuntza-erakunde bakarra gara. Berezitasun honek aberastasun handia ekartzen die Euskal Herriari eta Euskal Herriatik eraikitzen ari den hezkuntza-proiektuari, eta aberastasun horretaz baliatzea ezinbestekoa ikusten dugu lurraldetasunaren ikuspegitik. Esaterako, muga eta administrazioz gaindiko harremanak sendotzeko, ikasle eta irakasleen arteko sareak eratzeko, Euskal Herriaren ezagutzan sakontzeko, sinergiak bilatzeko eta bere garapena ahalbidetzeko.

XXI. mendean euskaldun izatea hein batean norbanakoaren hautuan oinarritzen den moduan, ikastolen sorrera hautu pertsonal askoren batura izan zen. Aitzindariak eskola euskaldun, berria eta autoeratuak amesten zuten. Horrek gaurkotatzen izaten jarraitzen duela uste dugu eta horrexegatik gaur ere ikastolaren aldeko hautu eta apustu pertsonal zein kolektiboek zentzua eta garrantzia izaten jarraitzen dute.

2021eko otsailean, Euskal Herriko Ikastolok BIHAR izeneko gogoeta-prozesua abiatu genuen, gure oinarrietan sakontzeko eta datozen urteotan ikastolok euskal gizarteari egingo diogun ekarpena irudikatzeko eta definitzeko. Prozesu horretan *Endekalogo*a izenburua daraman proposamena jarri da mahai gainean, eta bertan biltzen dira, gure ustez, Euskal Hezkuntza Sistemak izan behar dituen ezauzgarriak. Parte hartze eta gogoeta-prozesua Euskal Herriko Ikastolen VII. Batzarrarekin amaituko da. Bien bitartean, ikastoletan hezkuntza-komunitate osoarekin lantzeko dokumentazio, baliabide eta ariketa ugariz beteriko sitiesa jarri da sarean (<https://www.biharprozesua.eus/>).

2022ko otsailean ikastola-ereduaren elementuak eta erronkak aztergai dituen Andoni Mujika Ulaziaren idatziaren amaierako hitzak geure eginez bukatu nahi dugu atal hau:

“  
 Begiratu diezaiogun Ikastolen esperientzia kooperatiboari harrotasunez eta aurrez aurre, ahuleziak eta erronkak, argiak eta ilunak antzemateko beldurrik gabe, horiei aurre egiteko konfiantza, konpromisoa eta sendotasuna baititugu. Aukera ezin hobeak daukagu eraldaketa biak egiteko: pedagogikoa eta erakunde-eraldaketa.”

*Ikastolak Euskal Herrian zehar zabaldua eta saretuta daude. Gaur-gaurkoz izaera eta antolaketa nazionala dituen hezkuntza-erakunde bakarra dira. Berezitasun hori aberastasun handia da eta horretaz baliatzea ezinbestekoa ikusten dugu.*

# GOGOETAN LAGUNTZEKO GALDERAK



[A]

**Ikastola-ereduaren  
arrastorik ez duen bati  
eredu honen ezaugarri  
nagusiak azaldu beharko  
bazenizkio, zeintzuk  
aipatuko zenituzke?**

[B]

**Bat datoz hemen aipatu  
ditugun ezaugarriekin?  
Ezaugarri garrantzitsuren bat  
ahantzi zaigula uste duzu?  
Edo hemen proposatzen  
ditugunetakoren bat soberan  
dagoela esango zenuke?  
Zergatik?**

[C]

**Gaur egun zentzua  
izaten jarraitzen du  
ikastola-ereduak?  
Zergatik?**

[D]

**Ezaugarrien artean,  
zeintzuk ikusten  
dituzu indartsu  
une honetan eta  
zeintzuk kolokan?  
Zergatik?**

[E]

**Zer indartu beharko  
genuke ikastola-  
eredu honetan?  
Zertarako?**

A large white rounded rectangular area with horizontal lines for writing, resembling a notepad or a large speech bubble tail.



A large white rounded rectangle containing two columns of horizontal lines for writing, resembling a notebook page spread.



# 3. ZER LORTU NAHI DUGU? PERTSONA-EREDUA

## 3.1

ZERTAZ ARI GAREN  
ETA ZERTAZ EZ  
GAREN ARI

- > Etorkizuneko testuingurua
- > Testuinguruak eragindako aldaketa batzuk
- > T itxurako profesionalak

## 3.2.

PERTSONARENGAN  
ZENTRATUTAKO  
HEZKUNTZA-EREDUA

## 3.3.

PERTSONA-  
EREDUAREN  
DEFINIZIOA


- > Bereizgarriak, ezaugarriak, inpaktuak
- > Ideietatik ekintzetara

## 3.4.

PERTSONA-EREDUA  
DEFINITZEKO  
URRATSAK ETA  
ELEMENTUAK

## 3.5.

PERTSONA-  
EREDUAREN  
EBALUAZIOA



### 3. ZER LORTU NAHI DUGU? PERTSONA-EREDUA

#### 3.1.

#### ZERTAZ ARI GAREN ETA ZERTAZ EZ GAREN ARI

Pertsona-ereduaz ari garenean, zertaz ari garen eta zertaz ez garen ari azaldu nahi genuke ezertan hasi aurretik.


Ez gara esaten ari molde bereko pertsonak nahi ditugunik, noski. Ez gara pertsonen arteko aniztasuna eta aniztasun horren beharra ukatzen ari, ezta pentsatu ere.

Ezta Estatuak eta ekonomiak, merkatuaren logikatik, profil teknikoetarako dituzten premiak asetzeko pertsonen garatu beharko lituzketen konpetentziez ere.

Geure zioak eta motibazioak bestelakoak dira. Ezer baino lehen, geure buruari galdetu diogu ea ikastoletan garatzen lagundu nahi dugun pertsona-ereduarentzat zer-nolako bereizgarriak edo ezaugarriak nahiko genituzkeen. Halaber, galdera horri erantzuten hasi aurretik, beharrezkoa iruditu zaigu pertsona hori nolako testuinguruan biziko den irudikatzea eta, irudikatzearekin batera, aurreikustea testuinguru horretan aurrera egiteko eta eraldatzeko garatu beharko lituzkeen ezagutzak, trebetasunak edota konpetentziak.

Aurrerago ikusi ahal izango duzun moduan, irakurle, proposatzen dugun pertsona-ereduaren 5 bereizgarri eta 18 ezaugarriak ikastolok bultzatu nahi ditugun baloreen planoan kokatzen dira.

Konpetentzien lanketa pertsonaren bereizgarri eta ezaugarri horien zerbitzura dagoela ulertzen dugu; edukiak, era berean, konpetentzien zerbitzura.



#### ETORKIZUNeko TESTUINGURUA

Etorkizuneko testuingurua irudikatzeke ariketa egin duten hainbat eta hainbat autore dira munduan. Guk ingurukoek eta ez hain ingurukoek diotenari erreparatu nahi izan diogu, eta konturatu gara bazuek eta besteek diotenaren artean antzekotasun handiak daudela.

Eta zer diote? Oro har, aurrean ditugun erronkek sistema-izaera dutela. Hala ulertu eta kudeatu behar direla uste dugu, eta erronka horiei aurre egiteko gai den pertsona-eredua eraikitzen lagundu behar dugu. Joseba Azkarraga Etxagibelek dio (2011) mundu erresiliente,

*Proposatzen dugun pertsona-ereduaren bereizgarri eta ezaugarriak ikastolok bultzatu nahi ditugun baloreen planoan kokatzen dira.*

iraunkor eta bidezkoa eraikitzeke ditugun erronkak ikuspuntu integral batetik landu behar direla. Baina zein dira erronka horiek? Bada, nagusiak honako hauek izan daitezke:

- > Erronka sozioekonomikoa: munduan inoiz ez da izan hainbesteko desoreka sozialik, eta etorkizuneko belaunaldiak baldintzatzen dituen sistema sozioekonomikoa dugu.

---

- > Erronka ekologikoa: klima-aldaketaren eraginak gero eta nabarmenagoak dira, eta planetaren bioaniztasunaren galera azkartzen ari da.

---

- > Erronka energetikoa: zibilizazio industrialeko energia fosil merkeen aroa agortzean da.

---

- > Erronka demografikoa: gero eta pertsona gehiago bizi gara planetan, baina hazkuntza ez da inolaz ere homogeneoa. Herrialde “aberatsetan” jaiotze-tasa maldan behera doa; bizitza-esperantza, berriz, gora. Herrialde txirotuetan, aldiz, biztanleria handitzen ari da, baina baita, arrazoi asko direla medio, eze-gonkortasuna ere, eta horrek bertakoak beste herrialde batzuetara migratzera bultzatzen ditu etengabe.

---

- > Hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren erronka: sekula ez dira hizkuntza-komunitateak desagertu orain desagertzen ari diren erritmo azkarrean.

---

- > Erresilientzia psikologikoa: eguneroko ziurgabetasun-egoerek sortzen dizkiguten hainbat sentipenek (antsietatea, bizitza-erritmoa, beldurra, culpa...) norberaren oreka eta egonkortasun psikologikotik aldentzen gaituzte. Gauzak horrela, inoiz baino garrantzitsuagoa izango da barne-lanketa egitea oreka psikologikoa zaintzeko.

Etorkizuneko erronka nagusiei aurre egiteko bidean, Nazio Batuen Erakundeak 2030eko agenda onartu zuen 2015eko Batzar Orokorrean. Agenda horrek garapen iraunkorrerako 17 helburu definitzen ditu, ingurumen, gizarte zein ekonomia alorreko arazo larriei erantzuteko. 193 herrialdek sinatu zuten dokumentua, baina estatuak edo gobernuak ez ezik sektore pribatua eta, oro har, herritarrak ere deituta daude adostutako helburuak betetzera. Eta hezkuntza-eragileok ez gara salbuespena.



Guk garapen iraunkorrerako 17 helburuei hemezortzigarren bat gehitu diegu, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna zaintzeko eta gartzeko beharra. Berez, hamazazpien baitan badagoela uler daiteke, baina herri zein norbanako gisa bizi dugun egoerak espresuki berriazko helburu moduan formulatzera eramán gaitu.

Egin dezagun urrats bat gehiago, irakurle, etorkizuneko testuinguru irudikatze-bidean, oraingoan Yuval Noah Harariaren eskutik. Historialari eta filosofo horrek XXI. mendean giltzarri izango diren honako gai hauek identifikatu ditu (2019):

- > Krisi ekologikoa, suntsipen handiko armen hazkunde nabarmenak, teknologia berri disruptiboen arrakastak eta beste hainbat kontuk jarriko gaituzte (dagoeneko jarri gaituzte) zientziarekin, bioteknologiarekin edota adimen artifizialarekin zerikusia duten hainbat erabaki hartzeko beharrean. Gaur egun planteatuta dauden hainbat galderari ezin baitzaie merkatu logikatik erantzun. Merkatu-logikak ez dio horri erreparatzen, egonarri gutxikoa da eta, salbuespenak salbuespen, ez ditu gehiengoarentzako onak diren erabakiak hartzen. Filosofiari, erlijioari eta zientziari, berriz, denbora agortzen ari zaie, izan ere, berandu baino lehen hartu beharreko erabakiak dira, oinarri-oinarrian bizitzaren zentzuari hertsiki loturik daudenak.

- > Lanpostu kualifikatuen eskaera egongo da. Eta gutxi gorabehera profesional batzuk hamar urtetik behin lanpostuz aldatu beharko du.

---

- > Algoritmo informatikoen pertsonen lana ordezkatzeko dute eta pertsonak aholkatu ere egingo dituzte.

---

- > Bigdata, milioika datuz osaturiko algoritmo multzoa, XXI. mendeko petrolioaren izango da eta hori kontrolatzen duen kontrola izango du pertsonen kontsumo-joeretan, bizitza-ohituretan, gustuetan...

---

- > Gero eta bakartiagoak diren pertsonak izango ditugu, gero eta saretuagoa dagoen mundu batean. Sare sozialek gizartearen eta harremanen ehuntzeko balio dezakete, baina interes ekonomiko handiak daude atzean. Manipulagarriak gara eta are manipulagarriagoak izango gara eremu horretan ere.

---

- > Ziurtasunik eskaintzen ez duen mundu aldakor honetan bizitzen ikasteko barne-sendotasuna eta malgutasun mentala beharrezkoak dira eta are beharrezkoagoak izango dira.

---

- > Egun bizi dugun errealitateak ezer gutxi du ikusteko orain hamarkada batzuk guk edo gure aurrekoek bizi izan genuenarekin. Aldaketak etengabeak dira, iraupen motzekoak, gainera. Bestetik, gaia edozein delarik ere, erlatibotasuna gailentzen da, ikuspegi edota interpretazio askotarikoak planteatzen baitira. Horrek guztiak ziurgabetasuna eragiten du eta, momentuz, ez dirudi norabide aldaketarik aurreikusten denik. Beraz, aldatuko ez den gauza bakarra ziurgabetasuna da.

Eugenio Astigarragak etorkizuneko proiektzio-ariketa European eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin du (2016) eta interesgarria iruditzen zaigu aipatu dituen aldaketa batzuk hona ekartzea:

- > Prestakuntza kompetentzietan oinarrituko da. Kompetentziak, berriz, diziplinarretan eta metadiziplinarretan sailkatuko dira. Gauzak argitze aldera: kompetentzia diziplinarrak dira diziplina jakin bati lotuta daudenak; metadiziplinarrak, berriz, diziplina jakin batetik harago doazenak, diziplina jakin batean ez ezik diziplina desberdinetan ere erabil daitezkeenak. Kompetentzia teknikoagoak, aldiz, pertsona bakoitzaren ibilbide profesionalean sortzen diren beharren eta aldaketen arabera garatuko dira.

- > Lan egin beharko da hezkuntzaren kalitateak eta biztanleriaren kualifikazioak gora egin dezaten. Kualifikazioak gora egiteak ez du derrigorrez esan nahi unibertsitate-mailakoa izan beharko duenik.

---

- > Hezkuntza-paradigmaren eta hezkuntza-ikuspegiaren inguruan begi-bistakoak diren aldaketak izango dira. Ikaskuntza pertsonalizatua eta egokitua izango da, eta horretarako teknologia lagungarria izango da. Adibidez, ikasmaterial digitalen itzulpen automatikoak askotariko jatorri eta kulturak dituzten ikasle berrien murgiltzea eta egokitzea erraztuko ditu.

---

- > Edukiak ugariak izango direnez eta berehala zahartuko direnez, kompetentzia metadiziplinarrak garatzera bideratu beharko da prestakuntza. XXI. mendeko kompetentziaz hitz egin ohi da zentzu honetan, nahiz eta ez dagoen adostasunik kompetentzia horiek zehatz-mehatz zein izango diren identifikatzeko.

---

- > Aldaketa horiek eragin egingo diete ikaskuntza/irakaskuntzako dinamikei (ikasleen eta irakasleen rola zein jarduerak) eta formatuei (presentziala, ez-presentziala, *blended* -mistoa-).

---

- > Ikaskuntza ezinbestekoa izango da bizitza osoan zehar, eta horretarako egongo den formatu eta metodologia-eskaintza askotarikoa izango da: esperientziala, praktikoa eta soziala (baita Internet bidezkoa ere). Eta eremu akademikotik kanpo eskuratutako kompetentziak aintzat hartuko dira, gainera.

---

- > Paradigma tradizionalatik irteten diren proposamen apurtzaileak egongo dira hezkuntzan.

---

- > Hezkuntza-eskaintza ugari egingo da eta horrek, hasieran, herrialde askotan gainformazioa ekarriko du, alegia, laneko eskakizunetatik haragoko formazioa.

---

- > Ezinbestekoa izango da ikaskuntza-prozesuak hobetzea irakaskuntzaren kalitatea hobetuz. Hori ikerketa-prozesuen bidez lortu beharko da.

---

- > Hezkuntza gizarteari eragiten dioten arazo erreal, konplexu eta diziplinartekotan oinarritu behar da, horrela garatu ahal izango baitira gizartean integratzeko eta jarduteko behar diren kompetentziak.

> Esperientzia bidezko ikaskuntzak, proiektu eta ikerketa errealetan parte hartzeak, enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteak garrantzia izango dute pertsona bakoitzaren curriculuma definitzerakoan eta garatzerakoan.

UNESCOren arabera (2015), ezagutzaren eta informazioaren gizar-etik ikaskuntzaren gizarterako aldaketa betean gaude. UNESCOk Ikaskuntzaren gizartea ulertzen du hezkuntza-ingurune gisa, non askotariko eragileek saretuta dagoen ezagutzaren eraikuntzan parte hartzen duten. Hau da, belaunaldi gazteen heziketa eta, oro har, jendea bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestakuntza ez da soil-soilik hezkuntza formalaren eta ikastetxeen egitekoa izango.

### TESTUINGURUAK ERAGINDAKO ALDAKETA BATZUK

Ikusten duzunez, aldaketez beteriko errealitate horrek eragin egiten die bai hezkuntzari berari, baita hezkuntza-sistemaren eta ekoizpen-sistemaren arteko harremanei ere. Sistema batek bestearengan duen eragina honako hauetan isla daiteke:

- > Informazioaren eskuragarritasunean.
- > Informazioaren iraungitzean.
- > Ikasleekin landu beharrekoan.
- > Ikaste/irakaste prozesuaren inguruko ezagutzan.

Ikus ditzagun banaka banaka, ohi bezala.


### Informazioaren eskuragarritasuna

Informazioa edozein momentutan eta edozein lekutan eskura daiteke. Irakaslea dagoeneko ez da ezagutza transmititzen duen bakarra. Ikasleentzat, berriz, zein da erronka? Bada, hain era errazean eskura dezaketen informazioa kontrastatzea, ezagutza bilakatzea eta ezagutza hori norbere errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko bitarteko gisa erabiltzen asmatzea.

### Informazioaren iraungitzea

Aurkikuntza zientifikoak eta teknologikoak etengabeak dira. Ezagutza modu esponenzialean handitzen da. Gero eta konplexuagoa da, gainera. Jakintza azkar garatzen denez, ezagutza ere azkar iraungitzen da; izan ere, ezagutza batzuk aplikatzera joan orduko, zaharkituta geratu dira.

Bai, badakigu aldaketa ugari bizitzen ari garela, baina beharbada ez gara jabetzen aldaketa horiek izugarri azkar gertatzen ari direla eta horrek hezkuntzan ere ondorio garrantzitsuak dituela. Richard Buckminster Fuller arkitekto, asmatzaile eta idazle estatubatuarra egin zuen ikerketa batek lagundu diezaguke aldaketen erritmoari tamaina hartzen. *Knowledge Doubling Curve* (ezagutzaren bikoizketa-kurba) delakoaren bidez, Buckminsterrek frogatu zuen ezagutza gaur egun izugarri erritmo bizian bikoizten dela. Zenbait aldagai kontuan hartuta, 1900ean gizateriak ezagutza 100 urtean behin bikoizten zuela erakutsi zuen; 1945ean, 25 urtean behin; 1975ean, 12 urtean behin. Gaur egun, berriz, bi urte baino ez omen dira behar ezagutza bikoizteko.



Iturria: <https://carmenjasanada.es/el-curriculo-educativo-y-las-evidencias-cientificas/>

Datu hauek eta beste hainbatek galdera garrantzitsu baten aurrean jartzen gaituzte hezkuntza-munduan dihardugunok: nolako harreman mota izan behar dugu ezagutzarekin? Eta nolako trebetasunak garatu behar ditugu ezagutzarekiko harreman hori eraginkorra izan dadin?

### Ikasleekin landu beharrekoa

Beraz, zibilizazio-, gizarte- zein komunitate-mailan erronka handiei aurre egin beharrean gaude. Halaber, hor daude krisi ekologikoa, aberastasun ekonomikoaren eta boterearen kontzentrazioa eta horrek eragiten dituen injustizia sozial askotarikoak (klase-, genero-, arraza-, nazio-mailakoak...). Bada, horren kontzientzia landu beharra daukagu hezkuntzan. Testuinguru berrian bizitzeko eta testuingurua bera eraldatzeko behar diren ezagutzak eta kompetentziak ez dira aurreko belaunaldiek behar izan dituztenak. Eskolaren egitekoa aldatu egiten da errealitate konplexu honetan.

*Testuinguru berrian bizitzeko eta testuingurua bera eraldatzeko behar diren ezagutzak eta kompetentziak ez dira aurreko belaunaldiek behar izan dituztenak.*


### Ikaste/irakaste prozesuaren inguruko ezagutzak

Ezagutzarekin lotuta, eta neurozientzien aurrerapausoei esker, hezitzaileok gero eta hobeto ulertzen dugu ikasleak nola ikasten duen eta ikaste/irakaste-prozesuak diseinatzeko orduan eraginkorragoak izan gaitzek.

### T ITXURAKO PROFESIONALAK

Testuinguru berrian nolako pertsonak eta profesionalak beharko diren irudikatzen ari dira hainbat aditu. Bide horretan, azken hamar urteotan *T shaped persons* edo T itxurako profesionalak buruz hitz egiten ari dira lan-munduan (Brown, 2010). T hizkiaren lerro bertikalak adierazten ditu profesional batek diziplina jakin batean edo sistema zehatz batean dituen ezagutzak, trebetasunak eta esperientzia. Bestela esanda, T hizkiaren lerro bertikal horrek adierazten du profesional batek bere lan-eremuari dagozkion egoeretan pentsamendu analitikoa eta sistemikoa

aplikatzeko duen gaitasuna. Profil hori duten profesionalak *I shaped* edo I itxurako profesionalak deitzen zaie.



T hizkiaren lerro horizontalak, berriz, adierazten ditu pertsona horrek bere eremukoak ez diren adituekin jarduteko dituen zeharkako ezagutzak eta gaitasunak. Beraz, T itxurako profesionalak ari garenean, diziplina eta sistema jakin batean adituak diren profesionalak ari gara, bai, baina, horrez gain, beste diziplina edo sistemak ulertzeko gaitasuna duten profesionalak ere ari gara. Hau da, beraienak ez diren lan-eremuko profesionalen lekuan jartzeko gaitasuna duten profesionalak ari gara, eta arazoei soluzioa bilatzeko talde-lanean jarduteko duten gaitasunaz, komunikatzeko gaitasunaz, kritikotasunaz, kudeatzeko gaitasunaz, sormenaz, malgutasunaz, ekintzailetasunaz...

Laburbilduz, T itxurako profesionalak, ezagutzaren mugak gaindituz, gaitasun pertsonalak martxan jartzen dituzte, beste profesional batzuekin elkarlanean arazoak konpontzeko edota planteatzeko; eta horrez gain, adituak dira diziplina eta sistema jakin batean.

Hezkuntzan, oro har, esan genezake I itxurako pertsonak garatzeari begirako eskaintza diseinatu dugula. Alegia, Lehen Hezkuntzan, denbora gehiena eskaini diegu mundua ulertzeari eta hitzezko zein hizik gabeko hizkuntzen oinarriak finkatzeari (gaitasun linguistikoa,



matematikoa, artistikoa...). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, ezagutza konpartimentatu egiten da. XXVIII. mendean loratu zen Ilustrazioaren eraginez, zientziaren ezagutzetan sakontzeko zientzia bera zatitu egiten da, eta horrek zientziaren irakaspenean ere, hau da, hezkuntzan ere, isla izan du. DBHn ikaslea diziplina askorekin harremanetan jartzen da eta, amaiera aldera, eremu berekotzat jotako hainbat diziplina biltzen dituen modalitate jakin bat hautatzera bideratzen da. Azkenik, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan, diziplina batean espezializatoranzko bideari ekiten dio. Izan ere, gizarteak orain arte I itxurako profesional onak behar izan dituzenez, espezializazioa eskatu zaie Batxilergoko eta Lanbide Heziketako etapei. Testuinguru honetan, T itxurako profesionalak izateko beharrezkoak diren zeharkako gaitasunak, sarri, jarreraren inguruko adierazleen bidez ebaluatzen dira, baina, oro har, ez da horien berariazko lanketarik egiten.


Ez genuke geure Hezkuntza Marko honetan proposatzen ari garen hezkuntza-planteamendua irudi bakar batera mugatu nahi, baina, egia esan, metaforak adierazi nahi dugunaren sakoneko mezua indartzen laguntzen duela uste dugu. Beraz, gera zaitez, irakurle, honako ideia honekin: I pertsonak garatzen laguntzetik T pertsonak garatzen laguntzera igaroko den planteamendu berria eta berritzailea behar dugu ikastoletan.

Hemendik aurrera ikasleei prestakuntza integral eta osoa eskainiko badiegu, pauso hori eman behar dugu. Eta hona iritsita, gogora dezagun zein izan den atal honen abiapuntua. Testuinguru berrian, eta ikastolok pertsona osoak garatzen lagundu nahi dugula jakinda, uste dugu ariketa garrantzitsua dugula egiteko. Alegia, zer pertsona-eredu bilatzen dugun eta pertsona horrengan nola eragin nahi dugun asmatzea. Helburu horri begira jartzeak hezkuntza-eredua definitzen lagunduko digu.

Ez dakigu etorkizuna nolakoa izango den, baina jakin badakigu pertsonaren izaera indartzen duten konpetentzia

metadiziplinarrak beharko direla, hau da, diziplina jakin batean ez ezik diziplina desberdinetan aritzeko balio dutenak.

Orain arte esandakoa kontuan izanda eta gure helburua geure identitatearekin bat datozen eta aldi berean gaur eta biharko erronkei erantzuteko gaitasuna izango duten pertsonak garatzen laguntzea dela kontuan izanda, ikastolok honako bereizgarriak dituen pertsona-eredua partekatzen dugu:



Baina beharbada azkarregi ari gara, ezta? Lasai, irakurle, bost bereizgarri horiei (eta horietako bakoitzak berekin dituen ezaugarriei) buruzko informazio guztia hurrengo kapituluetan aurkituko duzu.

### 3.2. PERTSONAREN ZENTRATUTAKO HEZKUNTZA-EREDUA

Ikastolon hezkuntza-eredua pertsonaren garapenean zentratutako proposamena da.

Honek esan nahi du ulertzen dugula gure egitekoa pertsona bere dimentsio guztietan (soziala, kognitiboa, motorra, emozionala, existentsiala...) garatzen laguntzea dela, askotariko eremuetako ezagutzak eraikitzen laguntzetik harago. Alegia, egiten ikastetik harago, izaten ikasteko hezkuntza-proposamen bat jarri nahi dugu mahai gainean.

*I pertsonak garatzen laguntzetik T pertsonak garatzen laguntzera igaroko den planteamendu berria eta berritzailea behar dugu ikastoletan. Hemendik aurrera ikasleei prestakuntza integral eta osoa eskainiko badiegu, pauso hori eman behar dugu.*

Izan ere, herri eta nazioen arrakasta, gure ustez, ez da neurtzen soilik herri edo nazio horien gizartea osatzen duten pertsonak dakitenaren arabera, pertsona horien giza kalitatearen arabera baizik. Eta giza kalitateko pertsonak garatzeko, norbanakoaren izateari eta beste batzuekin batera jarduteari loturiko ikaskuntzak ahalbidetu behar dira.

---

*Pertsona-eredua hezkuntza-proiektuaren elementu nagusia da, eta haren zerbitzura daude Marko Orokorrean identifikatzen ditugun gainerako elementuak.*

---

Ikastolon bokazioa, gainera, pertsonak gizartearen zerbitzura jartzea da, berau eraldatzeko, hobetzeko.

Eta pertsona-ereduaz ari garenean, ikastolok garatzen eta eraikitzen lagundu nahi dugun pertsona horrek zer bereizgarri eta ezaugarri izatea nahiko genukeen adierazten ari gara. Izan ere, hori argi izateak lana zer norabidetan egin behar duen definitzen laguntzen dio edozein ikastolari.

Pertsona-eredua definitzen ari garenean, gizartearen ki-deak izango diren pertsonen bereizgarri eta ezaugarriak definitzen ari gara. Izan ere, gure haur eta gazteei zer-nolako etorkizuna utzi nahi diegun irudikatzea bezain garrantzitsua da etorkizunerako zer-nolako pertsonak nahi ditugun pentsatzea. Alde horretatik, pertsona-ereduaren adiera urrundu egiten da ikasle/irakasle profilak duen adiera teknikitik. Zabalagoa eta filosofikoagoa da.

Pertsona-eredua hezkuntza-proiektuaren elementu nagusia da, gure ustetan, eta, 1.2. atalean ikusi duzun bezala, haren zerbitzura daude Marko Orokorrean identifikatzen ditugun gainerako elementuak: printzipio psikopedagogikoak eta metodologikoak, hezkuntza-il-doak eta curriculumak.

### 3.3.

## PERTSONA-EREDUAREN DEFINIZIOA

Pertsona-ereduaz ari garenean, bereizgarri jakin batzuez ari gara, baita bereizgarri horietako bakoitza definitzen duten ezaugarri multzoez ere. Hau da, bizi dugun, aurreikusten dugun eta eraldatu nahi dugun errealitate horretako pertsonak zer tasun izatea nahi dugun zehazten dugu.

Ikastolen Elkartetik proposatzen dugun pertsona-eredua ikastolontzako erreferentzia, orientazio eta kohesiorako elementu gisa planteatzen dugu. Esaten ari garen honek badu bere mamia, izan ere, ikastolontzako komuna izango den zorua edo, nahiago bada, iparra proposatzen baitugu.

Aurreko kapitulu batean ikusi dugun bezala, Ikastolen Elkartetik bultzatzen dugun pertsona-ereduak bost (5) bereizgarri ditu -barne-sendotasuna duena, euskalduna, eraldatzailea, erabakitzaile-ekintzailea eta kooperatiboa- eta, laster ikusiko dugun bezala, bereizgarri horietako bakoitzak bere ezaugarriak ditu; guztira, hemezortzi (18) ezaugarri.

Jakin, irakurle, ibilbide honetan Ikastolen Elkartea ez dela bakarrik aritu. Kanpo aholkularitza ezinbestekoa izan dugu. Batetik, Escalae institutuarekin elkarlanean diseinatutako aholkularitza pedagogikorako zerbitzua eskaintzen diegu ikastolei, eta, bestetik, pertsona-eredua definitzeko, Reimagine erakundeaz eta bere Riedusis metodologiaz baliatu gara. Horrez gain, pertsona-ereduaren hasierako hipotesitik zenbat urrundu edo hurbildu garen ezagutzeko kanpo-ebaluazio sistema bat diseinatzen ari gara Ikastolen Elkartean.

---

*Ikastolen Elkartetik bultzatzen dugun pertsona-ereduak bost bereizgarri ditu: barne-sendotasuna duena, euskalduna, eraldatzailea, erabakitzaile-ekintzailea eta kooperatiboa.*

---

## BEREIZGARRIAK, EZAUGARRIAK, INPAKTUAK

Prozesua honelakoa da:

- > Lehenik, pertsona-ereduaren bereizgarriak definitzen dira.
- > Ondoren, bereizgarri bakoitza ulertzen laguntzen duten ezaugarriak definitzen dira.
- > Ezaugarri bakoitza lantzeko eta ebaluatzeko baliagarriak izango zaizkigun inpaktuak zehazten dira. Inpaktu horiek langai bilakatzen dira haur eta gazteekin lanean diharduten hezitzaileentzat. Bestela esanda, hezitzaileari inpaktuak lagungarri zaizkio. Zertarako? Ikas-esperientziak eta esku-hartzeak pentsatu eta antolatu ahal izateko, betiere pertsona-eredua garatzen laguntzea helburu.
- > Kanpo-ebaluazio baten bidez ebaluatu egiten da ikastolan definitu eta adostutako pertsona-eredua zein neurritan lortzen ari den.

Inpaktuak aipatu ditugu. Bada, has gaitezen horiei buruzko azalpenak ematen, 3.5. kapituluaren mintzagai izango baitugu pertsona-eredua inpaktuen bidez ebaluatzeko aukera.

Inpaktuak hiru mailatan bereizten dira (*Ametsak betetzeko daudelako*, 2020):

- > **Jokabide- edo portaera-mailakoa.**
- > **Ulermen- edo ikaskuntza-mailakoa.**
- > **Marko mentalaren mailakoa.**

Ikus dezagun zertaz ari garen inpaktu mota bakoitzari buruz ari garenean.

### Jokabide- edo portaera-mailako inpaktua

Pertsona baten jokabidean eragitea lortzen dugunean, bere jokatzeko eta egiteko moduak aldatu egiten dira. Adibidez, ez birziklatzeak

ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak urtez urte lantzen baditugu eta azkenean ikasle gehienek hondakinak birziklatzeko ontzietara modu egokian botatzen dituztela ikusten badugu, euren jokabidean eragitea lortu dugula ondorioztatuko dugu. Beraz, jokabide-inpaktua lortu dugula esan ahal izango dugu.

### Ulermen- edo ikaskuntza-mailako inpaktua

Pertsona batek ez du soilik jokaera aldatu, baizik eta aldaketa horren beharra ulertu eta kontzientzia ere hartu duela esan dezakegu. Inpaktu hauek aurrekoak baino iraunkorragoak izaten dira. Birziklatzeari buruzko adibidera itzuliz, pertsonak ez du puntualki birziklatzen, sarri baizik, eta gainera ulertu du birziklatzearen garrantzia, ulertu ditu ez birziklatzearen ondorioak eta horren guztiaren kontzientzia hartu du. Horrek ez du esan nahi portaera hau bere bizitzako esparru guztietara eraman duenik eta erabat bere egin duenik. Kontzientzia-maila bat dauka, ulertu egiten du gai honen inguruan dagoen errealitatea, baina testuinguruaren arabera aldatu egin daiteke bere portaera.

### Marko mentalaren mailako inpaktua


Maila honetako inpaktuak sakonak dira, pertsonaren bizitza ulertzeko moduan kokatzen dira. Prozesu baten ondorioz, aldaketak eta jokatzeko modu berriak bere egin ditu, bere marko mentalean erabat txertatuta geratu dira, eta, ondorioz, testuinguruak aldatzen badira ere, berak modu berean jokatzeko jarraitzen du. Lehengo adibideari helduz, birziklatzea ohiko portaera bilakatzen da pertsona horren bizitzan. Horren atzean gaiaren inguruko kontzientzia sakona dago eta, testuingurua dena dela ere, bere jokabidea ez da aldatzen, printzipioetan sendo oinarrituta baitago.

### IDEIETATIK EKINTZETARA

Ikastolok pertsona-eredu jakin bat garatzen lagundu nahi dugu. Helburu horri lur hartzen laguntzeko ideietatik ekintzetarako urratsak egin behar ditugu. Lehena, pertsona-eredu hori nolakoa den eta zer egiten duen argitzen laguntzen diguten bost bereizgarriak eta hehezortzi ezaugarriak definitzea.

## PERTSONA-EREDUA

{ 5 BEREIZGARRI { 18 EZAUGARRI



Kapitulu honen hasieran adierazi moduan, eskema honetan plano filosofiko eta ideologikoan kokatzen diren bereizgarri eta ezaugarriak topatuko dituzu, irakurle.

Alde horretatik, geure ikasle, familia zein profesionalen artean dagoen aniztasuna abiapuntu eta oinarri hartuta, garatu nahi ditugun balore nagusien bateratze-lana da eskema. Mundu honek planteatzen dizkigun erronkei, herri gisa eta herritar gisa, neurriko erantzun eraginkor-rrak ematen joateko iparra.

Bereizgarri eta ezaugarri multzo honen lanketa bizitza osorako ikaskuntza-prozesu gisa ulertzen dugu. Ez da Batxilergoan edota Lanbide Heziketan bukatzen. Baina ikasleak gure artean ditugun artean, lanketa hori egiteko erantzukizuna dugula uste dugu. Uler bedi pertsona-eredua, beraz, arestian esan dugun bezala, ipar baten moduan, ez pertsona perfektuak eta molde bakarrekoak eraikitzeke planteamendu moduan.

Bestalde, bereizgarri eta ezaugarri horiek pertsonaren garapen integralerako garabideak izango dira bizitza osoan, eta horrela ulertu egin behar dira. Alegia, ikasleentzako ez ezik hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztiontzako ere garapenerako orientabide nagusiak dira, haur, gazte zein heldu. Beraz, ikasleari dagozkion inpaktuak definitu beharko lirakekeen moduan, irakasleari loturikoak ere definitu beharko lirakeela uste dugu. Nekez eraman baitaiteke inor norbera iritsi ez den lekura.

Kapitulu honetan garatzen lagundu nahi dugun pertsona-ereduaren bereizgarri eta ezaugarriak azaldu ditugu. Liburuaren azken orrialdeetan, berriz, bereizgarri eta ezaugarri horien definizioak aurkituko dituzu, uste dugulako ezinbestekoa dela hitz bakoitzari ematen diogun esanahi zehatza, edukia, zuekin guztiokin partekatzea. Gainera, bada azken orrialdeetako dokumentu horren aldaera zabalago bat, non bereizgarri eta ezaugarri horietako bakoitzaren eta aldi berean guztien inpaktuak zehazten diren, etapaz etapa zehaztu ere, hau da, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Hezkuntzan eta Batxilergoan. Ikastolen Elkarteak bere webgunean berariaz Hezkuntza Markoari eskaini dion atalean aurkituko duzu dokumentuaren aldaera zabalago hori. Orrialde honetan bertan dagoen QR kodearen bidez ere ikus dezakezu.

*Pertsona-ereduaren bereizgarri eta ezaugarri multzo honen lanketa bizitza osorako ikaskuntza-prozesu gisa ulertzen dugu. Baina ikasleak gure artean ditugun artean, lanketa hori egiteko erantzukizuna dugula uste dugu.*



Horrela, modu batera edo bestera geure haur eta gazteen hezkuntza-ibilbidearen etapa jakin bakoitzean bidelagun garenon iparra non ikusten dugun aztertzeke aukera izango duzu. Beraz, ezaugarri baten gaineko inpaktuen etapaz etapako progresioa behatzera gonbidatzen zaitugu, etapa bakoitzaren egitekoa noraino hel daitekeen ikusteko eta, batez ere, etapatik etapara egiten den hurrenkeraz jabetzeko.

Kapitulu honekin bukatu baino lehen, ohar bat... Ikastola bakoitzak kapitulu honetan ikusi ditugun pertsona-ereduaren bereizgarri eta ezaugarriak bere testuingurura eta izaerara egokitzea interesgarria izan daiteke. Baina ikastola batek horietako baten bat moldatzen badu edo berriren bat definitzen badu, lorpen-mailak ebaluatzeko tresna espezifikoak sortu beharko lituzke. Zeren eta Ikastolen Elkartetik proposatzen dugun pertsona-eredua ikastolontzako erreferentzia, orientazio eta kohesiorako elementu gisa planteatzen baitugu; ikastolontzako zoru komun edo ipar gisa planteatzen baitugu, eta garatzen ari garen neurketa sistemaren bidez zehazten diren bereizgarri eta ezaugarriak neurtuko baitira.

### 3.4.

## PERTSONA-EREDUA DEFINITZEKO URRATSAK ETA ELEMENTUAK

Ikastola bakoitzak pertsona-eredua bere errealitatera egokitze-ko orientabide batzuk eman nahi ditugu, betiere kontuan izanda Ikastolen Elkartek ahokularitza eskaintzea aurreikusi eta bidea elkarrekin egiten jarraitzeko konpromisoa berretsi duela. Hona hemen orientabide horiek:

- > Prozesua zenbat eta parte-hartzaileagoa izan, orduan eta kohesio- eta adostasun-maila handiagoa egongo da ikastolaren hezkuntza-proiektuaren helburuan, helburu hori lortzeko ibilbidean eta ibilbide hori egin ahal izateko behar diren aldaketetan.
- > Komeni da hasiera-hasieratik zehaztea nork abiatuko duen pertsona-eredua kontrastera eramateko lana, nola integratuko diren hezkuntza-komunitateko

eragile desberdinen ekarpenak eta nola balidatuko den pertsona-ereduari buruzko dokumentua bera. Prozesuak hasieratik ondo zehaztuta egoteak zilegitasuna emango dio lanari eta prozesuari berari.

- > Ikastola batek bere pertsona-eredua definituta izateak bi norabidetan lagundu dezakeela uste dugu. Batetik, ikastola horren lana eta ahalegina zer norabidetan doan ulertzen. Alegia, funtzio komunikatzaile garrantzitsua betetzen du eta egon daitezkeen bestelako hezkuntza-planteamenduen aurrean posizionatzen laguntzen du. Bestetik, pertsona-ereduaren bereizgarriak garatzeko norabidea markatzen laguntzen du. Izan ere, hainbat ikastetxe lehen puntuan geratzen dira, alegia, pertsona-eredu jakin bat garatzeko nahia eta helburua adierazten dituzte, baina hori ez da ikastetxearen jardun-pedagogikoan islatzen, pertsona-ereduaren helburu bereizgarrietatik deskonektatuta dago, haria galdu egiten da bidean. Komunikatzen den hori praktikara eramateko, pertsonarengan zentratutako ereduaren aldeko apustu irmoa egin beharra dagoela uste dugu. Eta horrekin batera, bereizgarri horiek lantzeko eta ebaluatzeko bide-orria definitu. Bereizgarriak, beraz, ezaugarri zehatzagoetan xehetu eta definitu behar dira. Definitutako hori eguneroko jardun-pedagogikora eraman behar da eta emaitzak ebaluatu.

### 3.5.

## PERTSONA-EREDUAREN EBALUAZIOA

Pertsona-ereduaren bitartez, ikasleek zein euren bidelagun garenok behar ditugun eta beharko ditugun ezaugarri eta bereizgarrien multzoari begira jarri nahi dugu ikastolon eguneroko praktika. Hauxe da gure iparra. Eta edozein helburu jartzen denean bezala, ezinbestekoa izan ohi da helburu hori betetzen ari garen edo ez ebaluatzea, hortik ateratako ondorioek indarguneak, hobetu beharrekoak edota doikuntzak identifikatzen laguntzen digutelako. Kontua da hezkuntzan edukien ebaluazioan aditu bagara ere eta kompetenzien ebaluazioan pauso esanguratsuak eman baditugu ere, ez dagoela pertsona-eredua ebaluatzeko sistematik edo, hobeto esan, oraintsu arte ez dela egon, guk planteatzen baitugu hemendik aurrera ebaluazio hori 3.3. kapituluan ikusi ditugun inpaktuen bidez gitea.



***Pertsona-ereduaren ebaluazioan, zer da ebaluatzen duguna? Pertsona-ereduaren garapen-mailan gure ikasleak non dauden, zer puntutan dauden. Argazki hori baliatuko dugu gure hezkuntza-eredua eta praktika pedagogikoa egokitu eta hobetzeko.***

Izan ere, pertsona-ereduaren ebaluazioan, zer da ebaluatzen duguna? Hezkuntza-proiektuan jaso dugun pertsona-ereduaren garapen-mailan gure ikasleak non dauden, zer puntutan dauden. Horixe da ebaluatzen duguna. Hain zuzen, argazki hori baliatuko dugu gure hezkuntza-eredua eta praktika pedagogikoa egokitu eta hobetzeko. Ikastola eta bere hezkuntza-proiektua ez dira horretan eragiten duten aldagai bakarrak, jakina, baina norabide honetan gure ikasleengan eragiteko aukera eta eginbeharra dugu.

Eta, gainera, ebaluazio horrek ematen digu administrazio publikoaren ebaluazioek (PISA, Ebaluazio Diagnostikoa...) ematen ez diguten informazio bat. Izan ere, ebaluazio horrek ikastolaren planteamendu pedagogikoak definitutako pertsona-ereduari erantzun ote dion aztertzen du, inpaktuen ebaluazio baten bidez. Ebaluazio-sistema horrek hiru norabidetan laguntzen duela uste dugu:

- > Gure ikasleek dituzten ezaugarri eta bereizgarrien argazki zehatz eta erreal bat izaten.
- > Gure praktika pedagogikoaren inguruan hausnartzen.
- > Gure helburuekin koherente izateko gure jardunean nolako hobekuntzak egin behar diren identifikatzen.

Ebaluazioan jasotzen diren datuen objektibotasuna eta adierazgarritasuna bermatzeko, balidazio zientifikoa duten neurketa-tresnak eta ebaluazio-sistema osoa izatea funtsezkoa da. Horiek sortzeko, Ikastolen Elkarateak doktorego tesi bat abiatu du, nahi ditugun eta lortzen ditugun inpaktuen gaineko informazio fidagarria eskuratzeko helburu. Ondorioz, pertsona-ereduaren definizio eta inpaktuen zehaztapenetan egokitzapenak egiterakoan, ikastola bakoitzak kontuan hartu beharko luke, batetik, ebaluazio-sisteman izango duen eragina eta, bestetik, bereizgarri edota ezaugarriren bat gehitzea erabakiko balu, horren ebaluazioa eta jarraipena nola egingo lukeen.

## GOGOETAN LAGUNTZEKO GALDERAK



[A]

**Zure ustez, zeintzuk izan daitezke pertsonarengan zentratutako hezkuntza-proposamenaren onurak? Zertan lagundu dezake?**

[B]

**Zeintzuk dira egungo eta etorkizuneko gizarteak planteatzen dituen erronka nagusiak? Zer beharko dute gure ikasleek gizarte horretan bizitzeko, gizarte hori hobetzeko, aldatzeko?**

[C]

**Eta ikastolaren izaeraren ikuspegitik, zer-nolako pertsonak nahi ditugu? Ikastolatik irteten diren pertsonentzako zer bereizgarri nahiko genuke? Pertsona horiek gizarteari zer ekarpen egitea nahiko genuke?**

[D]

**Zer beharko luke zure ikastolak ikuspegi hau guztia garatzeko?**

[E]

**Berrikuntza ugari jarri ditugu martxan geure ikasleak autonomoagoak, kooperatiboagoak, kritikagoak... izan daitezten. Lortu al dugu? Zer ebidentzia zientifikoa dugu?**

[F]

**Zer deritsozu kanpo-ebaluazioa baliatzeari?**






# 4. NOLA LORTU NAHI DUGU?

**4.1.**  
HEZKUNTZA  
MARKOAREN  
PRINTZIPIO  
PSIKOPEDAGOGIKOAK

**4.2.**  
HEZKUNTZA-ILDOAK

**4.3.**  
CURRICULUMA: ZER,  
ZEIN ETA ZERTARAKO



## 4. NOLA LORTU NAHI DUGU?

4.1.

### HEZKUNTZA MARKOAREN PRINTZIOPIO PSIKOPEDAGOGIKOAK

Ikastolen Hezkuntza Marko honetan, beharrezkoa iruditu zaigu eredu pedagogikoa sostengatzen duten printzipioak azaltzea, era labur eta errazean azaldu ere. Horregatik saihestu ditugu erreferentziatzeko autoreen aipuak, nahiz eta inork horien berri zehatza nahi badu, bibliografian aurkituko duen. Hala ere, aitor dugu printzipio horien enuntziatuak, zenbaitetan, ez direla espero zitekeen bezain argiak, lehen begi-kolpean, behintzat. Ez kezkatu, irakurle, oraingoan ere banan-banan xehetuko ditugu eta. Beraz, hona hemen, beste luzamendurik gabe, gure ustez, hezitzaile batek ezinbestean kontuan hartu beharko lituzkeen printzipioak:

15

PRINTZIOPIO  
PSIKOPEDAGOGIKO

10

HEZKUNTZA-  
ILDOIKASTOLETAN IKASLEAK BAINO GEHIAGO  
IKASTERA DATOZEN PERTSONAK DITUGUPERTSONA BAKOITZA BAKARRA ETA ERREPIKAZEZINA DA ETA  
BIZITZA OSOAN ZEHAR GARATZEKO GAITASUNA DUPERTSONAREN GARAPEN EBOLUTIBOA AINTZAT HARTU  
BEHAR DUGU GEURE ESKU-HARTZE PEDAGOGIKOANIKAS-PROZESUA AHALBIDETZEN DUTEN BALDINTZAT SORTZEN  
LAGUNTZEN DUTE OREKA EMOZIONALAK ETA AUTOIRUDI DOTUAKDENOK DUGU IKASTEKO GAITASUNA TESTUINGURU  
BEREAN ELKARREKIN LAN EGINEZELKARREKIN IKASTEN DUGU HIZKUNTZAREN,  
PENTSAMENDUAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN BIDEZ

HIERARKIEN ERAGINA TALDEEN OSAERAN, OREKAN ETA KUDEAKETAN

ESKOLA, HAURRAREN ETA GAZTEAREN HEZIKETARAKO  
BERARIAZKO ERAKUNDEA IZANIK, GATAZKA KOGNITIBOAK  
SORTZEKO GUNE PRIBILEGIATUA DAEZAGUTZA BERRIAK PERTSONAREN GARAPEN-ZONALDE  
HURBILETIK ERAIKITZEN DITUGUINFORMAZIO BERRIA INTEGRATZEN DUGU LEHENDIK  
DAKIGUNAREKIN KONEKTATUZ

AKATSA, EKIDIN EZINA IZATEAZ GAIN, AUKERA PAREGABEA DA IKASTEKO

ARRAKASTA BERMATZEA EZINBESTEKOA  
DA PERTSONA GARATU AHAL IZATEKO

HELDUON MODELATZE- ETA ALDAMIATZE-LANAREN GARRANTZIA

FEEDBACKA, TRESNA ERAGINKORRENETAKOA

ESPAZIOAREN ETA DENBORAREN ANTOLAKETA IKASKUNTZA-  
PROZESUAREN ZERBITZURA EGON BEHAR DA, EZ ALDERANTZIZ

### IKASTOLETAN IKASLEAK BAINO GEHIAGO IKASTERA DATOZEN PERTSONAK DITUGU

Ikasletik harago pertsona ikusten hasten garenean, ikas-prozesua humanizatzen dugu. Horrek, ikaslearen jokamoldeak ulertzen ez ezik egoerak gizatasunez kudeatzen ere lagundu diezaguke. Horrek, era berean, hezitzaileok begiradaren eta rolaren inguruko gogoeta eskatzen du. Beharbada adibide klasiko pare bat aipatuta, errazago ulertuko duzu, irakurle.

Demagun ikasle bat zeharo deskonektatuta dagoela irakaslea edo ikaskide bat gelan ematen ari den azalpenaren aurrean. Irakasleak ikasle deskonektatu horrengan 'ikaslea' baino ikusten ez badu,

---

*Pertsonaz pertsona aritzen garenean, epaietatik urrundu egiten gara, portaera bakoitzaren atzean arrazoi bat edo batzuk egon daitezkeela ulertzen hasten gara eta besteari lagundu ahal izateko bidean jartzen gara.*

---

sintoman gera daiteke, eta ondorioztatu dezake ikasleak ez duela azalpenarekiko interesik. Aldiz, irakasleak ikasle deskonektatuaren ordeztatu 'pertsona' ikusten badu, arreta jar dezake deskonexio horren atzean dauden arrazoietan. Agian senideren bat hil zaio, edo liskarren bat izan du lagunaren batekin eta hori burutik kendu ezinik dabil, edo berandu lotaratu da eta ez du behar beste atsedunik hartu... Gauza bera gertatzen da saioa etengabe eteten ari den ikaslearekin. Etiketatu ordeztatu, portaera horren atzean dagoen arazo, zailtasun edo dena delakoan sakontzen saia gaitzake. Agian deseroso dago lantzen ari garen gaiarekin, emozionalki asko ukitzen duelako (drogak, heriotza, etxegabetzeak, genero-indarkeria, gerra-egoerak munduan...). Edo baliteke lantzen ari garen gaiarekiko duen gaitasunaren autopertzepzioa baxua izatea eta gelako dinamikan parte hartu nahi ez izatea bere gabeziak nabarmen geratuko diren beldur delako.

Pertsonaz pertsona aritzen garenean, begirada horretatik jarduten dugunean, epaietatik urrundu egiten gara, portaera bakoitzaren atzean arrazoi bat edo batzuk egon daitezkeela ulertzen hasten gara eta besteari lagundu ahal izateko bidean jartzen gara.

### **PERTSONA BAKOITZA BAKARRA ETA ERREPIKAEZINA DA ETA BIZITZA OSOAN ZEHAR GARATZEKO GAITASUNA DU**

Pertsona bakoitzaren singularitasuna kontuan izaten duen printzipio horrek talka egiten du hezkuntzan nahiko ohikoa den praktika batekin. Alegia, ikasgela batean ikasle guztiek une eta modu berean jasotzen dituzte azalpenak, eta ondoren, guztiei jarduera berak une berean eta modu berean egitea eskatzen zaie. Argi dago, ordea, testuinguru berean egonda ere, guztiok ez ditugula ikaskuntza berak modu berean eta une berean egiten. Irakaskuntza estandarizatu batean ikaslearen singularitasunak apenas du lekurik. Ikasle bakoitzaren behar, interes,


gaitasun eta mugei erantzuten dieten ikas-prozesuak, berriz, ez dira bideragarriak. Gauzak horrela, badirudi irtenbidea ikaskuntza pertsonalizaturantzko urratsetatik datorrela. Ikaskuntza pertsonalizatuak singularitasuna errespetatzen du, ikasleari garatzeko dituen aukerez eta zailtasunez jabetzen lagunduz. Ikaskuntza pertsonalizatuan, erritmoa eta irakaskuntza-prozesua ikaslearen beharretara egokitzen dira, eta ikas-helburuak, edukiak zein jarduerak aldatu egiten dira ikaslearen beharren arabera. Garai batean, ikasmaterialen euskarri nagusia papera zenean, hori zaila zen; gaur egun, berriz, plataforma digitalen prozesuak dezente pertsonalizatzea ahalbidetzen dute... ikaskuntzarako baliabideak modu malguan antolatuz, ikasle bakoitzaren behararen arabera kontzeptuak eta prozedurak behin eta berriro modu desberdinetan errepikatuz, ikasle bakoitzaren ikas-prozesua gertuagotik jarraituz, feedbacka jasoz, gurasoei informazio-iturri ugari eskainiz...

Pandemiak iraun duen bitartean, ikaste/irakaste-eredu presentzial eta onlineko hibridoetara jo behar izan dugu. Eta konturatu gara onlineko jardunean ez dagoela zertan guztia sinkronian edo aldi berean egin. Esaterako, azalpenak bideo-kapsuletan grabatuta izateak ahalbidetzen

---

*Ikaskuntza pertsonalizatuak singularitasuna errespetatzen du, ikasleari garatzeko dituen aukerez eta zailtasunez jabetzen lagunduz.*

---



du ikasle bakoitzak nahi duenean eta nahi beste aldiz entzutea. Sinkroniako uneak, berriz, hau da, guztiok batera aldi berean aritzeko uneak, hobeto aprobetxatu daitezke bideoz azaldutako horren inguruko galderak, zalantzak, talde-lanak edota jarduerak egiteko. Uste dugu pandemiako esperientzia aprobetxatu egin beharko genukeela erabakitzeko hemendik aurrera zer egin behar dugun nahitaez modu sinkronikoan (denok batera eta aldi berean) eta zer modu asinkronikoan (bakoitzak bere kabuz).

Irakaskuntza pertsonalizatuak tutoretza pertsonalizatura garamatza. Tutoretza pertsonalizatua oso estrategia eraginkorra da. Ikasleari ikasteko eta garatzeko lagunduko dion gogoeta-espazio moduan ulertzen dugu. Pertsona-eredua erreferentzia izanik, ikasle bakoitzari non dagoen ikusten laguntzen dio eta erabakiak arduraz eta askatasunez hartzen ikasten du.

### **PERTSONAREN GARAPEN EBOLUTIBOA** **AINZAT HARTU BEHAR DUGU** **GEURE ESKU-HARTZE PEDAGOGIKOAN**

Hezitzaile lanetan dihardugun helduok jabetu behar gara pertsonaren garapenak hainbat alderdi kontuan hartzen dituela (fisikoa eta motorra, kognitiboa, emozionala eta soziala, linguistikoa...), eta adinaren arabera, haur eta gazteen jokaeretan zein psikologian aldaketak gertatzen direla. Horrek eskatzen du jarduerak zein jardueren jarraipena haur edo gazteen etapa ebolutiboak aintzat hartuta egitea, eta geure esku-hartze pedagogikoa haur edo gazteek une jakin bakoitzean zer eman dezaketen kontuan hartuta antolatzea. Horrek lagunduko digu espektatiba faltsuak eta alferrikako frustrazioak ekiditen.

Esandakoa ahal den modurik argienean azaltzeko, oraingoan ere adibide bat baliatuko dugu, irakurle. Planifikatzen ikastea da bizitzarako gakoetako bat, eta garunaren funtzio betearazle edo exekutiboekin lotuta dago. Izan ere, nerabeei planifikatzen ikasteko eskatzen diegu, dela norbere ikaskuntza-prozesua, dela talde-proiektu bat, dela beste edozein proiektu. Baina kontuan hartu beharko genuke nerabeen garuna oraindik heltzen ari dela, aldaketa sakonak jasaten ari dela eta adin horietan errendimendua baxuagoa izan ohi dela kontzentrazioa eskatzen duten zereginetan, bulkaden inhibizioan

eta abarretan. Batez ere egin beharrekiko interesik edo motibaziorik ez dutenean, noski. Beraz, nerabeak bere bizitzaren etapa horretan planifikatzen ikastea interesgarria ez ezik beharrezkoa ere bada, baina hezitzaileak garbi izan behar du nerabeak ezingo duela helduaren neurri berean egin.

### **IKAS-PROZESUA AHALBIDETZEN DUTEN** **BALDINTZAK SORTZEN LAGUNTZEN DUTE** **OREKA EMOZIONALAK ETA AUTOIRUDI DOITUAK**

Oreka emozionalaz ari garenean, eguneroko bizitzan behar besteko motibazioz, lasaitasunez eta eraginkortasunez jarduteaz ari gara. Oreka emozionalak bizitzaren ohiko tentsioei aurre egitea ahalbidetzen digu, egoerek gaintitzen gaituztela sentitu gabe, eta bestalde, bestekin behar bezala erlazionatzeko edota gure egitekoak egoki betetzeko aukera ematen digu. Batzuetan, hainbat arrazoi direla eta, apurtu egiten da barne-oreka hori, eta urduritasunak, beldurrak, motibazio-faltak eta bestelako emozioek gaina hartzen diote orekari. Horrelakoetan asko laguntzen dute barrura begiratzeak, emozioak eta emozioen atzean dagoena identifikatzeak eta autozaintetarako zenbait neurri hartzeak. Horretan ere, helduok, geure haur eta gazteentzako eredu garen neurrian, barne-sendotasunean oinarriak finkatzeko hazia ereiten ari gara.

Eta oreka emozionala bezain garrantzitsua da autoirudi doitua izatea. Autoirudi doitua zer den? Begira, guztiok dugu geure buruari buruzko irudi bat eta irudi horrek eragina du gure bizitzan, baita hezitzaileon kasuan ere. Alde horretatik, autoirudi doitu bateranzko ibilbide pertsonala egiten dugun heinean, geure haur eta gazteei euren ibilbide propioa egiteko estrategiak eskaintzen joan gaitezke. Izan ere, nekez eraman baitaiteke inor norbera iritsi ez den lekura.

Autoirudi negatiboa dugun pertsonok erlatibizatu edota neutralizatu egiten dugu besteek gudan positibotzat

---

*Guztiok dugu geure buruari buruzko irudi bat eta irudi horrek eragina du gure bizitzan, baita hezitzaileon kasuan ere.*

---

jotzen dutena. Arreta gehiena geure mugetan, falta zaigun horretan jartzen dugu, eta gutxietsi egiten dugu geure burua. Hori gertatzen denean, geure burua zalantzan jartzen hasten gara, zalantza gugan instalatuta geratzeraino. Kosta egiten zaigu geure buruarengan konfiantza izatea, ez baitugu geure baitan heldulekurik topatzen. Paradoxa dirudien arren, autoirudi negatiboa dugunokin eman beharreko lehen pausoa hauxe da, geure buruari buruz dugun irudia negatiboa dela onartzea. Bigarrena, berriz, beste zerbaiteko aukera ere badugula ametitzea, hori baita negatibotasun horretatik irteteko bidea.

Autoirudi gainbaloratua dugunok, berriz, geure burua gainerakoen gainetik jartzen dugu, eta besteek ere hala ikus dezaten nahi izaten dugu, arrakasta soziala geure bizitzaren helburu bihurtuta. Kasu hauetan ere onarpena da aldaketarako lehen urratsa, eta ez da beti erraza izaten. Asko laguntzen digu porrot egiten dugunean berriro arrakasta izaten ez saiatzeak, eta sakontasunez hausnartzeak zerk eramaten gaituen arrakasta lortu behar horretara. Bigarren urratsa da kosta ahala kosta besteen gainetik agertu behar hori gaingaitzen ikastea.

Autoirudi doitua haurtzaroaren ondoren eraikitzen dugu, haurtzaroan, ezinbestean, inguruan ditugun helduen begiradatik eraikitzen baitugu geure autoirudia. Haurtzaroaren ondoren, berriz, geure garen errealitatetik abiatuta eraikitzen dugu autoirudi doitua. Autoirudi doitua duen pertsonak bere gaitasunak eta aldi berean mugak ikusten ditu, eta ez du ez batzuk ez besteak aitortzeko arazorik.

Beraz, hezitzaileon zein geure ardurapean ditugun haur eta gazteen oreka emozionala eta autoirudi doitua zaintzea eta lantzea funtsezko eginkizunak dira, ikas/irakas-prozesu eraginkor baterako baldintzak ez ezik guztion ongizaterako elikagai ere badirelako.

### **DENOK DUGU IKASTEKO GAITASUNA TESTUINGURU BEREAN ELKARREKIN LAN EGINEZ**

Denok dugu ikasteko gaitasuna, elkarri ekarpena egiteko gaitasuna eta elkarrekin proiektu bat eraikitzeko gaitasuna. Horretarako, elkarrekin eta testuinguru berean lan egin behar dugu.

Testuinguru horrek, halaber, pertsona bakoitzari bere garapenean ahal den urrutien iristea ahalbidetu behar dio. Izan ere, geure haur

eta gazte guztiek hezkuntza-premia propioa eta berariazkoak dituzte eta premia horien jatorrian desberdintasun kulturalak, sozialak, generokoak edota pertsonalak egon daitezke. Baina gakoa ez dago desberdintasunetan, ikasle horiei egiten zaien hezkuntza-eskaintzaren baitan desberdintasunarekiko dagoen pertzepzioan baizik. Hautu curricularrak, eskola-antolaketa, ikaskuntzarako eskaintzen diren estrategiak, irakasleen espektatibak, familiarekiko harremanak, parte hartzeko bideak... Hauek guztiak dira ikasleen ikaskuntza ahalbidetu edo oztopa dezaketen faktoreak.

Ikuspegi inklusibo batetik, ikastola bakoitzeko hezkuntza-komunitatea osatzen duten haur eta gazte guztiek elkarrekin ikastea planteatzen dugu, euren baldintza pertsonalak, sozialak, kulturalak... edozein direla ere. Denok elkarrekin, elkarrengandik eta testuinguru berean ikastearen aldeko ikuspegi horrek ikastolaren egitura, funtzionamendua zein proposamen pedagogikoa moldatzea eskatzen du, ikasle guzti-guztiei erantzuteko eta guztiek arrakasta-aukera izan dezaten.

### **ELKARREKIN IKASTEN DUGU HIZKUNTZAREN, PENTSAMENDUAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN BIDEZ**

Bestela esanda, izaki sozialak garen aldetik, elkarrekin jarduten dugu eta ezagutzak ere elkarrekin eraikitzen ditugu, eta horretarako, hizkuntza behar dugu. Hizkuntza funtsezko tresna da pentsamendua eraikitzeko eta komunikazioa ahalbidetzeko. Zenbat eta trebetasun linguistiko handiagoa izan, orduan eta hobeto pentsatu eta komunikatuko dugu.

Hitz egiteko kultura eta komunitate-kultura ikastola osora zabaltzen dugun neurrian, ikasle guztiei lagunduko diegu pentsamendua eraikitzen eta beraz komunikatzen. Betiere modu kontzientean egiten badugu, helburuak jarrita eta sistematikoki, hizkuntzaren bitartez pentsamendua

---

*Denok dugu ikasteko gaitasuna, elkarri ekarpena egiteko gaitasuna eta elkarrekin proiektu bat eraikitzeko gaitasuna. Horretarako, elkarrekin eta testuinguru berean lan egin behar dugu.*

---



---

*Izaki sozialak garen aldetik, elkarrekin jarduten dugu eta ezagutzak ere elkarrekin eraikitzen ditugu, eta horretarako, hizkuntza behar dugu.*

---



eraikitzen lagunduz eta, halaber, pentsamenduaren bitartez hizkuntza aberastuz, espezializatuz eta zehaztuz.

Eremu formalean, ideia zein den garbi ikusten da bi eratako elkarreraginetan: batetik, hezitzaileek kudeatutako elkarreraginetan; bestetik, berdinen artean kudeatutakoetan, esaterako, talde kooperatiboetan. Garbiago esanda: talde kooperatiboetan, batak besteari gertaerak adieraziz, ideiak arrazoituz, azalpenak emanez... denok ikasten dugu. Azalpena jasotzen duenak, dakienarekin loturak egiten ariko delako; azalpena ematen ari denak, berriz, kideei ulertarazteko eta kideen galderei erantzuteko dakien horretan sakonduko duelako. Ikasleak elkarren artean ari direnean ere halaxe gertatzen da. Esan ohi da, eta ez alferrik, benetan frogatzen dugula zerbait badakigula zerbait hori beste bati azaltzeko gai garenean.

Ikasleen arteko eragina helduak kudeatzen duenean, alegia, irakasleak ikasleen arteko elkarrizketak helburu jakin bati begira bideratzen dituenean, hainbat estrategia baliatzen ditu. Adibidez, ikasleek arrazoietan oinarritutako diskurtso bat eraiki dezaten, honelako galderak egiten ditu: nola egiten da...? Zergatik egin behar luke hori? Nola liteke dena delako hori gertatzea? Zer egingo zenuke baldin eta...? Irakasleak hitz hartzeak ere helburuaren arabera modu batera edo bestera kudeatu ditzake. Esaterako, helburua ikasle guztiei hitza ematea bada, estrategia batzuk erabil ditzake; aldiz, helburua gaiari eustea, sakontzea eta aberastea bada, beste batzuk.

Finean, zera proposatzen ari gara: kontzienteki praktikara eramatea eta frogatzea hizkuntzaren, pentsamenduaren eta komunikazioaren bidez elkarrekin ikasten dugula.

### **HIERARKIEN ERAGINA TALDEEN OSAERAN, OREKAN ETA KUDEAKETAN**

Taldea dagoen unetik beretik hierarkiak sortzen dira pertsonen artean, eta hezitzaile batek hori kontuan hartu behar du taldeak osatu, orekatu eta kudeatzeko garaian.

Hierarkiako maila gorenean daudenek besteek baino lorpen gehiago edota erakargarritasun handiagoa izaten dute. Horrela, bi nagusitasun edo dominantzia mota sortzen direla esan genezake. Bata, lider edo menderatzaile bakezalearena, taldeak aitortua; bestea, berriz, menderatzaile oldarkorrarena, era bateko edo besteko eraso bidez

gailentzea lortzen duenarena. Menderatzaileak dauden unetik beretik menderatuak ere badaude, eta horien artean ere badira modu bakezalean edota oldarkorrean jarduten dutenak. Hierarkia horretan, azken batean, parekideekin duten jokatzeko modua eta dominantzian duten lekua ikus ditzakegu. Sailkapen hauek modu dinamikoan ulertu behar dira; izan ere, pertsonari eskaintzen zaizkion testuinguruaren eta laguntzaren arabera, lidergo berriak sor daitezke edota hainbat portaera oldarkor gutxitzen joan daitezke. Bestalde, kohesioa bera lantzeko berariazko uneekin eta jarduerekin batera, profil hauek guztiak aintzat hartzeak talde-kohesioa sendotzen lagundu dezake.

### **ESKOLA, HAURRAREN ETA GAZTEAREN HEZIKETARAKO BERARIAZKO ERAKUNDEA IZANIK, GATAZKA KOGNITIBOAK SORTZEKO GUNE PRIBILEGIATUA DA**

Beharbada, irakurle, zeure buruari galdezka ariko zara zer ote diren gatazka kognitiboak. Begira, gatazka kognitibo delakoak sortzen dira gure ideia eta ikuspuntuak zalantzan ipintzen dituzten informazioak jasotzen edo esperientziak bizitzen ditugunean. Horrek gure ideiak eta ikuspuntuak errebisatzera behartzen gaitu, eta, ondorioz, pentsamendua sendotzen du.

Gatazka kognitiboak sortzeko gune paregabea da eskola. Horregatik, gatazka horiek kudeatzeko estrategiak eskaini behar dizkie ikasleei. Hona hemen horietako batzuk:

> Metodologia aktiboek gatazka kognitiboak sortzeko aukera ematen dute eta, gainera, goi-mailako pentsamendu-trebetasunak aktibatzen dituzte. Adibidez, PBLak edo ikaskuntza-zerbitzua. PBLetan (izena *problem-based learning* ingelesko kontzeptuaren sigletatik datorkie, hau da, arazoetan oinarritutako ikaskuntza) ikasleek taldean lan egiten dute, irakasleak planteatutako erronka edo arazo bati soluzioa bilatu nahian.

*Taldea dagoen unetik beretik hierarkiak sortzen dira pertsonen artean, eta hezitzaile batek hori kontuan hartu behar du taldeak osatu, orekatu eta kudeatzeko garaian.*

- > Ebaluazioak izan behar du irakaskuntzaren diseinuaren ardatza eta ikaskuntzaren motorra, ikasleak jakin behar duelako uneoro ikas-prozesuan non dagoen, nora iritsi behar/nahi duen eta zein den horretarako egin behar duen bidea.

---

- > Komunikazio multidirekzionala, alegia, komunikazioa ez dadila goitik beherakoa edo alde bakarrekoa izan. Horretarako, komunikazio-egoerak sortzea ezinbestekoa da, horrek ziurtatzen baitu ikasleek gelan landutakoa barneratuko dutela. Horrek sekuentzia bat jarraitzen du: egin-antolatu-azaldu-argudiatu. Hari horretatik tiraka, interesgarria izan daiteke geure praktika pedagogikoan hitza zenbateraino banatzen dugun hausnartzea. Komunikazio multidirekzionala bultzatzen dugun edota saioa monopolizatzeko joera dugun. Izan ere, ikasleek egin, antolatu, azaldu, argudiatu, kuestionatu, sortu... dezaten bilatzen badugu, entzun ez ezik hitz ere egin behar dute.

---

- > Metakognizioa da ikasleek berek zer eta nola ikasi duten kontzientzia. Eginez eta egindakoaren inguruan hausnartuz ikasten dugunez, funtsezkoa da ikasleekin ditugun saioetan metakogniziorako tarreak gordetzea.

---

- > Hizkuntzaren ezagutza garatzeko bideak behar dira. Hizkuntzak kontzeptuak ulertzen laguntzen digu. Halaber, kontzeptuak ulertu eta azaltzen ditugun neurrian, ezagutzetan aurrera egiten dugu. Beraz, hizkuntzaren ezagutza garatzeko bideak premiazkoak dira.

---

- > Galdera irekiek *liskarrizketak* sor ditzakete, edo iritzi desberdinen metatze hutsak. Horrek, berez, ez digu ikaskuntza eraikitzen laguntzen, ez baitu ikasle guztien arteko oinarri komunik eraikitzen. Aldiz, galdera irekiak elkarrizketa esploratzaileen bidez egiten baditugu, orduan bai, lagungarriak dira. Alegia, galdera irekiak behar ditugu ezagutza elkarren artean eraikitzeko edota kuestionatzeko.

---

### **EZAGUTZA BERRIAK PERTSONAREN GARAPEN-ZONALDE HURBILETIK ERAIKITZEN DITUGU**

Informazio berria aurretik ditugun ezagutzekin erlazionatu ezin dugunean, gehiago kostatzen zaigu informazio hori gogoratzea. Horregatik, nahiz eta inork pentsa dezakeen ikasleek aurrezagutzak aktibatzeari tarte bat eskaintzea denbora galtzea dela, ebidentziek kontrakoa erakusten dute: aurrezagutzak mobilizatzen ditugunean,

ezagutza berriak modu eraginkorragoan eskuratzen ditugu.

Ezagutza berriak eraikitzeko azalpena ikaslearen garapen-zonalde hurbil kokatu behar dira. Zer da ikaslearen garapen-zonalde hurbila? Bada, begira, irakurle, ikasleak badu berak bakarrik ikasteko gaitasun bat, baina, lagunduta, gaitasun hori handitu egiten da, ez muga-gabe, ordea. Bakarka ikas dezakeenaren eta lagunduta ikas dezakeenaren artean dago garapen-zonalde hurbila. Ezagutza berriak eraikitzeko azalpena ikaslearen garapen-zonalde hurbil kokatzen ez bada, ikasle horrek memorizatu baino ez du egingo, ulertu gabe, eta oso zaila izango da informazio hori behar duenean gogoratzea eta, are zailago, erabiltzea. Aitzitik, azalpena edo laguntza garapen-zonalde hurbilean jasotzen badu esperientzia gehiago duen heldu edo ikaskide baten bidez, ikasleak berak bakarrik ikasi ezingo lituzkeen gauzak ikasiko ditu.

Bestela esanda, pertsonak ikasten ditu berak bakarrik ikasi ezingo lituzkeen gauzak, baldin eta planteatzen zaion erronka beretzat eskuragarria bada, aurretik dakienearekin lotuz ezagutza eraiki dezakeelako. Horrela, ezagutza-eremu berriak konkistatzen doa, eta gatazka kognitibo berriak aurkezten zaizkion heinean, ikaskuntza berriak egingo ditu eta arazo berriei aurre egin ahal izango die.

### **INFORMAZIO BERRIA INTEGRATZEN DUGU LEHENDIK DAKIGUNAREKIN KONEKTATUZ**

Norbere esperientziatik abiatuta, konexioak maila semantikoan edo esanahi mailan gertatzen dira. Alegia, ohartzen garenean ikasten ari garen horrek lehendik dakigunarekin hainbat ezaugarri, testuinguru edota kausa-ondoriozko harremanak dituela (Ruiz, 2020). Adibidez, kostatzen da egin dakiguke Izarraitz eta Izazpi mendien izenak gogoratzea, baina demagun Joxe Miel Barandiaranek bildutako ipuin hura ezagutzen dugula... Izarraitz mendiak Izazpiri galdetu omen zion: “Hi zer haiz?”. Eta

*Ezagutza berriak eraikitzeko azalpena ikaslearen garapen-zonalde hurbil kokatzen ez bada, ikasle horrek memorizatu baino ez du egingo, ulertu gabe, eta oso zaila izango da informazio hori behar duenean gogoratzea eta, are zailago, erabiltzea.*

Izazpik erantzun: “Hi bezalako zazpi”. Ipuina ezagututa, Izarraitz eta Izazpi izenak, beste testuinguru batean ere, errazago gogoratuko ditugu.

Informazio berria aurretik ditugun ezagutzekin erlazioz ezin dugunean, berriz, gehiago kostatzen zaigu gogoratzea. Horregatik, gai baten inguruan zenbat eta ezagutza esanguratsuagoa izan (alegia, esanahien bidez konektaturiko ezagutza izan) orduan eta ezagutza berri gehiago eraiki dezakegu. Ikerketek erakutsi digute informazioa ez dugula ikasten errepikapenaren errepikapenez. Izan ere, ideia berriei esanguratasuna geuk aurrez dakigunaren argitan ematen diegu. Horren adibide izan daiteke pasahitzak gogoan hartzeko egiten dugun ahalgina. Pasahitza memorian gorde nahi baldin badugu, modu aktiboan pentsatu beharra daukagu, ezagunak zaizkigun patroiak erabiliz edota zenbakien arteko erlazioak eraikiz. Horixe da, hain zuzen ere, ikaskuntza aktiboaren oinarrian dagoen mekanismoa, ikasten ari garenez aktiboki pentsatzea, esanguratasuna emanez eta aurrez dakigunarekin alderatuz. Batzuetan, ordea, ikaskuntza aktiboa jarduera manipulatioagoekin eta, oro har, gauzak egitearekin nahastu ohi dugu. Ikaskuntza aktiboan oinarritutako edozein jardunetan, ikasten ari garenen inguruan hausnartzeko tarreak hartzen ditugula bermatu behar dugu, hemen baitago azken finean irakastearen eta ikasten laguntzearen arteko aldea.

### **AKATSA, EKIDIN EZINA IZATEAZ GAIN, AUKERA PAREGABEA DA IKASTEKO**

Nola bizi dugu akatsa, ordea, hezitzaile lanetan gabiltzanok? Zuk zeuk nola bizi dituzu zure akatsak, irakurle? Eta zure ikasleenak edo seme-alabenak? Zer egiten duzu akats baten aurrean? Akatsa sarri ekidin beharrekotzat jo izan da ikas/irakas-prozesuan. Ikasleak akatsaren zergatia ulertzen duenean, berriz, urrats garrantzitsua egiten du bere ikaskuntzan. Beraz, ikasten ari den pertsonaren bidelagun gisa dihardugunok ulertu egin behar dugu erantzun edota emaitza guztiak ez direla berdinak,

baina erantzun edo emaitza akastunek ere ezagutza bera eraikitzea eraman gaitzaketela. Horrek eskatzen du ikasleek eurek ideiak eta erantzunak, erabat zuzenak ez izanda ere, askatasunez eta beldurrik gabe adierazteko giroa sortzea gelan. Azken batean, kontua zera da, ikasleen erantzunen arrazonamendu-logika ulertzea eta hori garatzeko estrategiak eskaintzea.



### **ARRAKASTA BERMATZEA EZINBESTEKOA DA PERTSONA GARATU AHAL IZATEKO**

Hezkuntzan arrakastaz ari garenean, zertaz ari gara? Bada, ikasleari jartzen zaizkion ikas-helburuak garapen integral harmoniko baten barruan lortzeaz. Eskola-porrota normaltzat jotzen duen ikuspegiaren kontrakoa da gurea. Arrakastaren garrantziaren ikuspegia printzipio batean oinarritzen da: arrakasta da edozein jardueraren aurrean dagoen motibazio-faktore nagusia, pertsonaren barruko dinamismoa mugitzen duelako. Ikasteko aukerak izateaz gain, funtsezkoa da arrakasta minimoa izatea. Ez gara zailtasunak ezkutatzeari, ez baitago zailtasunik gabeko arrakastarik, besteak beste, motibagarria izan dadin nahiko erronka suposatuta behar baitio ikasleari. Gakoa zailtasun-maila pertsonaren lorpen-eremuan kokatzean datza. Geure haur eta gazteei euren ikaskuntza-ibilbidean sortzen zaizkien zailtasunak euren kabuz konpondu ahal izateko eskaini beharreko laguntzaz ere ari gara.

*Arrakasta da edozein jardueraren aurrean dagoen motibazio-faktore nagusia.*

### **HELDUON MODELATZE- ETA ALDAMIATZE-LANAREN GARRANTZIA**

Ez dugu eginez bakarrik ikasten, helduon modelatze- eta aldamiatze-lana garrantzitsuak dira. Izan ere, ikasten dugunaren zati handi bat besteek egiten dutena eginez edota besteei entzundakotik ikasten dugu. Azken batean, modelatzea zera da, ikaslearen arrazonamendua gidatzeko eredu esplizituak eskaintzea. Modelatze-lana hainbat alderditatik egin daiteke:

*Ulertu egin behar dugu erantzun edota emaitza guztiak ez direla berdinak, baina erantzun edo emaitza akastunek ere ezagutza bera eraikitzea eraman gaitzaketela.*

- > Jarduera jakin batek zer ezaugarri izan behar duen adieraziz. Esaterako, testu bat adibide gisa erabiltzen dugunean, bere indarguneak eta hobetu beharrekoak azpimarratuz.

---

- > Jarduera bat nola egin behar den azalduz. Adibidez, matematikako ariketa baten ebazpenerako geuk eman ditugun urratsak azaltzen ditugunean edota testu bat abiapuntu hartuta kontzeptu-mapa osatzen dugunean.

---

- > Hezitzaileok, diziplina jakin bateko aditu gisa, egin beharreko jarduerak nola ebazten ditugun azalduz eta horretarako erabili ohi ditugun estrategia kognitiboak ikasleekin partekatuz.

---

- > Geure jarreraren bidez modelatuz edota geure akatsak nola kudeatzen ditugun erakutsiz.

---

- > Ikasten ari direnari zentzua emateko eta irudikatzeko kontzeptu-mapak, diagramak, animazioak, material manipulatioa... erabiliz.

---

Azken batean, modelatzeaz ari garenean, adibideak jar-tzeaz ari gara. Modelatze horretatik konkretuaren (adi-bidea) eta abstraktuaren (kontzeptua, prozedura...) arteko lotura esplizitua egiten dugu.

### FEEDBACKA, TRESNARIK ERAGINKORRENETAKOA

*Ondo aukeratu behar dugu feedback emateko unea, modua, bidea...*

Feedback kontzeptu ingelesa, aspaldion oso erabilia alor askotan, 'atzerelikadura' edo 'berrelikadura' gisa itzul daiteke. Elikadura, kasu honetan, metafora bat da. Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan, elkar elikatzen dute, baita ikasleen artekoetan ere. Are gehiago, norbera bere buruarekin ari denean ere feedbacka sortzen da. Feedbacka tresna eraginkorrenetakoa da ikasleak egin-dakoaren kontzientzia hartzeko, lagungarri izan zaiona finkatzeko, hobetu beharrekoa identifikatzeko, horretarako estrategiak definitzeko eta abarretarako.

Horrek eragin zuzena du ikasleak zereginetan izango duen motibazioan. Horrexegatik feedbacka noiz eta nola

bideratu hausnartu beharra daukagu hezitzaileok. Feedbackak funtziona dezan zera lortu behar dugu, ikasleak feedbackari beldurrik ez izatea. Horretarako, ikasleak feedbackarekiko izan ditzakeen aurreiritziak landu behar ditugu, batetik, eta, bestetik, ondo aukeratu behar ditugu feedbacka emateko unea, modua, bidea...

### ESPAZIOAREN ETA DENBORAREN ANTOLAKETA IKASKUNTZA-PROZESUAREN ZERBITZURA JARRI BEHAR DA, EZ ALDERANTZIZ

Hainbat adituk esan digute espazioa eta denbora ikas-kuntza-prozesuaren zerbitzura diseinatzeak eta erabil-tzeak palanka modura funtziona dezaketela. Espazioa eta denbora ikaskuntza-prozesuari begira antolatzen ez direnean, berriz, oztopo izan daitezke.

Gaur egun, neurozientzien ikuspegitik neurohezkuntzaz eta neuroarkitekturaz hitz egiten da, espazioa nolakoa den eta nolakoa izan behako lukeen aztertzeko.

Asko dira espazio eta denboraren antolaketan aldaketa esanguratsuak egin dituzten ikastolak. Prozesuan kontu-ratu gara alor horretan ere erronka berri baten aurrean gaudela, espazio eta denboraren antolaketa berrasma-tu egin behar dugula, irakaskuntzari begira egon orde-z ikaskuntzari begira egon daitezen. Helburua da hezkun-tza-komunitateko kide guztiek (ikasle, irakasle, familia eta herri-eragileek) euren tokia izatea, eta elkarlanean jardun ahal izatea, ikaskuntza arautuan zein arauz kan-pokoan, modu eroso eta seguruan.

Alde horretatik, interesgarria da eskola hedatuaren kontzeptua. Izan ere, dagoeneko hainbat herrialdetan, eskolek beren hezkuntza-eremuak ikastetxetik kanpo ere badituzte, praktikak eskaintzen dituztelako herriko hainbat lantegi eta dendekin adostuta, gobernuz kanpo-ko hainbat erakundetan edo, besterik gabe, mundu digi-tal eta sare sozialetan.

# GOGOETAN LAGUNTZEKO GALDERAK



[A]

Zertarako balio du, zure ustez, printzipio pedagogiko batzuk adostuta izateak?

[B]

Hemen azaldu ditugun printzipioekin bat egiten duzu? Zertan?

[C]

Beste printzipioren bat gehituko al zenuke?

[D]

Bibliografian printzipio pedagogikoei eskaintzen dizkiegun erreferentzietatik (ikus 141. or.) zein aukeratuko zenuke? Zertan lagunduko lizukeela uste duzu?

The image shows an open notebook with two blank, lined pages. The pages are white with horizontal red lines. The notebook has rounded corners and is set against a dark red background. The pages are completely blank, with no text or markings.




4.2.

## HEZKUNTZA-ILDOAK

Printzipio psikopedagogikoak geure praktika pedagogikoa orientatzen eta sostengatzen duten oinarri teorikoak dira. Hezkuntza-ildoak, berriz, definitu dugun pertsona-ereduari begirako hezkuntza-ildo estrategiko orokorrak. Eta jarraian agertzen diren hezkuntza-ildoak definitzeko aurreko atalean azaldu ditugun printzipio pedagogikoetan oinarritu gara.

**10**  
HEZKUNTZA-ILDO



Hezkuntza-ildoak hainbat faktoreren baitan eraikitzen dira (irakaslearen rola, espazio eta denboraren antolaketa...) eta, nolabait esateko, gure hezkuntza-ereduaren lehen zehaztapen-maila dira. Hemen-dik eratoritzen dira ikasmaila edota bestelako eremuetarako aukera metodologikoak; hala nola, ikaskuntza kooperatiboa, komunikazio ez-bortitza edota ikaskuntza-zerbitzua.

Ikastolen Hezkuntza Marko Orokor honetan hamar hezkuntza-ildo definitu ditugu:

EUSKALDUNTASUNEAN ARDAZTUTAKO HEZKUNTZA-EREDUA

GARAPEN PERTSONALA

IKUSPEGI ETA ESTRATEGIA INKLUSIBOAK

ERABAKITZEKO GAITASUNA GARATZEKO TESTUINGURUAK

BERDINEN ARTEKO IKASKUNTZA

EBALUAZIO HEZITZAILEA

IRAKASKIDETZA

TESTUINGURU ERREALETAN ETA IKERKETA-EKINTZAN OINARRITUTAKO DINAMIKA GLOBALIZATUAK

HEZKUNTZA-KOMUNITATE KOHESIONATU, BIZI ETA SENDOA

EBALUAZIOAREN KULTURA

## EUSKALDUNTASUNEAN ARDAZTUTAKO HEZKUNTZA-EREDUA

Ikastolon izaeran eta nortasunean dago euskararen eta euskal kulturaren transmisioarekin daukagun konpromisoa: Euskal Curriculumaren beharra aldarrikatuz, tokiko ezagutza eta testuinguruak eskainiz, euskaldun izatearen ikuspegi zabala jorratuz, kultur aniztasunaren garrantziari eta aberastasunari erreparatuz, euskararen ardatzuriko eredu eleanitza gauzatuz eta abar.

Marko honetan bertan pertsona-ereduaren lehen-lehen bereizgarrian adierazi dugu pertsona euskaldunak hezi nahi ditugula: euskal hiztun osoak, euskal kultura ezagutu eta bizi dutenak, eta eleanitzak. Eta horretarako Ikastolak izan behar du euskaraz bizi den eta euskara eta euskal kultura bizi dituen ekosistema.

---

**Pertsona-ereduaren lehen-lehen bereizgarrian adierazi dugu pertsona euskaldunak hezi nahi ditugula: euskal hiztun osoak, euskal kultura ezagutu eta bizi dutenak. Horretarako, Ikastolak izan behar du euskara eta euskal kultura bizi dituen ekosistema.**

---

Ekosistema hori, hizkuntzari dagokionez, gero eta anitzagoak garen pertsonok osatzen dugu. Orain dela urte batzuk, etxeko hizkuntzaren arabera ikasleak sailkatuz gero, gehienak hiru taldetan banatuko genituzke: etxeko hizkuntza euskara zutenak, etxeko hizkuntza gaztelania edo frantsesa zutenak eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania/frantsesa zutenak. Gaur egun, aipatutako tipologia horietaz gain, gero eta ikasle gehiago dugu etxeko hizkuntza euskara edo gaztelera/frantsesa ez den beste hizkuntza bat duena: errumaniera, arabiera, urduera... Bestalde, etxeko hizkuntza edozein izanda ere, ikasleen ingurune hurbilean eta aisian dagoen euskarak ere eragiten du hizkuntza aniztasunean (kirol ekintzetan, ikus-entzuzkoetan, sarean eta abarretan); eta euskara mailan.

Ikastola den ekosistema hori, euskaraz eta euskara ikasteko, harremanak euskaraz izateko eta euskararekiko nahiz euskal kulturarekiko atxikimendua bizitzeko testuinguru garrantzitsua da, hizkuntza gutxitu baten murgiltze-eredua gertatzen den testuinguru pribilegiatua.

Horregatik, ikasleek ikastolako egunerokoan bizi dituzten egoera/une guztiak hartzen ditugu euskara ikasteko, erabiltzeko eta bizitzeko aukera gisa: gelako ekintzak, jolas-garaiak, bazkalorduak, eskolaz kanpokoak eta abar. Zein-nahi une edo gune egokiak direlako halako hizkuntz esapideren zabalkundea indartzeko, halako hizkuntz jarraera-portaera bideratzeko edo sakontzeko, halako kultur adierazpen ezagutzeko eta abarrerako. Izan ere, ez gara “euskaldun” jaiotzen, familia euskaldun batean jaiota ere; “euskaldun” bihurtu egiten gara komunitate, talde, kultura euskaldunean parte hartuz. Euskaraz parte hartuz eta euskal kulturaren parte hartuz, euskara ikasten dugu eta euskararekiko atxikimendua garatzen dugu. Eta bi alderdiak dira prozesu baten parte eta ondorio.

Gure murgiltze-ereduak badu beste ezaugarri bat, euskaraz gain beste bi-hiru hizkuntza ere irakasten direla ikas-toletan: gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Beraz, ikuspegi horretatik, hizkuntza gutxitu baten murgiltze-eredu eleaniztuna dela gurea esan genezake. Eta horregatik

ditugu gaztelararen, frantsesaren eta ingelesaren erabileraren esparruak eta ikaskuntza-helburuak finkatuta.

Jakina da hizkuntzaren jabeak prozesu luzea dela, inoiz amaitzen ez dena. Eskolarizazioaren hasierako etapetan oso modu nabarian ikusten da ikasleak nola jabetzen diren hizkuntzaz. Adinean gora egin ahala, ikasleek hizkuntzekin gero eta gauza konplexuagoak egin behar dituzte, eta horrek eskatuko die hizkuntza horiez duten jabetze-maila zabaltzea eta sakontzea. Edozein hizkuntzaz jabetzeko behar ditugu hizkuntza hori entzutea, irakurtzea, eredu onak izatea, erabiltzeko egoerak izatea –ugariak, askotarikoak eta benetakoak–, esaten dugunarekiko interesa duten solaskideekin elkarrizketan aritzeko aukera izatea eta abar. Horregatik, hezitzaileok ondo aztertu behar ditugu gure egiteko moduak eta ikasleek hizkuntza erabil dezaten egoera aberatsak sortu eta elkarrekintza diseinatu. Aurreikusitako ere bai, ahal den neurrian, ikasleek zer zailtasun izango duten eta horri aurre egiteko tresnak eman (hiztegia, egiturak, testu-ereduak, prozedurak eta abar). Eta koherentzian esku hartu.

Euskararen ardazturiko eleaniztasuna bideratzeko, hizkuntzen trataera integral eta integratuan oinarritzen dugu hizkuntzen irakaskuntzari begirako gure praktika, hizkuntzen arteko harremana zainduz, batetik bestera transferitzeko gaitasunak landuz eta errespetuzko begirada bat sustatuz. Hizkuntzen arteko transferentzia diogunean, zera esan nahi dugu: hizkuntzari dagozkion hainbat alderdi berdinak direla hizkuntza guztietan eta horiek hizkuntza jakin batean ikasita, beste hizkuntzetera transferitu ditzakegula. Jakina, hizkuntza bakoitzean hiztegi desberdinarekin gauzatzen direla, baina gauzatu egiten dira. Adibidez, etxean ipuinak gaztelaniaz kontatu izan dizkioten haurrak, ipuinak zer diren ideia bat izango du, pertsonaia batzuk daudela, horiei arazoren bat gertatzen zaiela, konpontzeko zerbait egin behar dutela, eta abar. Ikastolan ipuinak euskaraz kontatzen dizkiotenean, euskarazko hiztegia falta izango duen arren, ipuinei buruz dakiena erabiliko du euskarazko ipuina ulertzeko.

---

***Ikasleek ikastolako egunerokoan bizi dituzten egoera/une guztiak hartzen ditugu euskara ikasteko, erabiltzeko eta bizitzeko aukera gisa: gelako ekintzak, jolas-garaiak, bazkalorduak, eskolaz kanpokoak eta abar.***

---



---

***Ez gara 'euskaldun' jaiotzen, familia euskaldun batean jaiota ere; 'euskaldun' bihurtu egiten gara komunitate, talde, kultura euskaldunean parte hartuz.***

---

Hizkuntzaren beraren baitan ere, berau egoera batzuetan erabiltzetik beste egoera batzuetan erabiltzeko transferentzia egiten ere lagundu behar zaie ikasleei. Euskararen kasuan asko zaindu beharreko kontua da hori. Adibidez, jolaserako hizkuntza landu dezakegu “gela barruan” (abesti eta errimak, jolasa antolatzekeo hizkuntza-egiturak eta moduak), eta euskara aisialdian ere erabiltzeko ohitura sortze edo bermatze aldera, jolas-garaian erabil dezaten transferitzen lagunduko diegu ikasleei, dela hezitzaileekin koordinatuz bazkaldu ondorengo jolasetan erabiltzeko, dela familiekin lankidetzan etxean, dela herriko beste erakunde batzuekin elkarlanean ikastolaz kanpoko bestelako jardueretan eta aisialdian ere erabilera bultzatuz.

Euskalduntasunak euskaratik eta euskal kulturatik edaten du, iturri zaharretik ur berria edan ere. Eta Euskal Herritik, euskaratik eta euskal kultura transmititzeko konpromisotik sortzen ditugun ikasmaterialetan (EKI, KIMU, KUKU...) euskal dimentsioa lantzea ardatz garrantzitsua da. Zirimola ikastolen aisialdi-taldeak egiten dituen proposamenetan ere ildo garrantzitsua da euskalduntasuna bizitzeko aukera ematea.

Gakoa da, kultur aniztasunaren garrantziari eta aberastasunari ere erreparatuz, hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiek euskararekiko eta euskalduntasunarekiko jarrera proaktiboa izatea edota lan egitea. Izan ere, ikasleek helduon hizkuntza-erabilerak eta jarrerak behatu eta ondorioak ateratzen dituzte. Adibidez, haurrekin euskaraz aritu bai, baina helduon artean gaztelaniaz aritzeko ohitura badugu, haurrak jasotzen duen mezua honako hau da: euskara haurrekin eta ikastolan, eta hortik kanpo erdaraz. Era berean, euskara oso gutxi dakien heldu bat, dakien gutxi hori erabiltzen ikusteak mezu indartsua bidaltzen dio haurrari: euskararekiko jarrera proaktiboa erakusten dio, helduari interesatzen zaiola, saiatzeko ari dela. Edo euskara gutxi dakien heldu hori haurrekin euskarazko antzerki bat ikustera joateak, euskara eta euskal kulturarekiko atxikimenduzko mezua ematen dio. Izan ere, euskararen kasuan, gure

**Euskal Herritik, euskaratik eta euskal kultura transmititzeko konpromisotik sortzen ditugun ikasmaterialetan euskal dimentsioa lantzea ardatz garrantzitsua da.**

egitekoa euskaraz irakastetik harago doa, hiztun aktiboak sortzea da gure egiteko nagusia.

Ikastola den ekosistema hori ez dago isolatuta, beste ekosistema batzuen parte da eta euskararen eta euskal kulturaren diharduten beste ekosistema batzuekin aliantzan jardun behar du. Ikastolon izaeran eta nortasunean euskararen eta euskal kulturaren transmisioarekin daukagun konpromisoa baldin badago eta pertsona-ereduaren lehen-lehen bereizgarrian pertsona euskaldunak (euskal hiztun osoak, euskal kultura ezagutu eta bizi dutenak, eta eleanitzak) hezi nahi ditugula adierazi baldin badugu, euskal gizartea euskalduntzeko, ezinbestekoa da beste gizarte eragileekin lankidetzan aritzea, euskalgintzan lanean dihardutenekin estrategia partekatuz.

Hezkuntza ildo honen lanketarako hausnarketak, estrategiak eta ekintza-planerako gida jasotzen dira *Ikastolen Hizkuntz Proiektuan*. Gero ikastola bakoitzak bere plangintza egin eta aldian-aldian berri-tu dezan.

## GARAPEN PERTSONALA

Liburuan zehar behin eta berriro esaten ari garen moduan, gure haur eta gazteek ikastolan egingo duten bidaiaren ondoren, jendar-tean ongi eta nork bere ekarpena eginez bizi ahal izateko hainbat bereizgarri, hainbat ezaugarri, izan beharko lituzketela pentsatzen dugu. Horietako bat barne-sendotasuna da. Guretzako, funtsezkoa da hain zaurgarri bihurtzen gaituen mundu ziurgabe honetan ondo errotuta bizitzeko.

Barne-sendotasuna duen pertsonaren irudia bat etorri ohi da bere buruaz duen irudiarekin eta bera pertsona moduan bereizten duten ezaugarriekin. Arestian ikusi dugun bezala, irudi doitua izan ohi du, alegia. Barne-sendotasuna duen pertsonak estrategiak eta baliabideak ditu bere bide propioa egiteko, bere bizitza-proiektua erakitzekeo, eta horri begira hartu beharreko erabakiak hartzen ditu. Pizten zaizkion emozioen gaineko kontzientzia dauka eta baditu estrategiak horiek kudeatzeko. Erresilientziaz erantzuten die bizitzan egokitzen zaizkion egoerei. Hau da, arazo eta ezbeharrei aurre egiteko gauza da. Bere ongizatea zaintzen du egunerokotasunean, jakin badakielako hau zaintzea ezinbestekoa dela taldean edota besteekin

---

**Barne-sendotasuna izatea helburua da bere horretan, baina, aldi beran, bidea ere bada, handik aldentzen garenean nora itzuli erakusten digun arrastoa baita.**

---

ondo jardun ahal izateko. Eta esango genuke, oro har, bizitzarekiko eta pertsonarekiko duen begirada konfiantzazkoa dela.

Barne-sendotasuna izatea helburua da bere horretan, baina, aldi beran, bidea ere bada, handik aldentzen garenean nora itzuli erakusten digun arrastoa baita. Gure langaia da nagusiki, bizitza osoan zehar zaindu eta ongarriritu beharreko eremua. Eta horri erantzuten dio, hain zuzen ere, garapen pertsonalaren hezkuntza-ildoak.

Garapen pertsonalaz ari garenean, bakoitzak barrutik hazteko duen gaitasunaz ari gara. Bestela esanda, oraindik deskubritu edota eguneratu gabe ditugun gaitasunetan hazteaz; gure egunerokotasunean, eta oro har gure bizitzan, oztopo bihurtzen diren beldurrak eta zailtasunak kudeatzen ikasteaz; norbere buruari buruzko irudi doitua eraikitzeke pausoak emateaz; nor bere buruarekin dituen elkarrizketetan eraikitzailea dena eta oztopatzailea dena bereizten ikasteaz; garen horretan errotuta gaudenean enpatiarako, elkartasunerako, ekimenerako, sorkuntzarako pizten zaigun grina esperimintatzeaz... Hori guztia eta gehiago da garapen pertsonala.

Hau guztia lantzen ari garenean, pertsona autoeratuak, euskaldun osoak eta kontzienteak, erresolutiboak, erantzunkideak... garatzen laguntzeko oinarri garrantzitsua finkatzen ari garela uste dugu. Horrekin guztiarekin emozionalki eta mentalki orekatua den pertsona elikatzen arituko gara eta oreka ezinbesteko osagaia da ikas/irakaskuntza-prozesu bati ekiteko, jakina.

Garapen pertsonala bizitza osoko prozesua da. Prozesua egitea garrantzitsua da pertsona guztientzat, baina bereziki era batera edo bestera pertsonen heziketa- eta zaintza-prozesuetan parte hartzen dugunontzat. Garapen horretan laguntzeko hainbat aukera daude geure inguru hurbilean, eta geure eremu profesionalari dagokionez, indarra eta ahalegina prestakuntzan, aholkularitzan eta akonpainamenduan jarri beharra dagoela pentsatzen dugu. Zenbaitetan, gertaera gogor batek jar dezake mar txan. Beste batzuetan, garapen pertsonala suspertzen

duen testuinguru batean egoteak piztu dezake bide horri ekiteko gogo. Askotarikoak izan daitezke era horretako prozesu batean murgiltzeko arrazoiak. Baina arrazoiak arrazoi, hezkuntza-erakunde batek, eta gurera etorrira ikastolok, haurren eta gazteen garapen pertsonalari bide emango dion hezkuntza-planteamendu sakon eta sistematizatua behar duela, behar dugula, pentsatzen dugu.

## IKUSPEGI ETA ESTRATEGIA INKLUSIBOAK

Pertsona-eredua ipar nagusi duen hezkuntza-eredu honetan ezinbestekotzat jotzen dugu gure ikaskuntza-prozesua ikuspegi eta estrategia inklusiboetan oinarrituta egotea. Ikuspegi inklusiboak humanizatu egiten du prozesua. Desberdintasunak alde batera utzi eta pertsonari egiten dio harrera, pertsona bakoitzak parte har dezan, aurrera egin dezan, gainditu beharreko oztopoez jabetzen laguntzen digu eta gure artean ditugun haur zein gazteek, guztiek, dituzten gaitasunetan jartzen du azpimarra.

Pertsona-eredua gure ikasle guztiekin garatu ahal izateko ikasle guztiek testuinguru berean jardutea planteatzen dugu, aniztasunean bizi garen heinean ikasten baitugu aniztasun horren aberastasuna ulertzen, bakoitzak bere partikularitasunean dituen beharrak eta bere arrakastarako bideak identifikatzen, elkarren arteko osagarritasuna bizitzen.

Pertsona-ereduaren hainbat eta hainbat ezaugarri garatzen laguntzen digu ikuspegi inklusiboak. Horixe baita hain zuzen ere geure ikasle guztiekin lortu nahi duguna, bakoitzak oraingo zein etorkizuneko munduan bizitzeko behar dituen ikaskuntza arrakastatsuak izatea (akademikoak zein bitalak) eta unean uneko garapen-maila gorena lortzea.

Bestalde, inklusioari buruzko Ikastolen Elkarteko markoak jasotzen duen moduan, hainbat estrategia egon daitezke ikuspegi hau geure ikastoletan txertatzeko. Horietako batzuk orokorrak dira, ikasteko estilo desberdinak dituztenei, lan-erritmo desberdinak dituztenei edota

---

***Ikasle guztiek testuinguru berean jardutea planteatzen dugu, aniztasunean bizi garen heinean ikasten baitugu aniztasun horren aberastasuna ulertzen, bakoitzak bere partikularitasunean dituen beharrak eta bere arrakastarako bideak identifikatzen, elkarren arteko osagarritasuna bizitzen.***

---



interes eta motibazio-maila desberdinak dituztenei bideratutakoak, esaterako. Beste estrategia batzuk, berriz, espezifikagoak dira: ikasteko zailtasunei, adimen-gaitasun handiari, disfuntzio sensorialei, espektro autistari, eskolatze berantiarrari eta beste hainbat egoerei lotutakoak, alegia.

### ERABAKITZEKO GAITASUNA GARATZEKO TESTUINGURUAK

*Hezi nahi baditugu pertsona erabakitzailerak, bere bizi-proiektua irudikatu eta hura lortzeko erabakiak hartuko dituztenak eta eraldatzaileak izango direnak, ezinbestean, eskaini behar diegu erabakitzeko gaitasuna garatzeko aukera.*

Pertsona-ereduan adierazi dugun moduan, hezi nahi baditugu pertsona erabakitzailerak, bere bizi-proiektua irudikatu eta hura lortzeko erabakiak hartuko dituztenak eta eraldatzaileak izango direnak, ezinbestean, eskaini behar diegu erabakitzeko gaitasuna garatzeko aukera.

Ezin dugu ziurtasunez jakin gure ikasleek bizitzan zertan errokatuko izango dituzten, nolako lanbideak izango dituzten. Badakigu, ordea, bizitza osoan, bai bizitza profesionalean eta bai bizitza pertsonalean, egoera berriari aurre egin beharko dietela eta arazoak konpondu beharko dituztela. Horregatik da garrantzitsua eskolaldi osoan horiek modu autonomoan egiten trebatzea.

Autonomia diogunean, helburutzat dugu autoerrealizazio-mailarik altuena lortzea bizitzako eremu guztietan. Autonomia horrek esan nahi du erantzukizunetik erabakiak hartzeko aukera badagoela. Eta erantzukizuna ulertzen dugu norberarekiko, besteekiko eta inguratzen duen munduarekiko konpromiso moduan.

Horregatik, ikastolako etapa bakoitzean desberdinak izan daitezke autonomia garatzeko eskaintzen diren testuinguruak, ikasleen garapen ebolutiboko ezaugarriak eta etapak kontuan hartzen direlako. Esaterako, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan hain errotuta dauden zirkulazio autonomo/txokokako/mikroespazioakiko dinamiketarik proiektu pertsonalak aurrera eramateko proposamenak erator daitezke Bigarren Hezkuntzako etapan.

Desberdinak izan daitezke ikasleak erabaki beharrekoak: erabaki dezake baldintza jakin batzuk kontuan hartuta egingo duen ekintza (adibidez, eskura jartzen zaizkion materialeekin zer egingo duen); beste kasu batzuetan, ekintza osotasunean erabakiko du, baldintzak ere berak zehaztuz (hamabostean behin ikastolako jardunean izango duen denbora-tartean zer proiektu abiaraziko duen, norentzat, norekin, eta antolaketa osoa); erabaki dezake proposatutako ekintza bat zeinekin egingo duen (adibidez, esketx bat taularatzea); nola aurkeztuko duen (gai bati buruz bilatutako informazioa nola partekatuko duen gelakideekin).

Erabakimen handiagoa edo txikiagoa, erantzukizun handiagoa edo txikiagoa eskatzen dutenak izan daitezke, eta guztiak hartu behar dira kontuan. Izan ere, erabakitzeko gaitasuna garatzeko testuinguruak diseinatuz, bizitzan autonomiaz erantzuteko prestatu ez ezik, funtzio exekutiboetan garapenean laguntzeko aukera paregabea ere izango dugu. Funtzio exekutiboak maila altueneko funtzio kognitiboak dira, beste espezieengandik bereizten gaituztenak, duten konplexutasun eta sofistikazioagatik. Funtzio horiei esker, gure beharren arabera aurreikuspenak egin ditzakegu, espektatibak sortu, gure jokabidea planifikatu, bulkadak inhibititu, ideiekin mentalki jolastu, erabakiak hartu, modu sortzailean pentsatu eta kontzentrazioa mantendu. Jolasarekin, mugimenduarekin, jarduera libre eta sortzaileekin eta lan kooperatiboarekin lotutako proposamen pedagogikoen funtzio exekutibo/betearazleen garapena ahalbidetzen dute.

### BERDINEN ARTEKO IKASKUNTZA

Irakaskuntza-ekintza oro ikaskuntza-jarduera bihurtu beharko genuke, ez besteentzat bakarrik, baita norberarentzat ere, eta alderantziz, ikaskuntza pertsonaleko egoera oro besteei irakasteko aukera bihurtu beharko genuke.

Berdinen arteko ikaskuntzaz ulertzen dugunaz jardun aurretik, pare bat galdera egin diegu geure buruari, baita zuri ere, bide batez. Hona hemen lehena: zer aldatzen da irakaste zentratuaren jardueraren bat ikaste zentratuaren jardueraren bihurtzen dugunean?

Galdera honi beharbada sarri erantzun behar izan diegu eta erantzuna seguruenik ezaguna izango zaigu. Jarduera bat ikasten ari den pertsonarengan zentratuaren diseinatzen dugunean, zerbait egiten,

**Pertsona bat, baldintza jakin batzuetan, irakasteko egoeran jartzen denean, jarduera hori onuragarria da ikasten ari denarentzat ez ezik irakasten ari denarentzat ere.**

zerbait pentsatzen, norbaitekin edo norbaitzuekin batera edota era batera edo bestera komunikatzen irudikatu ohi dugu. Aktibo, alegia. Egoera hau bera berdinen arteko ikaskuntzaren eremura eramanez gero, ikasle bat beste bati laguntzen edo azalpen bat ematen irudikatuko dugu. Eta hori oso egoera interesgarria da une horretan irakasle lanetan edo diharduen ikaslearentzat.

Eta orain bigarren galdera: zer aldatzen da norberak ikasteko pentsaturiko jarduera batetik norberak ikasitakoa besteei irakasteko jarduera bilakatzen dugunean?

Badirudi besteei irakasteko ikasteak prozesu mental desberdinak jartzen dituela martxan, eta saioaren prestaketa-unean gertatzen omen dira nagusiki. Besteei irakatsi

behar duen ikasleak materiala ezagutu, ordenatu, lehen eta bigarren mailako elementuak identifikatu eta bereizi behar dituelako... Labur esanda, gaia landu egin behar duelako.

David Duran (2016) berdinen arteko ikaskuntzaren gaian aditua da. *Aprensensyar* izenburua daraman liburuan dioenez, nahikoa ebidentzia zientifiko dago baieztatzeko pertsona bat, baldintza jakin batzuetan, irakasteko egoeran jartzen denean, jarduera hori onuragarria dela ikasten ari denarentzat ez ezik irakasten ari denarentzat ere. “Aprensensyar” kontzeptuak (*ikasirakastea*) irakatsiz ikasteko moduari egiten dio erreferentzia eta konplexutasun-maila desberdinetako egoerak barnebiltzen ditu: irakasteko ikastea, ikastea eta aurkeztea, ikastea eta azaltzea, ikastea eta galderak eginez azaltzea.

David Buenok, berriz, *El cerebro del adolescente* liburuan (2022), hainbat ikerketari erreferentzia eginez, aipatzen du nerabeek, oro har,

## IRAKASTEN IKASI




### IRAKASTEKO IKASI

Ikasi gero irakatsi egin beharko dela sinestuta, baina benetan irakastera iritsi gabe.

Nork bere buruarentzat ikasten duenean baino kalitate hobea dute prozesu kognitiboek.

David Duranen *Aprensensyar* liburutik abiatuta egindako moldaketa.



### IKASI ETA ERAKUTSI

Erakusteko ikasten duenak eragin positiboa nabaritzen du, baita entzuleak ere, minimoki parte hartzen badu, behintzat.

Proban jartzen du erakusleak erabili duen informazioa, nola interpretatu duen eta nola erakutsi duen.



### IKASI ETA AZALDU

Ezagutza gogoetatik eraikitzen laguntzen du, transmisio hutsetik harago.

Ezagutza berrantolatzea eta hobetu beharrekoak identifikatzea ahalbitzen ditu, kalitatezko azalpenak eskaintzea helburu.

### IKASI ETA AZALDU GALDEZKA

Azaldu modu interaktiboan, galdera sakonak egiten eta erantzuten. Eredu mentalak berrantolatzen ditu.

Lehenago ezagutza eta ezagutza berria uztartzen ditu, eredu mentalak berrantolatuz. Inferentzia eta prozesu metakognitiboekin lotzen da.

Gero eta konplexutasun eta aldebikotasun gehiago, gero eta gehiago ikasten du ikasle/irakasleak.



elkarren arteko sozializazioa etengabe bilatzen dutela, eta, hori horrela dela jakinda, nerabeek elkarren artean egoteko eta jarduteko duten beharra baliatu beharko genukeela ikaskuntzari dagozkion testuinguruetan ere. Horretarako, talde-dinamikak, ikaskuntza kooperatiborako estrategiak eta berdinen arteko formaziorako tresnak diseinatzea interesgarria izan daiteke.

### EBALUAZIO HEZITZAILEA

Munduak eta, gurera etorrita, Euskal Herriak egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten erronkei erantzuteko behar diren pertsonak garatzen laguntzea du helburu ikastolon hezkuntza-proiektuak. Behin eta berriro errepikatzen ari gara ideia hau liburu honetan. Horrek jarrera- eta begirada-mailako urratsa eskatzen du lehenik eta behin.

Hezitzaileon kasuan, azpimarratu nahi dugu geuk bihurtzen dugula ikaslea protagonista, geuk laguntzen diogula ikasleari horren kontzientzia hartzen. Eta era berean, ikasleak berak unean uneko gaitasun, interes, motibazio eta laguntzaren arabera egingo duela aurrera; ez guk nahi dugulako, berak hautu hori egiten duelako baizik. Eta begirada horretan kokatu ahal izateko ezinbesteko osagaia dugu konfiantza. Konfiantza jarrera bat da, alegia, sinestea ikaslea bera gai dela bere ikaskuntza-prozesua gidatzeko.

Ikaslea beste toki batean kokatzen da ikaskuntza-prozesuan eta berari ere begirada eta jarrera jakin bat eskatzen dizkio ebaluazio hezitzaileak. Azken batean, ahalduntze-ariketa bat da. Alegia, ikasleak benetan barneratu behar du ikaskuntza-prozesua bere-berea dela, bizitza berea eta ez beste inorena den moduan, eta bere bizitza-proiektu propioa eraikitzeke oinarriak finkatzen ari dela ikaskuntza-prozesu horretan egiten duen urrats bakoitzeko.

Ebaluazioa funtsezkoa da prozesuan. Hainbat ebaluazio modu daude: diagnostikatzailerak, kalifikatzaileak, hezitzaileak... Guk uste dugu horien guztien artean ebaluazio

hezitzaileak bat egiten duela gure pertsonaren garapena ulertzeko moduarekin. Kanpo-ebaluazio diagnostikatzailerak zein kalifikatzaileak euren lekua izan dezakete beste esparru eta funtzio batzuetan, esaterako, herrialde baten baitako ikastetxeen arteko zein herrialdeen arteko azterketa konparatiboak egiteko. Baina gure ebaluazioren ardatza hezitzailea da. Hezitzailea da ikasleak uneoro dakielako non dagoen, helburuak zein diren kontuan izanda, eta ondo eginda-koak nahiz hobetu beharrekoak helburu horien baitan identifikatzen dituelako.

Maila goreneko hainbat adituk diote ebaluazio hezitzailea ikasleen ikaskuntza hobetzeko neurririk eraginkorrenetakoa dela.

Adibidez, John Hattie, 50.000 ikerketa-artikuluren 800 metaanalisiren azterketa konparatiboan oinarrituta, "Ikasketa ikusgai irakasleentzat. Ikaskuntzan duen eragina maximizatuz" idatzi du. Lan horretan zera dio, ikasleekin lantzen dugun guztiak eragin bat baduela, bai bere ikaskuntzan, bai bere pertsonarengan. Kontua da identifikatzea zein aldagaik duen eraginik handiena, horrek aukera ematen baitigu ikas/irakaskuntzaren diseinua aldagai horiek aintzat hartuta egiteko. Izan ere, ikasleen ikaskuntza bereziki bultzatzen duten elementu eta estrategiak erabiltzen direnean, estrategia horiek ikasleekin eurekin partekatzen direnean eta horien guztien kontzientzia hartzen laguntzen diegunean, ikasleentzako aukerak sortzen ari gara euren ikaskuntza-prozesuaren kontrola har dezaten, berau erregulatu eta ebaluatu dezaten. Horrela, gai sentitzen dira, besteak beste, ikasten ari direna zertarako den ulertzeko edota euren ikasteko modurik eta biderik eraginkorrena zein den identifikatzeko.

Azken urteotan, gainera, hainbat ikerketa berri gehitu zaizkie orain arteko metaanalisei, eta Hattie azpimarratzen duen bezala, urtero datu berriak izan arren, datuen atzean dagoena ez da ia aldatzen. Alegia, ikasle ororen errendimenduan eragin nabarmenena duten aldagaiak, ebaluazio hezitzailea, metakognizioa eta feedbacka direla.

Bestalde, Dylan Wiliam ikertzaileak hainbat argitalpenetan defendatu du ezar daitezkeen hezkuntza-politika guztien artetik (gelako ikasle ratioak jaistea, irakasleen hasierako prestakuntza hobetzea, irakasleei hobeto ordaintzea, beste herrialde batzuetako praktika onak transferitzea...), ebaluazio hezitzailea dela ikasle bakoitzak arrakasta izateko daukagun tresnarik eraginkorrena.

*Ikaslea beste toki batean kokatzen da ikaskuntza-prozesuan eta berari ere begirada eta jarrera jakin bat eskatzen dio ebaluazio hezitzaileak. Azken batean, ahalduntze-ariketa bat da..*


**Ebaluazio hezitzailea, azken batean, ikaskuntza-prozesuaren motorra da. Ikasteko balio duen ebaluazioa da, ikasleari bere ikaskuntza-prozesua aztertzen, ulertzen eta doitzen laguntzen dion bitarteko garrantzitsuena.**

Ebaluazio hezitzaileak ikaskuntza-prozesuan jartzen du arreta, ez emaitzan. Prozesu horretan, ebidentziak biltzen dira, aztertu egiten dira eta horietan oinarrituta ikaskuntza hobetzeko erabakiak hartzen dira. Ebaluazio-tresna bakarra erabili beharrean (azterketa edo errubrika, esaterako), hobe da tresna sorta bat izatea ikaskuntzaren ebidentziak bildu ahal izateko. Dylan Wiliamek (“Embedded Formative Assessment”, 2011) tresna ugari proposatzen ditu. Ebaluazio hezitzaileak metakognizioa barnebiltzen du, feedback kualitatiboan eta produktiboan oinarritzen da, eta irakasleek ez ezik ikasleek ere egiten dute, laguntzarekin eta prestakuntza egokiarekin. Ez gara hemen hasiko tresna horien nondik norakoak xehetzen, irakurle, baina erreparatu ideia honi: ebaluazio hezitzailea, azken batean, ikaskuntza-prozesuaren motorra da. Ikasteko balio duen ebaluazioa da, ikasleari bere ikaskuntza-prozesua aztertzen, ulertzen eta doitzen laguntzen dion bitarteko garrantzitsuena, eta, ondorioz, ikasleari ikasteko prozesuan nor izaten laguntzen dion tresnarik boteretsuena.

### IRAKASKIDETZA

Irakaskidetzaz ari garenean, bi irakasle edo gehiagok elkarlanean ikasle talde bati begira antolatzen duten ikaskuntza-prozesuaren diseinuaz, planifikazioaz, inplementazioaz, ebaluazioaz eta hausnarketaz ari gara.

Gaur-gaurkoz, ikastetxe gehienetan ordua/ikasgela/ irakaslea/ikastaldea/ikasgaia parametroen araberako funtzionamendua da nagusi. Horrek zaildu egiten du irakaskidetzan jarduteko aukera. “Nire” ikasleak/“nire” gela/“nire” ikasgaiaren logikaren gainean eraikia dagoen paradigma bat da. Irakaskidetzak apurtu egiten du horrekin guztiarekin eta dimentsio kooperatiboa ematen dio irakaskuntza-prozesuari. Horrek, ezinbestean, lehen aipatutako parametro horiek ezartzen dizkiguten mugekin apurtzea eskatzen du.



Pentsatzen dugu irakaskidetzak aukera eta abantaila interesgarriak eskaintzen dizkietela ikasleei zein irakasleei (Fernández Enguita, 2020).

Testuinguru pertsonalizatuagoak eskaintzen ditu. Ikasleari bere ikaskuntza-prozesuan bidelagun bat izateko aukera ematen dio, bere ondoan egongo dena, bere erraztailea, bere erreferente nagusia

*Profil desberdinetako hainbat irakaslek elkarrekin jarduterakoan, ikasleari ikuspegi bateratu eta integralagoa eskaintzen diote, biziaren errealitatean gertatzen den moduan.*

izango dena. Horrekin batera, profil desberdinetako hainbat irakaslek elkarrekin jarduterakoan, ikasleari ikuspegi bateratu eta integralagoa eskaintzen diote, biziaren errealitatean gertatzen den moduan. Bestalde, talde-lanean jarduten ikasteko eredu bat, modu bat eskaintzen dio. Hezkuntzaren inguruko ikerketek diote ikasleak taldean ikasten duela, eta eduki-baliabide desberdinen inguruko azalpenen transmisiorako tarteak behar diren moduan, taldean planifikatzeko, ikertzeko, jarduteko, ebaluatzeko uneak behar direla. Ikaskuntza kolaboratiboa, ikaskuntza kooperatiboa, beraz, ez dira moda huts: geratzeko etorri dira. Eta horrekin guztiarekin batera, irakaskidetzan jardunez, helduen arteko elkarlanaren praktika eredugarria ematen zaio ikasleari.

Irakasleari ere hainbat aukera eskaintzen dizkio: taldean jarduteko aukera; bere lankideengandik ikasteko aukera; bere lanarekiko motibazioa elikatzeko aukera; errespetuan, malgutasunean, komunikazioan hazteko aukera. Ikasle bakoitzaren gaineko begirada anitzagoa eskaintzen du. Praktika pedagogikoa gardenagoa da, gainera, eta ikasleengan behatzen diren portaeren gaineko inpartzialtasun handiagoa dago.

Horrek guztiak kultura berri bat sortzea eskatzen du, ez baita erraza jarduteko modu batetik bestera berehala pasatzea. Prestakuntza, talde-gogoeta, irizpide bateratuak, elkarrekiko begirunea eta errespetua behar dira prozesu horretan. Ikastolon artean baditugu bide horri ekin diotenak. Beraz, etxeko esperientziak entzun eta partekatzeak has gaitezke horretan ere, ezta?

### **TESTUINGURU ERREALETAN ETA IKERKETA-EKINTZAN OINARRITUTAKO DINAMIKA GLOBALIZATUAK**

Frogatuta dago irakasleen azalpenera mugatzen diren metodologiek ez dutela ikaskuntza esanguratsurik sustatzen ikasle gehienengan. Ikaskuntzen esanguratsutasuna eta baliagarritasuna indartzen dira testuinguru

errealetan eta ikerketa-ekintzan oinarritutako dinamika globalizatuak praktikara eramanez. Era berean, ikastolako hezkuntza-komunitatearekin eta gainerako gizarte-eragileekin elkarlanerako aukerak zabaltzen dira, ikasleei, biziaren errealitatea ulertzeaz gain, hartan eragiteko aukera ere ematen zaienean.

Ikasleak jarduten dira ezagutza lehen eskutik eskuratzen; testuinguruko egoerak ulertzen; egoera hobeto aztertzeke ezagutzak erabiltzen; ikasitakoa erabiliz eta zerbait sortuz, testuinguru errealeko esperientzian modu aktiboan esku-hartzen; horren inguruan hausnartzen; egoera horietako partaideekin komunikatzen; esperientzia bera kontzeptualizatzen... Betiere begi-bistatik galdu gabe informazioa nola eskuratzen dugun baino gehiago eragiten duela informazio horrekin zer egiten dugun.

Dinamika globalizatuekin, lekua egiten diegu pentsamendu konplexuari, sormenari eta eztabaidari. Testuinguru errealeko egoerak konplexuak izaten direlako, diziplinartekoak, askotariko jakintzak erlazionatzea eta erabiltzea eskatzen dutenak. Esaterako, uraren erabilera egokia sustatzea xede duen proposamena gelan landu behar badugu, kontuan izango ditugu ura non dagoen eta nola lortzen dugun, uraren propietateak eta uraren erabilera-ohiturak, uraren zikloa eta klima-aldaketa, pertsonen jarreretan eragiteko mezuak eta beste hainbat faktore. Eta faktore horien arteko erlazioak etengabe adieraziz jorratuko dugu delako proposamena.

Izan ere, pertsonok hala ikusten eta bizitzen dugu bizitza. Neurozientziak erakutsi digu garunak modu globalizatuan funtzionatzen duela, diziplina edo jakintza-gaietan eta eduki-multzoetan sailkatu gabe.

Bestalde, txiki-txikitatik egiten ditugu galderak, eta ikaskuntza-prozesuan galderak egite horri garrantzia ematea behar-beharrezkoa da. Nork bere buruari galderak egitea, esperientziatzea, azalpen posibleak argudiatzea... Hori guztia sustatu egin behar da. Galderek jakin-mina erakutsi eta erantzunak bilatzeko bidea irekitzen dute. Batzuetan, ikasgela ikerketa-komunitate bilakatzen da eta ikasleek euren ikuspegiak eta ondorioak azaltzen dituzte, azpimarra eztabaida prozesuan jarriz, eta ez hainbeste ondorio jakin edo argi batera iristeko helburuan. Beste batzuetan, prozedura eta teknika konplexuagoak modu sistematiko eta ordenatuan erabiliz, ikerketa-prozesuan lortutako emaitzei balio eta zorrotasun zientifikoa ematea bilatzen da.

---

*Ikerketa-ekintzan indar eginez, pertsona-ereduan adierazitako pertsona erabakitzailerak, eraldatzaileak eta kooperatiboak hezteari bide ematen zaio.*

---

Nolanahi ere, testuinguru errealeko egoerak planteatzen direnean, kontuan hartu behar da aurrera egiteko modu desberdinak egongo direla eta modu horiek pentsatu eta antolatu behar direla; modu desberdinak irudikatzen ikusmira irekia izatea sustatu behar dela; alternatiba desberdinen arteko hautuak egin behar direla; pentsatzeko eta hitz egiteko beste modu batzuk dituzten pertsonekin elkarreaginean jardun behar dela; hasierako ikuspegia moldatzeko prest egotea komeni dela; doikuntzak egin behar direla eta abar.

Testuinguru errealean eta ikerketa-ekintzan oinarritutako dinamika globalizatuak baliatzeak, batetik, ikaskuntzarako prozesu erabat aberatsa eta aberasgarria abiarazteko aukera ematen digu; bestetik, ikerketa-ekintzan indar eginez, pertsona-ereduan adierazitako pertsona erabakitzailerak, eraldatzaileak eta kooperatiboak hezteari bide ematen zaio. Alegia, filosofia eta jardunbide hau kontuan hartu gabe, nekez hezi daitezke aipatu bereizgarriak dituzten pertsonak.

### **HEZKUNTZA-KOMUNITATE KOHESIONATU, BIZI ETA SENDOA**

Ikastoletan pertsona euskalduna, barne sendoa duena, erabakitzailerak, eraldatzailea eta kooperatiboa garatzen laguntzeko ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate kohesionatu, bizi eta sendoa izatea.

Eta hezkuntza-komunitateaz ari garenean, leku eta une jakin batean hezkuntzan eragiten duten pertsona eta erakundeek osatutako harreman- eta elkarlan-sareaz ari gara. Izan ere, pertsonen, gizataldeen eta erakundeen artean eraikitzen diren loturek eta harremanek bihurtzen dute sare hori guztia hezkuntza-komunitate.

Ikastolok bilatzen dugun eraldaketa sozialari begira, tokian tokiko ikastola baliabide komunitario gisa ulertzea interesgarria da. Kontua ez da ikastola herrira zabaltzea edota ikastola eta herriaren arteko elkarlana bultzatzea,

baizik eta gure hezkuntza-lana tokian tokiko herri-eragileekin batera egitea; alegia, ikastolako hezkuntza-proiektuak diseinatu eta inplementatzetik auzoko edota herriko hezkuntza-proiektuak diseinatzera eta inplementatzera igarotzea. Horrela, haur eta gazteen prestakuntza-aukerak zabaldu egiten dira (ikastola barruan eta ikastolatik kanpo) eta bizitzarako behar dituzten konpetentziak aberastu eta indartu egiten dira. Eta horrek ikastolan, zalantzarik gabe, barrura eta kanpora begirako antolaketa-era berriak eta ordutegi malguak eskatzen ditu. Norabide honetan lanean ari diren Kataluniako hainbat ikastetxe, udal eta herri-erakundeek osatutako sarea, *Educació 360-Educació a temps complet*, erreferentzia interesgarria izan daiteke.

Michael Fullanek dio (1994) eskola onenak euren testuingurutik ikasten dutenak direla. Eta hezkuntzako profesional, familia eta komunitateko eragileen artean sortzen diren elkarrekintzek komunitatea osoago eta osatuago bihurtzen dutela. Ideia hori gurera ekartzea interesgarria litzateke, alegia, ikastola bere testuingurutik ikasten duen erakunde gisa planteatzea eta eragile desberdinen arteko elkarrekintzaren bidez komunitatea trinkotzen laguntzen duen topaleku gisa funtzionatzea.

Baina pertsona, gizatalde zein erakunde batek beste batzuekin batera sistema horretan jardun ahal izateko komunitateko partaide sentitu beharra dauka. Eta partaide sentitzeko ezinbestekoa da nor sentitzea eta proiektuetan zein erabakiguneetan parte hartzea. Eta horrek parte hartzera bideratuta dauden egiturak eta prozesuak ahalbidetzea eskatzen du era berean. Egiturak izan baditugu, baina une honetan agian indar berezia jarri beharra daukagu parte hartzea ahalbidetzen duten prozesuak eta prozedurak identifikatzen eta abian jartzen.

Parte hartzea osotasun baten parte sentitzearen eta osotasun horretan parte hartzearen arteko batura da (Llena, Parcesira, Ucar, 2009). Hau horrela izanik, hainbat modutan koka gaitzke parte hartze prozesu baten aurrean:

---

*Ikastola bere testuingurutik ikasten duen erakunde gisa planteatzea eta eragile desberdinen arteko elkarrekintzaren bidez komunitatea trinkotzen laguntzen duen topaleku gisa funtzionatzea interesgarria litzateke.*

---

**EZ NAIZ PARTE -** ETA **EZ DUT PARTE HARTZEN -**

Esklusio- eta autoesklusio-egoerak eragiten ditu jarrera horrek. Kasu batzuetan, egoera horien arrazoia izan daiteke eragileek ez dutela elkar ezagutzen.

**PARTE SENTITZEN NAIZ +** ETA **EZ DUT PARTE HARTZEN -**

Alienazioa eta apatia egon daiteke oinarrian edota parte-hartzaileen arteko desadostasunak.

**EZ NAIZ PARTE SENTITZEN -** ETA **PARTE HARTZEN DUT +**

Aldarrikapen-portaerak eragiten ditu jarrera horrek. Beste kasu batzuetan, joku-arauen ezezagutza ere egon daiteke oinarrian (intrusismo profesionala).

**PARTE SENTITZEN NAIZ +** ETA **PARTE HARTZEN DUT +**

Integrazioa ahalbidetzen duten egoerak eragiten ditu jarrera horrek eta *herritartasun aktiboa* izenez ere ezagutzen da. Azken hori da jarrera desiragarriena ekintza komunitarioetan.

Geure ikastoletan hezkuntza-komunitate kohesionatu, bizi eta sendoak eraikitzeari begira ideiak baino gehiago galderak luzatu nahiko genizkizuke, irakurle, hausnarketatik ekintzara eraman nahi zaituzten galderak.

## PARTE HARTZEA HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN



**a**  
Proposamena parte har dezaten nahi dugun pertsona edo kolektiboen interesekoa da? Zergatik eta zertarako interesatuko zaie parte hartzea?


**c**  
Parte hartzeko aukera errealak izango dituzte? Nola?

**d**  
Erabakitzeko aukera izango dute? Zeren inguruan?

**b**  
Parte hartzeko gai sentituko dira? Zer gaitasun beharko dira parte hartu ahal izateko?

**e**  
Nola jakingo dute parte hartzeko aukera dutela?

A large, rounded rectangular frame containing two columns of horizontal lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across most of the page area.





# IKASLEAK HEZKUNTZA- KOMUNITATEAN



**a** Zer ulertzen dugu parte hartzeaz ikasleen parte hartzeaz ari garenean?

**b** Gure ikastolan, ikasleek zertan nahi dugu parte hartzea? Badakigu ikasleek zertan parte hartu nahi duten?

**c** Zer egiten dugu gaur egun hori ahalbidetzeko? Eta zer aldatu beharko genuke?

**d** Zein da bide horretan emango dugun lehen pausua? Eta ondoren?

**e** Zer zailtasun topatzen dugu? Nola gainditu ditzakegu zailtasunak?

# FAMILIAK HEZKUNTZA- KOMUNITATEAN



**a** Nola dago jasota familien esku hartzea zure ikastolaren araudian?

**b** Zertan duzue erabakimena? Zer organo daude horretarako?

**c** Familien funtzioari dagokionez, zer iritzi duzu araudiaz? Ba da hutsunerik edo hobetu beharrekorik?

**d** Familiok eta profesionalok ditugun funtzio partekatuak definituta daude? Zein da, zure ustez, familiok eta profesionalok elkarren funtzioekiko ditugun ikuspegi eta jarrera? Ba da hobetzekorik? Zertan eta nola?

**e** Ikastolaren bilera-antolaketak sustatzen ditu ikas-komunitatearen kultura eta funtzionamendua? Aurreikusten ditu horretarako uneak eta espazioak?

**f** Nola kokatzen zara ikastolan parte hartze-prozesu baten aurrean? Parte hartzeko aukerak dituzu? Parte sentitzen zara? Parte hartzen duzu?

## PROFESIONALAK HEZKUNTZA- KOMUNITATEAN



**a** Zeure ikastolaren hezkuntza-komunitatea irudikatu beharko bazenu, non kokatuko zenituzke profesionalak? Eta gainerako eragileak? Zure ustez, zein da profesionalon egitekoa? Eta gainerakoena?

**c** Zer eragiten digu komunitateko beste kideen parte hartzeak? Nahi dugun parte hartzeko helburuarekin lerratzen da? Zer ondorio du?

**b** Ikastoletako profesionalen lekua eta egitekoa gainerako sareetako profesionalen berdina edo desberdina dira? Zergatik?

## EBALUAZIOAREN KULTURA

Parte hartzearen inguruan proposatu dugun galdera-bateriak beharbada bide nagusia begi-bistatik galtzera eraman gaitu, une batez, bederen. Beraz, gogoratu kapitulu honetan hezkuntza-ildoez ari garrela. Guztira, hamar zerrendatu ditugu. Dagoeneko bederatzi azaldu ditugunez, hauxe da falta dugun bakarra. Bada, ekin diezaio-gun...

Lana hobetzeko ebaluazioaren kultura bere egin duen ikastola batez ari garenean, zertaz ari gara?, zehatz-mehatz, ikastola horrek zer ebaluatu behar du?:

- > **Ikasleen ikaskuntza eta garapena.**
- > **Hezitzaileen praktika.**
- > **Ikastolak erakunde gisa dituen antolaketa eta kudeaketa.**
- > **Hezkuntza-paradigma bera.**

Eta lau ebaluazio-eremu hauek elkarren artean lotuta daude, noski. Izan ere, hezitzaileen praktikaren ebaluazioak ikasleen ikaskuntza eta garapena arrakastatsua izan dadin eragiten du, eta, halaber, ikastolaren antolaketak eta kudeaketak irakasleen praktikaren hobekuntzan.

Ebaluazioa ikuspegi partekatatu eta bateratu jakin batetik egin behar da, nork bere egitekoa hobetzeko motorra izan dadin. Alegia, ebaluazioa ez da fiskalizatzeko edo zigortzeko tresna, ezta konparazio eta ranking edo sailkapenak egiteko bitartekoa ere. Finean, ikasleei beren garapenean laguntzeko hautatu dugun ebaluazio hezitzaileak ikastola osoaren jarduna busti egin behar du.

Emaitzen hobekuntzan ez ezik lana egiteko moduan ere eragiten du ikuspegi horrek, posible eta eraginkorra izan dadin ezinbestekoak direlako kideen arteko kohesioa, pertenezia-sentimentua, konfiantza, errespetuzko jarrera, ekarpenak egitea eta besteen ekarpenak onartzea hobekuntza-proposamen gisa, ez kritika gisa. Labur esateko, ebaluazioaren kultura hori kolaborazioaren kulturarekin batera garatzen da, besteak beste lankidetzan aritzeko ohiturarekin,

horretan laguntzen duten portaera eta jarraibide komunak izatearekin, pertsonen arteko komunikatzeko modu egokiarekin.

Gainera, ikastolaren komunitatea osatzen duten guztiek dute langintza horretan zer esana: familieek, artezkari-tzak, hezitzaileek, ikasleek, zuzendaritzak, gizarte- eta hezkuntza-eragileek. Ikuspegi zabaletik begiratzen zaio ebaluazioari, bai partaideei dagokienez, baita ebaluazio-gai direnei dagokienez ere. Izan ere, maila askotan jarritako helburuak eta berauek lortzeko egiten diren planifikazio guztiak izan baitaitezke ebaluazio-gai. Beraz, haiei buruzko gogoeta partekatua da hobekuntza-iturri, kolaborazioan eraginez, jarraipena eginez, doitzeko erabakiak hartuz eta gauzatuz.

Esate baterako, ebaluazio-gai izan daitezke hezkuntza-komunitateak dituen ikastola-ereduaren eta ikastolako hezkuntza-proiektuaren ezagutza eta atxikimendua; hezitzaileen pertsona-ereduari buruzko kontzientzia eta konpromisoa; pertsona-ereduko bereizgarrietan in-paktua; hezkuntza-komunitateko pertsonen arteko harremanak (hezitzaileen artekoak, familien artekoak, hezitzaileen eta zuzendaritza-taldearen artekoak, ikasleen eta hezitzaileen artekoak, ikasleen artekoak eta abar); pertsona-ereduaren eta denbora, espazio eta bestelako baliabideen antolaketaren arteko koherentzia; zuzendaritza-taldeak egiten duen ikasturteko planifikazio orokorraren egokitasuna; prestakuntza-planaren egokitasuna eta eraginkortasuna; gogoeta egiteko eta ebaluazio-kultura indartzeko eskaintzen diren gunek, une eta dinamikentzako kantitatea eta kalitatea; irakasleen kompetentziak eta prestakuntza-beharrak; ikastolaren curriculum-proiektuari buruzko ezagutza, eta abar.

Ebaluazioaren kulturarekin lotutako beste ezaugarri bat hauxe da: ebaluazioa testuinguru jakin batean eta helburu garbi batekin egitea, eta, ebaluazio-prozesua aurrera eraman ondoren, bukaeran, erabakiak hartzea eta doitzetak egitea. Horrek lehen aipatutako ebaluazio-gaien artean hautuak egitea eta lehentasunak markatzea eska

---

*Ebaluazioaren kultura hori kolaborazioaren kulturarekin batera garatzen da, besteak beste lankidetzan aritzeko ohiturarekin, horretan laguntzen duten portaera eta jarraibide komunak izatearekin, pertsonen arteko komunikatzeko modua egokiarekin.*

---

dezake, prozesua modu antolatu eta jasagarrian burutu ahal izateko. Ebaluazioaren ondorioek eta doiketek planifikazioaren helburuak hobeto betetzeko balio dutela frogatzeak azaleratzen baitu ebaluazioaren baliagarritasuna eta zentzua.

Aipatutako ebaluazioaren kultura bere egin duen ikastolak hautatutako pertsona-ereduaren arabera pertsonak hezteko indarra irabazten du, eta bereziki ikasleei praktikan erakusten die, helduok modu erabakitzailerik gabe eta kooperatiboki jokatu, nola egin daitezkeen gauzak.

Horrenbestez, definitu ditugu, printzipio psikopedagogikoetan oinarrituta, ikastolako lehen ikasmailei zein azkenengoei dagokien pertsona-ereduaren hezkuntza-ildo estrategiko orokorrak. Orokorrak, diogu, pertsona-ereduarekin batera oso aintzat hartzeko direlako ikastolaren egunerokoan, erabaki txiki nahiz handietan, esparru eta dimentsio guztietan: irakaslearen rolean, espazio eta denboraren antolaketan eta abarretan.

## GOGOETAN LAGUNTZEKO GALDERAK



[A]

**Nola azalduko zenioke hezkuntza-gaien inguruan jakin-mina duen bati zer diren hezkuntza-ildoak?**

[D]

**Eta zer emango lioke ikastolen mugimenduari?**

[B]

**Ildoren baten falta sumatu al duzu? Zure ustez, ba al da soberan dagoen ildorik?**

[E]

**Bada gure herrian gainerako eragileekin partekatu dezakegun hezkuntza ildorik?**

[C]

**Zer emango lioke geure hezkuntza-proiektuari etapa guztietako familia eta profesionalok hezkuntza-ildo partekatuak izateak?**

[F]

**Nola landuko genuke era bateratu batean? Batera jarduteak, herri bezala, zein ekarpen egingo liguke?**

The image shows an open notebook with two blank, lined pages. The pages are white with horizontal red lines. The notebook has rounded corners and is set against a dark red background. The pages are completely blank, with no text or markings.



### 4.3. CURRICULUMA: ZER, ZEIN ETA ZERTARAKO?

*Curriculumua ez da neutroa, ezta objektiboa ere, hezkuntza eta irakaskuntza neutroak eta objektiboak ez diren moduan; beti daude interes eta balore jakin batzuk jokoan, eta, horien arabera, eduki batzuk aukeratzen dira irakasteko.*

Curriculumua, oro har, hainbat elementuk osatzen dute – hezkuntza-xedeek, ikasi eta irakatsi behar diren edukiek, metodologiak, ebaluazioak – eta elementu hauek elkarreaginean daude. Horiekin guztiekin eskolek etapa bakoitzaren amaierarako zein mailaz maila landu beharrekoa erregulatzen da. Hortaz, esan genezake ikasi eta irakatsi beharreko guztiaren antolaketa dela curriculumua.

Ikasi eta irakatsi beharreko hori guztia, ordea, ez da neutroa, curriculumaren atzean beti egoten baita ikuskera eta intenzionalitate jakin bat. Ondorioz, curriculumaren bidez ezagutza-hautu bat zilegiztatzeko eta normalizatzen da, eta horrekin batera, identitate zehatz bat, erreferente kultural, linguistiko eta sozial jakin batzuekin, beste identitate jakin batzuen kaltetan, hain zuzen ere (Lauzirika, 2015).

Beraz, curriculumua ez da neutroa, ezta objektiboa ere, hezkuntza eta irakaskuntza neutroak eta objektiboak ez diren moduan; beti daude interes eta balore jakin batzuk jokoan (Bilbao, 2003), eta, interes horien arabera, eskolan eta curriculumean eduki batzuk aukeratzen dira irakasteko.

Euskaldunok Estatu espainolak zein frantsesak diseinutako eskola-curriculumen menpe gaude, gaur-gaurkoz ez baitugu ehuneko ehuneko geurea den curriculumua diseinatu eta erregulatzen duen tresna juridikorik. Ez dugu eskumenik curriculum ofizial propioa eraiki eta hezkuntza-sisteman ezartzeko.

Hori horrela izanik ere, euskal hezkuntza-komunitateak argi izan du beti euskal hezkuntza propioa izateak duen garrantzia gure herriaren, hizkuntzaren eta kulturaren etorkizunerako. Eta ipar horri begira, auzolanean eraikitako Euskal Curriculumaren egitasmoa mugarriz nagusia izan da.

2003an, Ikastolen Elkarteak, Udabiltzak eta Sortzen-Ikasbatuazek abian jarritako prozesua izan zen hura eta 320 herri-eragile zein norbanakoren ekarpenak jaso ziren. Partaidetzan eta elkarlanean oinarritutako prozesu herriar baten adibide paradigmaticotzat har daiteke. Sorreratik hartu zuen euskal kulturaren transmisioa ziurtatzea helburutzat:

**Euskal Herrian eragina duten hainbat administrazioen curriculum ofizialetan, kasu batzuetan, euskal kultura ez delako transmititzen, eta, beste kasu batzuetan, transmisioa ez delako nahikoa.**

Horretaz gain, euskal kultura espezifikokoaren transmisioa eta Europako eta mundu osoko ondareari egin beharreko ekarpenaren bermea lortzeko planteamenduz gain, bazuen beste helburu bat ere:

**Europar integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreaginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren kompetentziak zehaztea.**

Hala, kompetentzietan oinarritutako hezkuntzan murgiltzeko proposamena ekarri eta bultzada ere eman zion euskal hezkuntzari.

Europar Batasuneko Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an onartutako gomendio-dokumentu batean, berretsi eta indartu zuen kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren

beharra, estatu parte-hartzaileei eskatzen baitzien bitartekoak eta bideak jartzeko pertsona guztiek lor ditzaten zehaztutako funtsezko konpetentziak. Europako Batzordeak ere aipatutako gomendioa aplikatzearen alde egin zuen, baita Europako erreferentzia-markoa erabiltzearen alde ere, estatu kideek elkar ikastea erraztuz eta, estatu kideekin lankidetzan, erreferentziako materiala eta tresnak prestatuz: konpetentzia espezifikoen markoak, orientaziorako materiala, irakasleentzako laguntza-tresnak eta abar.

Konpetentzietan oinarritutako curriculumak jarraitzen du, honenbestez, Euskal Herrian eragina duten administrazioen sostengua izaten. Hala ere, konpetentzia horien garapenerako edukiak, jakintzak edota zilegiztatzen diren ezagutzak hautatzerakoan eta antolatzerakoan, adi egoten jarraitzea ezinbestekoa da; baita zein ikuspegiarekin transmititzen ditugun zaintzea ere.

Esaterako, jakintzak ikuspegi globalizatutik hautatzeak eta antolatzeak identitate, marko mental eta begirada jakina eragiten du, eta horrek bat egiten du liburu honen 3. atalean ikusi ditugun Nazio Batuen Erakundearen Garapen Iraunkorreko Helburuen ikuspegi eta ulermenerekin. Halaber, jakintzak norbere testuinguruko erronka edo arazo errealekin erlazionatzeak eta erronka edo arazo erreal horiek konpontzen ikasteak laguntzen du pentsamendu konplexua sendotzen. Horregatik, curriculumeko jakintzak hautatu, antolatu eta transmititzeko, presente izan behar dira ikuspegi globalizatua, bizi dugun mundua eta biziko duguna, eta zehaztutako pertsona-eredua.

Curriculum eta bertan jasotzen diren ezagutzak, trebetasunak, konpetentziak, irakasleek ondo ezagutu eta mamitu beharreko bitartekoak dira, beti ere definitu dugun pertsona-ereduan eragiteko tresna malgu eta ireki gisa ulertuta.

*Curriculum eta bertan jasotzen diren ezagutzak, trebetasunak, konpetentziak, irakasleek ondo ezagutu eta mamitu beharreko bitartekoak dira, beti ere definitu dugun pertsona-ereduan eragiteko tresna malgu eta ireki gisa ulertuta.*

Euskal Curriculumaren testuingurura itzulita, Asier Lauzirikaren hitzak (2015) geure egin ditzakegu:

“

**Euskal Curriculum delako, gaur egun, proposamen integral bakarra hizkuntza, kultura eta lurralde-erreferenteak eskaintzen dizkiguna euskararen asabiya-n [euskararen bueltan] harilkatutako nortasun kolektibo bat eraikitzeko (...). Azken urteetan izan dira bestelako proposamenak ere, baina, oro har, erreferente hegemonikoen gainean euskal dimentsioa txertatzera mugatu dira, asko jota.**

”

Horrekin batera, Euskal Curriculum tresna bizi eta dinamiko gisa ulertzen dugula esan behar dugu, eta, gaur-gaurkoz, ez dugula martxan tresna hau ebaluatu eta hobetuko duen mekanismorik. Beraz, hor hutsune garrantzitsua dugu.

Izan ere, ariketa sano bezain beharrezkoa ikusten dugu, Lauzirikak proposatzen duen moduan, honako galdera hauek planteatzea: zein da Euskal Curriculumean definitu ditugun konpetentzien eta jakintzen oinarria? Zergatik eta zertarako behar ditugu konpetentzia eta jakintza horiek? Ematen dugun erantzunaren arabera, curriculum diseinatuko dugu gizarte-eredu hegemonikoa erreproduzitzeko eta zilegiztatzeko, alde batetik, edo, bestetik, eredu hegemoniko hori kritiko aztertu eta eraldatuko duten pertsonak garatzeko. Pertsona-eredu jakin bat garatzen laguntzeko behar dugun curriculum, hain zuzen ere.

# AZKEN GOGOETA

Liburu honetan saiatu gara azaltzen ikastolok, zibilizazio gisa zein herri gisa ditugun erronken aurrean, zer ekarpen egin nahi dugun eta, horretarako, nola lan egin nahi dugun. Orain, berriz, liburua biribildu nahi dugu azken gogoeta batekin.

Marko Orokor hau plazaratu dugu ikastolok izate komun bat ez ezik egiteko komun bat eta egiteko modu komun bat ere baditugula uste dugulako, eta horiek garatzen jarraitzeko beharra badugula ere uste dugulako. Hiru elementu horiek -izatea, egitekoa eta egiteko modua- elkarrekin hausnartuta eta adostuta izateak gure mugimenduari zentzua, koherentzia eta indarra ematen dizkiola uste dugu. Alegia, esku artean ditugun erronkei erantzuten saiatzeko ezinbestekoa dugu, ikastola bakoitzak bere herrian egiten duen ekarpenarekin batera, Euskal Herrian egiten dugun ekarpenaren eta egin dezakegun ekarpenaren kontzientzia izatea, eta hortik, guztion arteko zoru komuna eraikitzen jarraitzea eta partekatzea. Horri bide eman nahi dio esku artean duzun Hezkuntza Marko Orokor honek.

Hemendik aurrera, beraz, ikastola bakoitzean Markoaren gaineko hausnarketa egitea nahiko genuke, eta bertan planteatzen denarekiko

adostasunak eta proposamenak jasotzearekin batera, Hezkuntza Marko Orokor honi erantzuteko eraiki beharreko zoru komun horretan Ikastolen Elkarteak zer laguntza eta gidaritza mota eskaini beharko lukeen irudikatzen joango gara.

Hezkuntzan eta eskoletan, oro har, inertziek izugarrizko indarra dute. Egunerokoak dakarren zurrunkiaren aurrean, eskolak ahalegin berezia egin beharra dauka geratu eta bere helburu nagusiaren eta bere praktikaren inguruan pentsatzeko. Erronkaz beteriko errealitate aldakor horren aurrean hain zaugarri sentitzen garen une honetan, geure buruari ezinbestean galdetu behar diogu zein diren gure eguneroko hezkuntza-praktikaren helburua eta zentzua; zertarako egiten dugun egiten duguna, eta zer egin beharko genukeen lortu nahi duguna lortzeko.

Erronka bezainbeste aukera ditugu begien aurrean. Eskola, erakunde moduan, eraldaketa betean dago. Eraldaketa hori zentzu gehiagorekin edo gutxiagorekin egin daiteke. Ikastolok argi dugu iparra. Orain bideari elkarrekin ekitea proposatzen dizugu. Bazatoz?

# BIBLIOGRAFIA

Esku artean duzun lana egiteko iturri askotatik edan dugu, irakurle. Horietatik hainbat espresuki aipatu ditugu testuan bertan, baina irakurketa ahal den gehien arintze aldera, erreferentzia zehatzik ipini gabe. Beraz, testuan falta diren eta zor ditugun erreferentzia zehatzak BIBLIOGRAFIA honetan aurkituko dituzu, gaika sailkatuta. Halaber, orrialde honetan bertan dagoen QR kodearen bidez bibliografia osatuago batera irits zaitezke. Bibliografia osatuago horretan, ahal izan dugun guztietan, erreferentziako liburu edo dokumentuetara internet bidez zuzen eta eroso iristeko estekak ere gehitu ditugu.



## NONDIK GATOZ?

ASKOREN ARTEAN: “Euskal Curriculuma egungo esperientziak eta etorkizuneko aukerak I” eta “Euskal Curriculuma egungo esperientziak eta etorkizuneko aukerak II”, Udako Euskal Unibertsitateak, Elkar Fundazioak eta Ikastolen Federazioak antolatutako ikastaroa, 2022.

ASKOREN ARTEAN: *Ikastolen hizkuntz proiektua*, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009.

BILBAO, A.; ERRIONDO, L.; GARAGORRI, X.; LAGARRETA, P. M. (zuz.): *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, 2006.

DELORS, J. (et al.): *Hezkuntza: altxor ezkutua; XXI. Menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena*. Itzulpena, Imanol Azkue, Uxo Larramendi, Juan Mari Zurutuza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1999.

- ELORZA, I.: *Elebitasunetik eleaniztasunera. Ikastolen Eleanitz-English hezkuntza berrikuntza proiektua: oinarria, bilakaera eta ekarpenak (1991-2010)*.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA: *Ikastolak orain eta gero. Ikastolen VI. Batzarra. Ikastolek onetsitako txostena*, Donostia, 2009.
- GARAGORRI, X. (zuz.): *Euskal curriculum, kultur ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik herrira. Adituen ekarpena*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Zamudio, 2004.
- GARAGORRI, X. eta ALDASORO, M.: *EKI proiektuari buruzko oinarriko azalpenak (bideoa)*, 2013.
- IKASTOLEN ELKARTEA: “Ikaskuntza prozesua eraldatzen ari den eredu pedagogikoa”, in *Ikastola aldizkaria*, 221 zenbakia, 2016ko abendua (3-6 or.).
- ROEGIERS, X.; DE KETELE, J. M.: *Una Pedagogía de la Integración: Competencias e integración de los conocimientos en la enseñanza*. Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 2010.

## IKASTOLA-EREDUA

- AMONARRIZ, K.: *Euskararen bidegurutzetik*, Elkar, Donostia, 2019.
- DEL BURGO, U.: *Kudeaketarako adierazleen sistemak ekonomia sozialeko erakundeetan: ikastolen kooperatiba-esperientziaren kasua*. UPV/EHU-ren Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuaren (GEZKI) eta Ikastolen Elkartaren arteko hitzarmen baten bitartez gauzatutako ikerketa (doktor tesia), 2020.
- GARABIDE ELKARTEA: *Hezkuntza. Euskararen berreskuratzea IV*. Arrasate, 2015.
- IKASTOLEN ELKARTEA: “Euskal Hezkuntza zerbitzu publikoa”, in *Ikastola aldizkaria*, 250 zenbakia, 2022ko urria (4-17 or.).
- IKASTOLEN ELKARTEA: “Elkartasun Kutxa”. [https://ikastola.eus/erakundea/elkartasun\\_kutxa](https://ikastola.eus/erakundea/elkartasun_kutxa)
- IKASTOLEN ELKARTEA: “Ikastolen endekalogo”. <https://www.bihar-prozesua.eus/>
- IKASTOLEN ELKARTEA: “Organigrama”. <https://ikastola.eus/erakundea/organigrama>
- IZA, I.: *Ikastola mugimendua, dabilen herria. Ikastola eredu 1960-2010*. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

- MASA, M.: “Ikastolas as a Social Innovation Phenomenon: a case study”, in GURRUTXAGA ABAD, A. and RIVERA, A. (eds.): *Implications of current research on social innovation in the Basque Country. Current Research Series*, 4. University of Nevada, Center for Basque Studies, Reno, 2011.
- MUJICA ULAZIA, A.: *Ikastolak, aitortzeko moduko eredu: euskal eskola kooperatiboa hobeto ulertzeko faktore batzuk eta bere erronkak (2022ko otsaila)*.
- SARASUA, J.: *Hiztunpolisa: euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamie-la, Iruñea, 2013.
- UEU: “Beñat Irasuegi: ‘Ikastolek eredu ekonomiko lurraldetu eta sozial baten alde egin behar dute’”. [unibertsitate.net](http://unibertsitate.net), 2019.

## ZER LORTU NAHI DUGU? PERTSONA-EREDUA

- ARIZMENDI IKASTOLA: “Pertsona-eredua”, in *Ametsak betetzeko daudelako (39-60 or.)*. Arizmendi Koop., Arrasate, 2019.
- ASTIGARRAGA, E.: *Escenarios para Mondragon Unibertsitatea al 2025 (doktor tesia)*. Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza, 2016.
- AZKARRAGA ETXAGIBEL, J.: *Euskal harriak*. Alberdania, Irun, 2011.
- HANSEN, M. T.: “IDEO CEO Tim Brown: T-Shaped stars: The Backbone of IDEO’s Collaborative Culture”. *Chief Executive aldizkaria*.
- HARARI, N. Y.: *Homo Deus: Breve historia del mañana*. Debate, Barcelona, 2015.
- HARARI, N. Y.: *21 lecciones para el siglo XXI*. Debate, Barcelona, 2018.
- HARARI, N. Y.: *Sapiens. Gizadiaren historia labur bat*. Elkar, Donostia, 2019.
- UNESCO: *Rethinking Education. Towards a global common good?*, UNESCO, Paris, 2015.

## HEZKUNTZA MARKOAREN PRINTZIPIO PSIKOPEDAGOGIKOAK

- ASKOREN ARTEAN: *Desarrollo psicológico y educación* (Alvaro Marchesi, Jesús Palacios, César Coll comp.), Alianza Editorial, Madrid, 2014.
- ASKOREN ARTEAN: *Manual de psicología del desarrollo aplicada a la educación*, Pirámide, Madrid, 2011

- BOOTH, T.; AINSCOW, M.: *Index for inclusion, developing learning and participation in schools*, CSIE, Bristol, 2002.
- CRISTÓBAL, R.: *Fundamentos psicológicos para una pedagogía de la confianza / Konfidantza pedagogikoarentzako oinarri psikologikoak*, Pai-deia, 2015.
- HATTIE, J.; CLARKE, S.: *Aprendizaje visible: feedback*, Paraninfo, Madrid, 2020.
- HATTIE, J.: *Aprendizaje visible para profesores. Maximizando el impacto en el aprendizaje*, Paraninfo, Madrid, 2017.
- MUÑOZ, A.: *Psicología del desarrollo en la etapa de educación primaria*, Pirámide, Madrid, 2020.
- MUÑOZ, A.: *Psicología del desarrollo en la etapa de educación infantil*, Pirámide, Madrid, 2010.
- RUIZ MARTÍN, H.: *¿Cómo aprendemos? Una aproximación científica al aprendizaje y la enseñanza*, Graó, Barcelona, 2020.
- SANMARTÍ, N.: *Evaluar y aprender: un único proceso*, Octaedro, Barcelona, 2020.
- TORO, J. M.: *Educación con "co-razón"*, Desclée de Brouwer, Bilbao, 2017.
- WILD, R.: *Educación para ser: vivencias de una escuela activa*, Herder, Barcelona, 2013.
- WILD, R.: *Etapas del desarrollo*, Herder, Barcelona, 2012.

## HEZKUNTZA-ILDOAK

- ARGUÍS, R.; BOLSAS, A. P.; HERNÁNDEZ, S.; SALVADOR, M. M.: *Programa aulas felices. Psicología positiva aplicada a la educación*, Zaragoza, 2012.
- ASKOREN ARTEAN: *Ikastolen hizkuntz proiektua*, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009.
- ASKOREN ARTEAN: *La persona y su crecimiento: fundamentos antropológicos y psicológicos de la formación PRH*, Personalidad y Relaciones Humanas, Madrid, 2012.
- BARAIBAR, H.; BEREZIARTUA, A.: *Aisiari buruzko ikastolen marko orokorra* (2023).
- BUENO, D.: *El cerebro del adolescente*, Grijalbo, Barcelona 2022.
- BURDAIN, L.; GORDILLO, B.: *EHI Inklusioari buruzko markoa* (2023).

- CARBALLO, A.; PORTERO, M.: *10 ideas clave. Neurociencia y educación. Aportaciones para el aula*, Graó, Barcelona, 2018.
- CASAS, F.: *El derecho a la participación social de la infancia*, 2008.
- CEBALLOS, N.; SUSINOS, T.: "Voz del alumnado y presencia participativa en la vida escolar", *Revista de Educación*, 359, septiembre-diciembre 2012 (24.44 or.).
- DURAN, D.: *Aprensenyar*, Horsoni Editorial, Barcelona, 2016.
- FERNÁNDEZ ENGUITA, M.: "Del aislamiento en la escuela a la codocencia en el aula", *Participación educativa*, vol. 7, nº 10 (15-32 or.), 2020.
- FULLAN, M.; HARGREAVES, A.: *La escuela que queremos. Los objetivos por los que vale la pena luchar*, Amorrortu Editores, 1996.
- JIMÉNEZ TRENS, M. A.; NAVARIDAS, F.: "Cómo son y qué hacen los 'maestros excelentes'", *Revista Complutense de Educación*, vol. 23, nº 2, 2012 (463-485 or.).
- LLENA, A.; PARCERISA, A.; UCAR, X.: *10 ideas clave. La acción comunitaria*, Graó, Barcelona, 2009.
- SUSINOS, T.; CEBALLOS, N.; SAIZ, A. (eds.): *Cuando todos cuentan. Experiencias de participación de estudiantes en las escuelas*, La Muralla, Madrid, 2018.
- WILLIAM, D.: *Embedded Formative Assessment*, Solution Tree Press, 2011.
- BURDAIN, L.; GORDILLO, B.: *EHI Inklusioari buruzko markoa* (2023)

## CURRICULUMA: ZER, ZEIN ETA ZERTARAKO?

- GARAGORRI, X. (zuz.): *Euskal curriculuma, kultur ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik herrira. Adituen ekarpena*. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Zamudio, 2004.
- BILBAO, A.; ERRIONDO, L.; GARAGORRI, X.; LAGARRETA, P. M. (zuz.): *Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, 2006.
- ERRIONDO, L.: "Euskal curriculuma?", *Jakin*, 93-94 (23-43 or.), martxo-ekaina, 1996.
- LAUZIRIKA, A.: "Ekinez nor izateko euskal curriculuma", *Jakingarriak*, 75 (16-31 or.), 2015eko abendua-2016ko urtarrila.



# PERTSONA-EREDUA

## DEFINIZIOAK

### IKASTOLEN ELKARTEA

#### BEREIZGARRIA

#### DEFINIZIOA

#### EUSKALDUNA

Euskal hiztun osoa da, euskal identitate propioa eraiki du eta identitatea eraikitze modu anitzak daudela ulertzen du. Euskara erabiltzeko hautu kontzientea egiten du. Euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna egunerokoa bizi ditu eta horiek bizirik mantentzeko konpromisoa erakusten du. Gure hizkuntzak eta kulturak bizitako gutxitze-prozesua ezagutzen du, egoera beretsua bizi duten beste herri-proiektuekiko elkartasun-sentimenduak ditu, eta munduko beste kultura nahiz hizkuntzekiko begirunea eta jakin-mina adierazten ditu. Hizkuntza hegemonikoak ere baliatzen ditu gizarte mailan betetzen duten funtzio sozialez jabetzen delako.

#### EZAUGARRIA

#### DEFINIZIOA

Euskal hiztun osoa (kontzientea, koherentea eta konpetentea)

Euskaraz bizitzea erabaki du kontzienteki eta euskararen erabilera-eremuak zabaltzeko konpromisoa hartu du. Euskarak erregistro ezberdinak badituela ezagutzen du eta hein batean erabiltzen ditu: euskalkiak, hizkera-erregistroak, batua... Hizkuntza ekologiaren begiradatik, ulertzen du hizkuntza eta hizkelki (hizkuntzen aldaera) guztiak munduko errealitatea ezagutzeko ezinbestekoak direla, eta era horretara, norbere burua eta gizartea aberasteko.

Hizkuntzaren, kultura edo identitate aldetik gutxitze-egoeran dauden herrien garapena bermatzeko ikastolan antolatzen diren ekitaldi, ekintza eta proiektuetan parte hartzen du.

Euskal identitatea eta kultura ezagutu eta bizi dituen

Euskal identitatearen eta kulturaren bereizgarriak eta ezaugarriak ezagutzen ditu (Nazioa-lurraldetasuna, historia, ohiturak...), agerpen/errepresentazio-sinbolikoak ezagutu eta bizi dituelako.

Horrez gain, euskal identitatea eta kultura gordetzeko, biziberritzeko eta zabaltzeko jarrera eta konpromisoa du, euskal kulturako ekimenetan parte hartuz, hura "kontsumituz" eta euskal kultura eta identitatearen inguruko adierazpide berriak sortuz.

Defendatzen du badela euskal identitate soziala eta horren baitan askotariko identitate euskaldunak eraiki daitezkeela, eta horrekin guztiarekin bere sintesi propioa sortzen du.

Eleaniztuna

Beretzat hizkuntzek balio identitarioa eta soziala dute eta mundu-ikuskerara bat jaso eta zabaltzen dute.

Euskara ardatz izanik, Euskal Herrian bizi diren hizkuntzekiko begirunezko jarrera inklusiboa du. Eta badaki Euskal Herrian euskaraz gain beste bi hizkuntza direla nagusi: gaztelania eta frantsesa (Bidasoaren alde batean euskararekin batera frantsesa eta beste aldean, euskararekin batera gaztelera). Euskal Herrian bizitzeko, euskaraz gain, bigarren hizkuntza menperatu beharraz eta hirugarren batekiko gutxieneko hurbilpena izatearen beharraz jabetzen da. Mundu mailako hizkuntza transbertsala den ingelesaren garrantziaz ere kontziente da.

## BEREIZGARRIA

## DEFINIZIOA

**BARNE-  
-SENDOTASUNA  
DUENA**

Bere buruaz duen irudia bat dator benetan denarekin, bere ezaugarri eta izatearekin. Bere burua ezagutzea eta onartzea barne-askatasuna eta heldutasun afektiboa lortzeko gako garrantzitsuak direla uste du. Horrek guztiak eta bere buruarenganako, besteenganako eta bizitzarenganako konfiantzak erresilientziaz erantzuten laguntzen diote bizitzak planteatzen dizkion erronka eta galdera nagusien aurrean.

## EZAUGARRIA

## DEFINIZIOA

Barne-askatasuna duena

Bere burua ezagutzen du (ezaugarriak, ahalmenak, beharrak eta mugak) eta honen irudi doitua duenez, gai sentitzen da besteen aurrean den bezalakoa izateko eta berari dagozkion erabakiak hartzeko, besteak aintzat hartuta baina haien mendeko bihurtu gabe.

Bere bizitza proiektua eraikitzeko, bere bide propioa egiten du, eta horrek barrutik bakean uzten du, batzuetan jarrera horrek bakardadea eta ulertu ezina ekartzen badizkio ere.

Heldutasun afektiboa

Momentu konkretuetan emozioak indar bereziaz pizten zaizkionean, emozioen kontzientzia nahiko argia dauka eta emozio horiek nola kudeatu ikasten ari delako badaki horiekiko beharrezko distantzia hartzen.

Erresilientziaz erantzuten die egokitzen zaizkion egoera zailei; izan ere, onartu egiten du errealtatea, eta hortik ateratzen du indarra, egoera eta pertsona bakoitzari erantzun neurrizko eta egokia emateko.

Bere ongizatea zaintzen duena

Bizitza orekatua izatearen garrantziaz jabetzen da (oreka emozionala eta mentala lortzeko lanketa pertsonala egitea, harreman sozialak eraiki eta zaintzea, neurriko jarduera fisikoa egitea, identitate digitala babestea, mundu digitaletik deskonektatzea, elikadura zaintzea, atseden hartzea...) eta modu arduratsuan jarduten du.

Konfiantza duena

Konfiantza du bere buruarengan, besteengan, eta oro har, bizitzarengan eta akatsak ikasteko bide bezala ikusten ditu.

Barne-konfiantza hori duelako aurre egin nahi izaten die bere ardurapeko erronkei.

Era berean, besteen gaitasunak ikusten eta baliosten ditu eta sentitzen du besteekin konta dezakela aurrera eramane behar dituen eginkizun eta erronketarako.

BEREIZGARRIA	DEFINIZIOA	EZAUGARRIA	DEFINIZIOA
<b>ERABAKITZAILE- EKINTZAILEA</b>	Arazo eta egoeren aurrean konponbideak bilatzeko eta erabakiak hartzeko galderak egiten dituen, mundu digital honetan informazio-iturri fidagarrietara jotzen duena, berau kudeatzen (aukeratu, partekatu, erregistratu, sortu...) duena eta kritikotasunez gogoeta egiten duena. Ausardiaz, arduraz eta konfiantzaz erabakiak hartzen dituen eta ekintzetan gauzatuko dituen. Azkenik, ekintzen ondorioak ebaluatzen eta hobekuntzak aurrera eramaten dituen.	Jakin-mina duena	Errealitatea ulertzeko eta etengabe ikasten jarraitzeko, galderak sortzen zaizkio eta galdera horiei erantzun ahal izateko informazioa bilatzeko prozesuetan aktiboki inplikatzeko da.
		Analitiko-kritikoa	Egoerak aztertzeko edota erabakiak hartzeko metodo zientifikoa erabiltzen du, informazioa eraginkortasunez eta zorrottasunez kudeatzen du, iturri eta informazioaren fidagarritasuna zainduz eta hortik bere iritzi propioa sortzen du. Hartutako erabakien inguruko azterketa egiten du eta beharrezko doikuntzak proposatzen ditu.
		Erresolutiboa	Egoera-arazo-erronkei aurre egiteko konponbideak eraginkortasunez, ausardiaz (informazio guztia izan gabe, dituen arriskuen kontziente izanik...) eta erantzukizunez bilatzen eta ezartzen ditu, ikuspegi malgu eta irekiarekin.
<b>ERALDATZAILEA</b>	Giza duintasunaren, bere komunitatearen eta gizarte osoaren garapen justu, demokratiko eta iraunkorraren alde konprometitzen da, irtenbideak ikuspuntu desberdinetatik aztertuz, bide berriak urratuz.	Humanoa	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala errespetatu eta defendatzen du (giza duintasuna, askatasuna, elkartasuna, justizia eta berdintasuna).
		Sortzailea	Momentuan sortu edota gizarteko egoerei lotutako arazo zein erronkei, irtenbide originalak emateko errealitatea ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du. Konbentzioetatik haratago, ohiz kanpoko eremu originaletara bide berriak urratzen ditu eta ideiak sortzen ditu.
		Solidarioa	Norbanakoaren, gizartearen edo ingurumenaren arazo, beharrian edo erronkez jabetzen da. Horiekiko konpromisoa agertzen du, ekarpen aktiboa eginez, beste norbaitek eskatuta edo gabe. Interes propioak soilik lehenetsi gabe jarduten du, elkarri lagunduz eta babestuz eta kooperazioan arituz.

BEREIZGARRIA	DEFINIZIOA	EZAUGARRIA	DEFINIZIOA
<b>KOOPERATIBOA</b>	Arretaz entzuten du, elkarrizketa eraikitzailea bultzatzen du eta elkar ulertzeko eta helburu komuna lortzeko lan egiten du. Iritziak errespetatzen ditu eta, aldi berean, bere iritzi propioak ematen ditu sortze prozesua aberasteko ekarpenak eginez, bakoitzak beretik emanez osotasun partekatua eraikitzea balio handikoa dela pentsatzen duelako. Komunikatzerakoan testuingurua eta hartzailea kontutan hartzen ditu.	Lankidetzan diharduena	Adostu eta partekatutako helburu bat lortzeko elkarrekintza eta gaitasun sozial eta kognitiboen garapena ezinbestekotzat jotzen ditu: taldekideez arduratzen da, bakoitzaren beharren arabera laguntza eskaintzen du eta bere beharrak asetzeko ere laguntza eskatzen du, taldekideen arteko konfiantza eraiki eta talde-pertenentzia sustatzeko.
		Erantzunkidea	Taldearen arrakasta norbanakoaren erantzunkizunaren baitan dagoela dio. Bakoitzak bere ardurak hartuz eta bere egitekoak betez ekoizpen aberatsago eta hobea lortuko dutela eta osotasunari erantzun ahal izango diotela ulertzen du.
		Enpatikoa	Aktiboki entzuten du, parekoak sentitzen duen emozioa jasoz eta ulertuz eta besteen emozioak epaitu gabe baldintzarik gabe onartzen ditu. Ez ditu errudunak bilatzen, kaltea edo sufrimendua eragiten duten ekintzen aurrean erantzukizunean eta konponketan jartzen du begirada.
		Komunikatzaile asertiboa	Modu sinesgarri eta eraginkorrean ematen ditu ezagutzera bere pentsamentu, ideia eta emozioak, zenbait komunikazio-tresna eta lengoaia erabiliz eta testuingurua eta hartzailea kontutan hartuta. Horrez gain, uste du guztiok errespetua merezi dugula eta horregatik errespetuz komunikatzen da eta besteak ez mintzeko komunikazio estrategiak baliatzen ditu.
		Autoeratua	Autonomia indibidual bat dagoen moduan, autonomia kolektibo bat dagoela ulertzen du, autoeraketa, alegia; eta autonomia kolektiboa egon dadin autonomia indibiduala ezinbestekoa dela pentsatzen du. Autoraketak askatasuna, gaitasuna eta eraginkortasuna ematen dizkio taldeari bere burua antolatzeko, erabakiak hartzeko eta kudeatzeko.